


Inozentzio Olea

Bizitza izbide



Bizitza izbide

Auspoa Liburutegia
244

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Inozentzio Olea

Bizitza izbide

Auspoa Liburutegia
(1997)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-50-X

Legezko Gordailu: S.S. 350/97

Itzaurrea

Inozentzio Olea Ariztimuño bertso-jartzaille bezela ezagutu genduan leenengo. Aren sailak sarritan agertzen ziran gure aldizkarietan. Zenbait sari irabazi ere bai. Bi bertso-liburu ere baditu argitara emanak: *Goierriko lorak* (1970, *Auspoa* 98-99) eta *Otemotxeko arnasa* (1984, *Auspoa* 173).

Gaur, berriz, itz-lauz edo prosaz idatzitako liburu bat eskeintzen digu: *El Diario Vasco* egunkarian azaldutako zenbait idazlanen bilduma, alegia.

Oleari bere leen alderdia, bertso-jartzaillea izatea alegia, nundik datorkion antzematea gauza erreza da. Beste bertsozale askorekin gertatu oi danez, bere jaiotetxean, Zeraingo Mendarte base-rrian, bertso zaarrak entzunez, zaletu egingo zan txikitandik; eta gero, urteen buruan, berak ere jar-tzeari ekin.

Baiña bigarren alderdi au, itz-lauz ere idazle izatea, nundik eta nola bereganatu ote du? Ori adieraztea izan dedilla itzaurretxo onen gaia.

Orain amalau urte, 1983-an, *El Diario Vasco* egunkariak euskal idazleren bat pozik artuko zuala jakin erazi zidan. Izen egoki bat bereala bururatu zitzaidan: Txomin Garmendia bertsolaria, aldi artan ezbear batean min artuta zegoana eta naiko denbo-ra zuana. Ala, berari esan eta an asi zitzaigun

egunkarirako idazten, gogoz eta kemenez asi ere, gaur ere xuxen asko daraman langintzan. Eta beste urte askoan ortan jarrai dezala.

Egunkarikoak laster oartu ziran Txomiñen idazlanak arrera ona izaten zutela; erriak gustokokak zituala, alegia. Etzerala leku betegarriak baka- rrik. Bestela ezer gutxi irakurtzen zutenak, idazki oien zai egoten zirala. Ala, orrelako beste idazle batzuk ere artuko zituztela esan zidaten.

Izen-zerrenda luze samarra bereala bururatu zitzaidan. Danak ere nere adiskide izanik, aiengana joan eta nai ote zuten galdetuz aterik ate ibili nintzan egun batzuetan, zer bear zan aal dan garbienik azalduz. Batzuk etziran ausartu. Beste batzuk, berriz, gogotik asi ziran. Auen artean: Mariano Ostolaitz oiartzuarra zana, Martzelino Manterola lezoarra, Manuel Lasarte bertsolaria, Joxe Mari Lertxundi aiarra, Teodoro Mujika zizurkildarra, Itxasondoko Bixente Barandiaran eta abar.

Oiek danak beren lanak eskuz idatzi oi zituzten; eta, ni artean Naparroako Xabierren bizi bainintzan, korreoz ara bialtzen zizkidaten. Nik, berriz, artutakoan, aal dan azkarren makinaz edo ordenagailluz idatzi eta egunkarirako bidean jarri.

Alakoren batean, *El Diario Vasco* eskuratu eta an nik makinaz pasa gabeko Txomin Garmendiaren idazlan bat eta beste ikusten asi nintzan. Urrena alkarrekin topo egindakoan, galdetu eta onela erantzun zidan:

– Bai. Nere idazlan oiek, Xabierreko joan-etorria egiten egun batzuk bear dituzte. Oietako batzuk presakakoak izan, ordea. Leenbaileen agertu bear diranak, gaurkotasunik galduko ez badute. Ala, makina koxkor bat erosi eta neronek idazten ditut, aal dan moduan bada ere.

Mekanografia-lana ikasteko sasoirik onena aspaldian pasea zeukan Txomiñek, baiña bereala trebetu zan. Ala, nere etxeko ateak jotzen zituzten aren lanak bakantzen asi ziran, eta andik puska batera erabat gelditu. Komeni zan tokira berak zuzenean eramaten zituan, bidean denborarik galdu gabe.

Mesede ederra egin zidan neri. Kopiatzaille-lan ura gustora egiten nuan, eta nere euskera pobre eta traketsa obetzeko bidea ere banuan ura, denbora berean. Baziran egunak, beste zeregin guziak alde bat utzi eta korreokak ekarritako lau, sei edo zortziraiño idazlan makinaratu bear nituanak. Ziur esateko ez dakit, baiña gutxi gora-beera seireun edo zazpirerun bat artikulu kopiatuko nituan nik era ortan urte aietan.

Ala, garbi ikusi nuan beren lanak berak makinaz papereratuko zituzten idazleak bear zirala. Orduan beste izen batzuk gogoratu zitzaizkidan: Itxasondoko Jesus Lete *Ibaiertz*, Donostiako Loiolako Joxe Aierbe, Lasarteko Pedro Artetxe. eta Zeraiñen jaio eta Legazpin bizi dan Inozentzio Olea au.

Gogotik ekin ziotela esan bearrik ez dago. Izen oiek maiz agertzen ziran *El Diario Vasco*-ren orrialdeetan, idazlan mardulen oiñean, egunkari orren eta gure izkuntzaren onerako.

Irakurleak zera batez oartu bearko luke: aita-tutako adiskide oiek bertso gintza zer dan ondo dakitenak dirala; danak jendeaurrean kantatzen ez badute ere, bertsoak paperean moldatzen dotore saiitzen diranetakoak ditugula.

Orain baiño leen esan izan det zer dan orren arrazoia, baiña errepikatu egingo det. Bertsolaria, bai bertsoak aotik aora kantatzen dituana eta bai paperean jartzen dituana, itzaren doaia berezkoa daukan gizona da. Itzaren bidez eder-lanak egiteko

gai da. Literatur-sena berekin duala munduratu da.

Gure artean oso kontu berezia degu, ordea: bertsolaritza beste literatur-alor guziak izkutatzeraino puztu eta aunditu da. Ala, gure erri-literaturaren eremu guzia berak betetzen duala uste degu askotan. Gure izkuntzak beste lore batzuk eman dituala burutik etzaigu pasa ere egiten zenbait aldiz.

Orregatik, eder-sena berekin izan eta paperean irauli nai duanak, bertsoaren bidea artu oi du ia beti gure artean. Beste inondik bere barrua ustu dezakeanik etzaio gogoratzen. Orrenbesteraingo nagusitu da bertsoa, esan bezela, gure erri-literaturan.

Ala, inoren izenik emango ez badet ere, bat baiño geiago etorri izan zaizkit neri eskuan bertso-pilla zutela, baiña bertso txarrak benetan. Alkarrekin izketan asitakoan, berriz, laster oartzen nintzan kontalari bikaiñak zirala. Aien literatur-bidea etzan, beraz, bertsoa, berak uste zuten bezela, itz-lauzko kontaera baizik. Batzuetan, ola zetorrenari bide berri ori erakutsi eta artara bultza egiten nuan; eta andik abiatu eta frutu onik emandakorik badago bat baiño geiago.

Baiña geiegizko zama zan neretzat idazlan oiek danak kopiatzea. Gaiñontzeko lanetarako denbora kentzen zidaten. Orrela ezin jarraitu eta beste kopiatzailleren bat berak billatzeko abisatu bear izan nien adiskide oieri. Batzuek ala egin zuten eta pixka batean jarraitu ere bai.

Dana dala, beti ere kopiatzaille baten premian ziran artikulu oiek, eta beren akats bat ortik zetorren: joan-etorria egiten egunak bear zirala eta egunkarian agertu ordurako gaurkotasuna galduta zeukatela. Ori errez konpondu zitekean kopiatzaille batzuk billatuta, baiña artarako modu pixka bat zutenak etziran orretaz arduratu.

Baserri-usaia zan, beste batzuen iritziz, lan oien bigarren akatsa. Baiña ori akatsa balitz, gure erri-literatura guzia baztertu bear genduke; baita literatura eskolatuaren zati aundi bat ere; baita euskera bera ere. Baserria gure izkuntzaren eusgarririk sendoena ez ote degu, bada, izan?

Dana dala, urte aietan esandako eran agertu ziran egunkari-idazlan oiek *erri-kazetaritza* jator bat sortu edo osatu zutela esango nuke. Gure erria periodikoetan idazteko gauza zala erakutsi, alegia. Bere buruzbideak, pentsamentuak, iritziak eta kezak itz-lauz ere azaltzen bazekiala. Ordurarte bertso-paperen bitartez egiña zuan lantegi ori. Orra bat-batean bide berri batetik gauza bera lortu. Garai bateko bertso-paperak irakurle asko zituztela badakigu. Baita egunkariko idazlan oiek ere. Arrazoi beragatik, gaiñera: bertso-paperetan bezela, erriak idazlan oietan ere bere euskera arkitzen zualako, arkaitz-iturri batetik ixurtzen dan ura bezin garbi eta preskoa.

Gure erriaren gaitasun ori argi eta garbi azaldu zan urte oietan. Erri-kazetaritza jator bat egiterik bazegoala gure artean.

Esan bezela, erri-kazetari oietako bat izan genduan Zeraingo Mendarte baserrian jaio eta aspaldian Legazpin bizi dan Inozentzio Olea adiskidea. Aren lanen bildumatxo bat eskeintzen diogu gaur irakurleari. Ez iñola ere bilduma osoa, ortarako au bezelako liburu asko bearko lirake eta. Ezta ere antolojia edo idazlan autatuak ere. Arek *El Diario Vasco* ortan idazten asi zanetik asita, jarraian segi artikuluak jasotzen, liburu au betetzeko lain eskuratu arte. Zeatz esateko: 1986-ko epaillaren 6-an argia ikusi zuan liburu ontako leen idazlanak; eta azkenak, 1987-ko azaroaren 4-an.

Olearen lan oiek beti edo geienetan irakurtzen nituan argitaratu aalean. Atsegin zitzaizkidala esan

bearrik ez dago. Orain, berriz, liburu ontako danak alkarren segidan begietaratu ditut. Bai orain ere gustatu, baiña beren osotasunean beste ikuspegi bat eskeiñi didate.

Leenengo, euskeraren arazoa. Euskera jatorra, egokia eta aberatsa Olearena. Itz batean esateko, euskeraz pentsatutako euskera. Ez, beste askok egiten deguna, gure emaitzak erderaz pentsatu eta nola edo ala euskal itzekin jantzi. Euskera batua-ren auzia da aspaldiko urteetan gure artean darabilkiguna. Baiña gure izkuntzaren arazo nagusia ez da berez ori, benetako euskera izatea baizik, batua edo batu gabea izanagatik.

Ortaz gaiñera, Oleak badaki bere artikuluen aria bidea galdu gabe elburura zuzen eramaten. Kurpilla dotore ematen maixua dala esango nuke. Umore-puntu batekin gatzez ongi ornitzen ere bai. Baiña ori etzuan artikulugintzan ari-ari zala lortu. Bat-batean gaillurra arrapatuta agertu zitzaigun leenengo idazlanean. Berezkoa ez duanari Salamankak ezertxo ematen ez diola esan oi da erderaz. Berdin esan genezake, berezko duanak Salamankara joan bear aundirik ez duala. Euskeraz dioguna: berez bear du Billabonakoa.

Basarri-kutsuaren akatsa aitatu degu leenago. Esan bezela, nik ez det uste idazlan oiek zapuztutzeko aiñako arrazoia danik. Ala ere, itzal ori ez du iñork Olearen lanetan arkituko, gaurkotasunez betetako gaiak erabiltzen ditu eta.

Urteetan bere langintza ortan zintzo asko jarraitu zuan Oleak 1996-garrenera arte. Baiña aren lanen bearrik etzutela esan zioten bat-batean egunkaritik, beste zenbaiti bezela. Zergatik ez dakigu.

Esan bezela, erri-kazetaritza au bear dan mailara irixten etzala uste zutenak baziran. Gu iritzi ortakoak ez gerala leen esan degu eta liburu onek

berak ere garbi adierazten du ori. Bestela, ez genieke idazlan oiei *Auspoa* liburutegi ontan lekurik emango. Nork bere iritzia izateko eskubidea du, eta guk ere badegu gai ontan gurea.

Azkenik, Zeraingo Udalarari eskerrak gure partetik, liburu au argitara aal izateko eman duan laguntzagatik. Or ikusten da aspaldian erritik kanpo bizi dan errikoseme au, gogoan ez-ezik, biotzean ere badaukala.

A. Z.

Eskertu nairik

1994-garrengo ilbeltzaren 15-ean omen egin zidaten Zerain'en, nere jaioterrian, bertako Kultur Etxeak antolatuta. Egun unkigarria izan nuan. Liz-tormendi alkartean apaldu ondoren, Bertso Jarrien Pesta ospatu zan erriko pelotalekuan. Egun artarako moldatu eta kantatutako bertsoak izan ditezela nere liburu onen atari.

Au poza dauka nere biotzak
zeraindarra naizelako,
zuek eskertu nairik une au
eman didazutelako!
Arro antxean banago ez da
omendu nazutelako,
baizik Zerainek bere semeak
estimatu dauzkalako.

Zorionean erri ontantxe
asi zan nere bizitza,
orain berari eskerrez nago,
garbi ematen det itza.
Mendarte bazan nere kabia
eta ni bere emaitza,
Zerain izan da nere kabia
babestu duan zuaitza.

Zure seme bat emen daukazu
maitasuna dariola,
zein txorik ez du maite izaten
kabia daukan arbola?
Zerain, neretzat zer izan zeran
nik ezin aztu iñola:
aske izaten ikasi nuan
ate gabeko kaiola.

Ene erritar biotzekoak,
zein eskuzabal zeraten!
Gutxi ereinda auxe da uzta
jaso detana nik aurten!
Gure arteko lokarri auxe
sekulan ez dedin eten,
badakizute serbitzari bat
nun arki dezakezuten.

Inozentzio Olea

Arrolioa = Petroleoa

BETE ez badira ere, laister izango dira amairu urte arrolioa, edo petroleoa, nai dezuten bezela, garestitu zala. Munduak etzuan txantxetako astindua artu orduantxe.

Arrolioa garestitzeak beste gauza asko eta askoren salneurriekin zer ikusi aundia izan, eta gasolina, argi-indarra, plastikokiak eta nork daki zenbat gauza, garestitu ziran. Ori zala ta, berebiziko krisis baten sorrera izan zan petroleoaren garestitzea: industri eta taller koxkor asko itxi bearrean gertatu ziran, eta ortik etorri zan lanik eza, eta bere ondorenak etzituzten berriketako kalteak ekarri Euskalerrira ere.

Orain, berriz, zer izango eta etzaigu ba arrolioa merkatzen asi, eta ez gutxi gaiñera. Krisisaren azkena izango zalakoan edo, amesetan asiak geunden, baiña or nun esaten zaigun petroleoa merkatzek berebiziko kalteak ekartzeko arrixkoa dagola. Dana dala, gasolina ez omen da merkatuko beintzat, eta argi-indarra, telefonoa eta oiek garestitzera omen dijoaz. Ez danak batera noski, baiña poliki-poliki, garestitzera. Ea guk antzik eman gabe egi ten diran igoera oiek.

Kontua da, arrolioa garestitu zala, eta lanik eza, diru palta, urritasuna, ezin-bizia, krisisa. Makiñabat akats estaliko ziran izen onekiñ.

Merkatu da arrolio edo petroleo edo dalako ori, eta diru gora-beratan zer ikusia dutenen artean izugarrizko eziñegon eta kezka sortu omen dira. Nork antzeman?

Ala ere, bai omen dira petroleo gora-bera onek ikararik eragin gabeko nazioak. Suiza izan bear du auetako bat, entzun degunez. An ez omen dago lan paltarik. Gaztediak bai omen du ikasketak egiteko bear aiña aukera, eta dirudienez gu baiño obeto ezita daude suizatarrak, bai goikoak eta bai beekoak.

Bakoitzak bere bearkizunak bete bearra dagola etsita egon nunbait, eta ori mesedegarri izan, bai ugarialdietan eta bai urrialdietan.

Nazio gutxitan bezelako askatasuna omen dago Suizan, eta ango arazoetako bat, sortzen duten diruarekiñ zer egiñ omen da. Emen ez dago orrelakorik. Suizatarrak beti izan dute jende zeatzaren fama. Orduan ibiltzen diranak, legebetetzaille zintzoak eta abar. Ez da arritzekoa alde batera orrelakoetara petroleo-krisisaren zipriztiñak ez irixtea.

Beste au ere entzun degu Suizari buruz: alegia, orain bi edo iru urte arte ango emakumeak etzutela botoa emateko eskubiderik.

Ango askatasun eta ainbeste diru edukitzearekiñ zer ikusirik bai ote du onek? Dana dala, krisis oni iges egin dion nazioak eta ango gizon eta emakumeak badute meriturik asko. Badaukagu nun eta zer ikasia.

Etxekoandreak eta fubola

ERABAKI polita eta egokia oraiño ontan Donostiko Realak artu duana: bere taldeak Atotxan jokatzeko duanean, aurrak Polikiroldegian biltzen ditu beren zaitzaille, erakusle eta guzti, eta an jarduten dira gogozko zaizkien kiroletan.

Gure alderdi auetan fubolzale asko izanik, senar-emazteen artean ika-mika bat edo beste sortzea ez da arritzekoa izaten. Realeko zuzendariak orren berri jakin, eta orra arazoa konpontzeko bidea jarri.

Emendik aurrera etxekoandreak ez dute izango etxean umezai egon bearrik, eta senarrak lasaiago joango dira fubola ikustera, emazteak errietan emango dieten bildurrik gabe.

Ortara Realak bazkide geiago izango ditu, batez ere bere taldea aurrera samar baldin badabil...

Au da bat, baiña Realak oraindik urrutirago ikusten duala esango genduke. Emazte asko dira gaur, aal duten guztiak, etxetik kanpora lana egiten dutenak, familian denborak agintzen duen bezela edo aal dan modurik onenean bizitzeagaitik. Orre-gatik, beti etxeari lotuta bizi gabe, askatasun pixka-bat izateko senarrak aiña eskubide dutela esango

genduke. Gaiñera, gaurko emakumea geroz ta kirolzaleago da, eta ez litzake batere arritzekoa izango senarrarekin batera joan eta Atotxan oraiñ artean baiño etxekoandre geiago ikustea ere.

Realak ez luke mesede txikia izango onekiñ. Au ez al da buruz jokatzea? Emendik aurrera emakumeak leen da gero baiño geiago aginduko dutela etxean? Ditekena da. “Aurrak bionak dira” esaten du emazteak, eta “Biok kanpoan lana egiten degun ezkerro, etxeko lanak ere bion artean egin bear ditugu”. Arrazoia.

Oiek guztiak ala izango dira, baiña ez genduke esango gizartearentzat kaltegarri diranik. Senar-emazteetan bat beti agintzeko eta bestea beti mendean egoteko bizi bearra gauza tristea litzake.

Leenera joaz, eta edozeiñ aldetatik begiratuta ere, jokera mesedegarria dirudi Realarenak. Umentzat ere guraso ernegatuak alkarki mokoka ikustea baiño kirolzale izaten ikastea ez da batere txarrrago izango.

Eta, etxekoandreei galtza motxez jantzitako mutill sasoiko bikaiñak fubolean ikustea gustatzen bazaiete, zer? Atsegiñ apur ori ukatu egin bear al diegu? Ez noski. Eta ez zillegi zaizkienetatik bat bakarrik ere, emazteak pozik badabiltz senarrak ere an nunbait ibilliko dira ta.

Leen eta oraiñ

GURE Gipuzkoa ontako errietan bada eliza ederrik, Oietako bat Segurako eliza da zalantzik gabe. Eliza ederra eta bikaiña.

Segurar batek esan digunez, arri landuz egindako ormak omen ditu, baiña orain berreun bat urte inguru, arri landu oiek, arri mota onak gaiñera, igeltsoz estali omen zituzten, eliz barrua edertuko zutelakoan edo. Obe omen litzake ormak leenean baleude.

Onak zer esan nai duan? Leengo euskaldunak ere oraingoak ditugun akatsak zituztela edo akatsetako bat beintzat bai: aurrekoak egindako zenbait alegiñ aintzakotzat ez artzea.

Guraso zarrak ipiñi zituzten arri landu aiek etziran gaizki egongo, orduan ormak alaxe egiteko oitura izango zan da, baiña orra ondorengoak zer egin zuten. Beste pentsakera batekoak izan eta aurrekoen lana estali, arri landuz ormak egiteko oitura aldatu, eta zerbait ohea egiten zutelakoan, eliza itxusitu. Eta oraingo segurarrak orrelakorik nai ez. Ez baita gorde elizak zuan izaera edo nortasun ura.

Seguran elizako arri landuakin gertatua bera gertatzen da gaur Euskalerrian gauza askorekiñ.

Garai batean euskaldunak euskeraz pentsatzen zuten, baiña gaur ez. Askok dira gure artean euske-

raz pentsatzen ez dutenak, ez ala nai dutelako bearbada, baiña bai arreta geiegerik ezak eta berri-zalekeriak eraginda. Orren ondorenak nabarmen daude. Segurako elizaren ormak ere ez omen dira oraiñ egin ziranean beziñ ederrak eta egokiak.

Oitura asko eta asko ere, aldatu zaizkigu.

Ez genduke esan nai leengo oitura danak gorde bearrekoak ziranik. Oraiñ ez dago soroak laiatu eta artoa ereiñez bizitzerik. Ez beiak uztarrarian lotuta lurra maneatuaz familirako ogia sortzerik ere. Joke-ra aren ondorena badakigu zer zan ondo asko: ez labore eta ez esne. Askoz naiago degu eta pozgarriago zaigu baserritar bati, idia perratu bear duala entzutea baiño, tratorearen gurpilla konpondu bear duala entzutea. Oraingo gazteei "Au ez egin eta beste ere ez" esateak ez du balio. Ori baiño obe da oraingo jolas-toki berezietan eta abar nola jokatu argi ta garbi esatea.

Eta zenbat ote dira beiñere estali bear ez genituzken oiturak: lanaren bidez aske izateko gogo indartsua, emandako itzari eustea, batabestea errespetatzea eta abar eta abar? Zertarako jardun arri landuak estaltzen, berriz agirian ipiñi nai izatekotan?

Ez dezagula gure aurrekoak egindako guztia oinperatu. Gordetzea komeni dan oiturarik ez dezagula bazterreratu, eta pentsatu dezagun euskeraz. Bestela, akabo gure nortasuna.

Argialdia ote degu?

ORAIÑALDIAN entzuten ditugunak egiak badi-
ra, zorion-aro batean asieran gaude. Arrolio-
aren salneurriak iñork uste etzuan bezela beeraka
dijoaz. Gasolina eta bere antzeko zenbait arroliki
merkatzeko gogo aundirik nabaitzen ez bazan ere,
merkatu dira apurtxo bat beintzat, eta onek lasaita-
sun pixkabat emango du zalantzik gabe. Batetik
bestera ibilli bearrak, garraio eta abar garestitzeko
arrazoi bat gutxiago.

Dolarra ere, munduko nagusi dan Ipar Amerike-
tako dirua, merkatu da diotenez, eta au ere onera-
ko izango omen da, kanpotik ekarri bearreko gau-
zak merkeago irtengo baizaizkigu. Kanpora bialtzen
ditugunak ere pezeta gutxiago balio duten dolarren
truke saldu bearko dira, baiña danera jota onela
obe omen da eta tira...

Laneko irabaziakgatik ordaindu bearreko zergak
ere zerbait jeixteko asmoak omen dira. Onela,
gauza geiago erosteko modua izango degu, eta lan
pixkabat geiago izango ote dan ba.

Aurtengo negua oso euritsua degu. Nekazaritza-
rentzat oso mesedegarri da au. Ea jaki aukera ona
eta merkea izaten degun eta atzerrietan salmenta
onak egiten diran. Negu bustia izatea oso bearrekoa
da argi indarra ugari izateko. Urtegiak ondo bete-

tzen diranean, indarra sortzen duten makiña eta gaiñontzekoak, ortarako diran tresnak alegia, mugiarazteko arrolioa erosi bearrik ez. Aurten zori on oiek guztiak izan, eta ala ere argi indarra gares-titu egin digute. Au ez degu ondo ulertzen baiña, zorrak ere bai omen daude ta...

Orra nolako zorionak etorri zaizkigun billa ibilli gabe eta asko uste ez gendula. Zer izango ote litzake guztiei etekiñ on bat ateratzen bagenekigu?

Ez dago danok pentsakera berdiñekoak izaterik, eta eztabaidak bearrekoak dira noski, baiña ez genituzke indar guztiak ortan bota bear. Alkarri mokoka jarduteak, besteen akatsak aizeetara ateratzeak eta gaitz eta txar guztien erruak beti besteen bizkar botatzeak ez du etxera gauz onik ekar-tzen.

Agintariak egiten duten guztia ez da ondo egongo, baiña zerbaít beintzat ondo egingo dute, eta setakeri utsez beti arpegi eman gabe, ala komeni danean beintzat lagun egingo bagenieke, beste kuku baten otsa entzungo genduke.

Kontu egin dezagun, ika-mikak utzi, eta agintari, politikari, enpresari eta langille alkarrengana bildu eta esan ditugun zori on oiekin aurreratu litezken diruekiñ lana jartzeko modua egiten dala. Oraiñ atzapar kizkurtuak diran pranko alkarrengana luzatzen diran esku zabal biurtuko lirake.

Suizan bizi omen dira ondo. Zer izango ote litzake Euskalerrian naiño lana balego eta dirua parra-parra balebill?

Badakigu zenbait amets egi biurtzea gauza zaila dala, baiña errez utsetik ezer gutxi lortu oi da.

Kolesterol eta alkatxofak

ORAIÑALDIAN gizartean eriotzarik geientsuena egiten ditun gaitzetako bat kolesterol omen da. Medikuak ala esaten digute beintzat.

Zer ote da ainbeste kalte egiten ari dan gaitz ori? Gauzak axaletik esanda, kolesterolak odola koipe-tsu biurtzen omen du, eta loditu. Zaiñen barruko aldean ere koipea sortzen omen du, eta odolari bideak estutu. Batzuetan itxi ere bai. Ortik etortzen omen dira sarritan zaiñak lertzeak, biotza urratzeak eta orrelako kalteak. Erremediorik ere ez duten kalteak askotan.

Gauzak erabat estutu baiño len zer egiñ esaten ari zaizkigu eten gabe medikuak: koipedun janariak, esnegaiña, aragi-gizenak eta orrelakoak alde batera utzi eta baratzako txuletak jan. Barazkiak, belarki edo berdurak, nai dezuten bezela. Ori batetik. Eta bestetik ardo, patar, wiskhy eta abar, alegia, alkoola daukaten edari guztiei ezezko legor bat eman. Gustatzen bazaizkigu ere, ez ditugula maite eta kito. Au ez da egia izango bearbada, baiña gezur kaltegarria ere ez da eta ez al da pekatu izateraiño iritxiko.

Erremedio auek badute beren laztasuna, baiña ez degu ezkor utsak izan bear.

Ez diogu oso etsi bear. Kolesterol orri kontra egiteko, alkatxofak omen dira oso onak. Baita gaitzari aurrea artzeko ere.

Urte sasoi ontan, Murcia'tik, Valencia'tik eta orrela etortzen zaizkigu alkatxofak, eta ez dira txarrak; baiña, emendik illabete pare batera edo, asiko dira Naparroako Erriberatik eta Errioxatik, eta aien aurrean txapela erantzi bearra dagola eziñ ukatu. Beraz, kolesterol-bildur baldin bagera, udaberrian Naparro aldera eta Errioxa aldera bixitatxo batzuek egitea izango degu onena. Ango sukaldariak alkatxofak maneatzeko grazi aparta baidute.

Baiña beti bada emen zerbait, eta esandako paraje oietan barrena ibiltzeak ere baditu bere arrixkoak.

Danok dakigu Naparroako maatsen zumua nolakoa dan. Eta Errioxako maastietan sortu eta lurpeko bodega aietan ontzen dana? Eta maats adarren sutan erretako arkume txuleta eta sutako autsetan erretako lukainkak? Bada or kolesterolakin borroka egitera joan eta geurekin batera kotxean ekartzeko arrixkoa ere, baiña naiz eta ori orrela izan Naparroa eta Errioxatik joan-etorri bat edo beste egin gabe ezin ditekela egon esango genduke. Ori, arantzak sudur punta zulatzeko bildurrez arrosari usairik egin nai ez izatea bezela izango litzake.

Orregatik, gauza on guztiei nolana utzi gabe, medikuetara joatea bearrezkotzat jotzen degu, kolesterolik daukagun edo jakiteko. Baditeke gero arrosari noizean bein usai egiteko moduan egotea...

Agindu naia

MARCOS diktadorearen emazte Imeldak, 2.500, bai, bi milla eta bosteun zapata pare bertan utzita alde egiñ omen du Filipinasetik.

Aginpideak pertsonak usteldu edo alperrik galdu izan ditula esan oi da, eta ez dirudi dana gezurra danik. Asko eta asko beintzat egosgogor, berekoi eta zur biurtzen dirala begien aurrean dagona da. "Nik agintzen det emen eta ez berriketakiñ etorri onuntza".

Filipinasetan ere makiñatxo bat egongo ziran oiñetako premi ederrean, baiña Imeldak etzuan ori ikusten. Ez iñori eskubiderik ukatzen zionik pentsatu.

Erriari itzaldi bat zuzentzean ala esan omen zuan: "Ni ezin nindeke gaiztoa izan, ederra naiz ta". Orra emakumearen putzontzikeri eta arrokeria. Ispilluaren aurrean jartzea naikoa burua galtzeko.

Bere senarra aginteari utzi bearrean izango zala etsi zionean, ordea, bai omen ziran beste kontu batzuek ere. Larrialdietan Manilako Gotzai jaunaren-gana joaten omen zan negarrez, eta ala esaten omen zion: "Zergatik daude danak gure aurka, guk erriari egiñ diogun ainbeste on eginda? Eta Gotzaiak pazientzi guztiz entzuten omen zituan aren aienak. Zeiñ ausartu diktadorearen emazte politari

ezer esaten? Nola esan bide txarretik zebillela? Era-kusteko jarriak daudenen egitekoa dirudi, baiña ez da beti erreza izango.

Mendekoen gaiñ muga gabeko aginpidea dutenak ez dute iñoren errukirik izaten. Ez dute iñor aintzakotzat artzen. Erria goseak, oiñutsik, asko eta asko lanik gabe. Agintaria bi milla ta bosteun zapata parekiñ eta nundik dirua pillatuko.

Orregatik, agintariei kontuak eskatzeko eskubi-dea oso bearrezkoa da, baiña askotan kontu-eskatzaille oiek ez ditu erriaren premiak bakarrik kezkatzen. Agintariak dauden tokitik kendu, eta eurak agintzen jarri naia ikusten zaiete nabarmen-nabarmen.

Agintariak, gizonak izanik, ez dituzte egiten dituzten gauza guztiak ondo egiten. Beste gauz batzuek, berriz, premizkoak eta egin litezkenak izan arren, egin gabe uzten dituzte. Ala ta guztiz ere, erriarengandik aginpiderik iritxi ez dutenak ez lirateke kritika utsean gelditu bear. Guk aukeratuak ez izan arren zerbait beintzat egingo dute ondo, eta ondo egiña aitortzea gizonki portatzea da. Onek ez du eragozpenik, auteskundeak datozenean bakoitzak derizkiona egiteko. Erriaren ona nai duala eta agintea lortzea beste ametsik ez duanarekiñ ez dago urrutira joaterik. Orrelakoentzat ere izango dira zirikatzaillak, eta kontu-artzaillerik zorrotzena, babestu nai dutela dioten erri ori dala ez ditezela aztu. Begira bestela Filipinasetara. Baliteke gero zapatak jazteko asti gabe aldegin bear izatea.

Abere-azitzailleak

MERCADO Común esaten dioten Europako Elkargoan sartzearen ondorenak ikusten asi gera poliki-poliki.

Ondoren oietako bat, Euskadiko abere-azitzailleentzat mesedegarri izango dala diote. Esan degun Elkargo ortako batzorde batek, abelgorri-aragiaren erospenetan esku artzea erabaki omen du.

Abere-azitzailleak naiko lanarekiñ omen zebiltzan. Artu dan erabaki oni esker eta gauzak Europako erara egingo diralako eta abar, aragiaren salneurriak sendatu eta sendotu egingo diran itxaropenak dira.

Españian ere esku-artze au oraintxe bertatik martxan jartzeko neurriak artuak omen daude, eta aragi mota guztiei salneurriak ipiñi omen zaizkiete.

Euskadiko baserritar geienak nekazaritzari utzi eta abere-azitzeari emanak daude aspalditxo ontan. Orregatik, European artu diran erabaki oiek gure baserrietara ere ziurtasun edo segurantzi geiago eta obeto bizitzeko modua ekartzea ez litzake arritzekoa izango.

Badakigu gure baserritarrak ori eta geiago merezi dutela. Orainartean, laguntza baiño itz eder geiago eskeiñi zaietela ere bai. European, gu ere europatarrak gera baiña, emengo aldean aurrerapen asko

dagola eta emen baiño bizibide egokiagoak lortuak dauzkatela entzun izan degu. Ea ba noizbait bederik Europa ortan sartzen geran gure baserri eta guzti.

Naiz eta nekazaritzari utzi eta abere-azitzeari eman, baserrietako premi guztiak ez dira ortan bukatzen. Baserriko lana nekosoa da, eta Euskalerriko zenbait lurretan zer esanik ez. Emen ez degu lurralde batzuetan bezelako ordekarik eta soro-sailik. Baserri bakoitzean gizon askorentzat egobiderik ere ez, eta makinaz osatu gabeko baserriak ez dauka zeregiñik. Makinak bear dira nai ta nai ez, nola beiak jeizteko ala ganadu jana ebaki eta etxeratzeko, siloak betetzeko, baratza maneatzeko eta abar. Perira joateko kotxea edo furgoneta ere bearbearrekoa da baserrian. Ea ba makinak inguratze-ko erreztasun pixkabat geiago izaten dan emendik aurrera.

Europako Elkargoan sartze orrek gerrikoa zerbait estatu erazi digu noski. IVA dala, ta au dala ta ura dala, merkatu diran gauzak baiño geiago izango dira garestitu diranak. Ala ta guztiz ere, poztuko giñake benetan europaratze ori baserritarren onerako balitz. Bat eta beste esango da, baiña oraindik ere baserrietan gordetzen da euskera dan bezelaxe, bere esaera eder eta guzti.

Badakigu baserritarrak gure etxekoandreak estu samar artzen dituztela merkatura joaten diranean. Barkatzen diegu ori ere.

Nere lantxo au irakurtzen duan baserritarrari, bada, auxe eskatuko nioke: kaletar etxekoandreen erruki pixkabat izateko beintzat.

Nola asmatu?

NOIZ nai ere etzan erraza izango, baiña orain-txe ere ez da errez ona izaten. Ez Andalucian eta ez emen.

Irakurri deguna, Huelvako probintziko erri koxkor batean gertatu omen da. Biotz oneko andre batek, lareun milla pezetako eskupekoa eman eskale bati, kalean ikusi zuan batean. Poliziak jakiñ, eta bada-epzpada ere diru ori epaillearen esku jartzea beartu omen zuan eskalea. Ez al zala lapurtutako dirua izango alegia. Ala ere, gauzak garbitu omen dira eta eskale gizagajoa egiñ omen da diruaren jabe. Esan duanez, lenbizi Ama Birjiñari eskerrak eman bear omen dizkio, eta gero opor alditxo bat pasa bere amaren ondoan.

Au ere bada ba. Beiñ ikusiko gizonak diru pixkabat eskuetan, eta orduan ere eziñ agindu diru orrekiñ epaillearen baimenik gabe. Ezer ostu ez, iñori kalterik egiñ ez, baiña noizbait bereganatutako ondasunekiñ eziñ nai duanik egiñ.

Beiñ izango itxurazko opor-aldi bat artzeko aukera, eta ortarako askatasunik ez. Epaillearen baimena bear bere diruarekiñ eta bere buruarekiñ agintzeko. Diru pixkabatekiñ ikusi dutela eta kon-tuak eskatu.

Bien bitartean, eta "Cáritas"-ek dionez, España-ko aberastasunen eunetik berrogeikoa, españolen eunetik amarrekoaren esku omen dago.

Orrelako gertakizunak ez dira Andalucian bakarrik ikusten. Emen ere gertatzen dira, bai orrelakok eta bai orrelakoak ez izan arren zer pentsatua ematen dutenak. Alkarren antz aundirik ez badute ere, joan dan illaren ogei ta iruan ospatu zan Bertsolari Txapelketan Anoetako Belodromoan ikusia datorkit gogora.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lendakaria bertsolarietarako ematera tranpalera igo zanean, txistu jo ziotenak izan ziran. Bertsolariak euskeraren laguntzaillerik onenak dirala, bertsolariak bear ditugula, erriak oso gogozkoak ditula bertsolari txapelketak, oiek orrela ez balira ez lirakela zortzi milla euskaldun batera bilduko eta gaiñera gaiñerakoak, eta erriaren pozgarri dan ikuskizun bat osatu zutenei laguntzera joan zanari txistu jo alajaiña.

“Petronor” enpresaren ordezkaria igo zan urrena tranpalera, bertsolarietarako ematera edo Bartzordeari “Petronor”-ek izendatutako laguntza ematera edo orrela. Edozer zala ere, zerbait ematera beintzat. Oni ere leen esan degun lendakariari jo zitzaion musika mota berdiña jo zitzaion. Ematera joan ziran bezela eskatzera edo kentzera joan balira, zer izango ote zan?

Zelebrea gera. Ez Foru Aldundiak eta ez “Petronor”-ek ez dituzte gauz guztiak ondo egingo, baiña Anoetan egiñ zutena beintzat etzan gaizki egongo eta ez dirudi txistu jotzeko unerik onena izango zanik.

Europar sartu geran ontara, gauz bakoitza bere garaian egiten ikasiko al degu noizbait. Bestela, erakutsiko digute Afrika nun asten dan.

Aspaldiko esaera bat

BESTE tokietan ez dakit, baiña Goierri alde ontan sarritan entzuten dana da: "Au da inkixixioa". Arazo korapillotsuren bat sortzen zaigunean esan oi degu.

Esaera au nundik datorren asmatzen ain zailla ez da izango. Orain 700 bat urte inguru sortutako Eliz-Epaitegi edo *Tribunal Eclesiástico* bat bazan *Inquisición* deitzen zitzaiona, fedearen aurka zebiltzanak epaitu eta zigortzen zituana. Epaille aien mandatariak jendea estu artzen nunbait, eta ortik sortutakoa izango da.

Epaitegi ura zala eta etzala, sutan erreta ildako judutarrak eta erejeak izan ziran eta ortik sortutakoa izango da. Urte mordoan espetxean egonak ere bai, naiz eliz-gizon, jakintsu eta orrelakoak izan. Epailleak bezela ez pentsatzea naikoa. Alde ederra Jesukristok emandako erakutsietatik Inkisizioaren jokalegera.

Garai aietako Eliza ere, gaurkoa bezelaxe, gizonak osatzen zuten. Uts egitea gizonari dagokiona izan, eta egiten zituzten uts-egiteak.

Bai galantak, esango dute batek baiño geiagok. Ala izango da, baiña gizonak zirala ez degu aztu bear.

Arrezkero gauzak asko aldatu dira, ordea. Gaur etzaio pentsatzeko askatasunik iñori ukatzen, erlijioko gauzetan beintzat, beste gai batzuetan naiko lanak badira ere. Gaur ezdiogu judu-erriari erri Jainko iltzaillea deitzen. Gure erlijioa ez dutenak ez dirala salbatuko eta onelakorik ez da entzuten. Judutarrak eta erejeak ez dauzkagu gure etsaitzat.

Uts egitea gizonari dagokion bezela, jakintsuei dagokie uts-egiteak zuzentzea. Oraindik egun asko ez dirala Aita Santu Juan Paulo bigarrena Erromako Sinagogan izana da. Eliza Katolikoaren buru dana, judutarren elizan. Gaizki egiñak aitortu, damutasuna agertu eta barkazioa eskatu ondoren uts-egiteak zuzentzeko bideak iriki-naia azaldu du.

Ez dira danak leenengo amatsean egiñ noski. Aita Santuak berak esan duan bezela, egin dituan ibillaldi danetan luzeena au izan omen da. Batikanotik Sinagogara kilometro bat bide egon ez; eta bi milla urte bear izan dirala bide labur ori ibiltzeko, katolikoak judutarrak besarkatzeko. Pakeak egiteak sortzen duan pozak esan erazitako itz alaiak dirudite.

Sarritan dabilzkigu aotan Eliza eta eliz-gizonak, eta ez beti ondo itzegiteko, baiña oker emandako pausoak zuzendu-asmoak dituztela begien aurrean dago eta au kontuan artu bear degu.

Goi-maillara irixten dan gizonak on asko egiteko aukerak eta kalte aundiak egiteko arrixkoak berekiñ izaten ditu. Joanak joan, uts-egitez leen etsaitzat jotzen ziranak oraiñ anaitzat artzen badira, eta alkarri lagunduaz gizarteko artu-emanak obetzeko modua egiñ nai bada, guk ere besteen akatsak barkatzen ikastea izango degu onena. Anka-sartzeak egindako eliz-gizonak badira. Bai erria jator asko serbitutakoak ere.

Legazpitik Segurara(I)

JAKIÑA danez, Seguratik Legazpirako kamiño-ari zabaldu eta berritu bat eman asmoak dira. Ez dakit lanak noiz asiko diran, baiña Zubiberri deitzen zaion tokitik Zerain arteko zatiari ekiteko aurre-kontua asieran onartua dago, eta bear diran paper-araketa eta gainontzekoak bereala asiko dira.

Egitamu au oso interesgarria dala esago nuke, eta garrantzitsua ere bai. Bide au ez da joan-etorri-rako oso on oietakoa, egia esan, eta ez da oso eza-gun oietakoa ere. Estu eta biurri samarra da eta poliki ibilli bearrekoa.

Seguratik Legazpira etorri bearrean Legazpitik Segurara joaten bagera ezagutuko degu bide au ondoena. Legazpitik Oñati aldera goazela, erria utzi ta bereala gera Motxorroko bide-gurutzean. Emen Zerain'a dijoan bidea artu, ezkerrera.

Kamiño estu samarra da, baiña oso zoru ona du, eta laister iritxiko gera Aztiri deritzaion ballara txiki batera. Geldialditxo bat egin dezagun, merezi du ta. Toki ederra benetan eta saill ikusgarriak agiri diranak. Aizkorri, Txindoki eta beste zenbait mendi ederki ikusten dira bertatik. Makiñatxobat erri txiki eta baserri txuri ere bai. Agiri diran zelai, otari, sasi, zuaitz, baso, piñudi eta mendi guztiak berde-berdeak ikusten dira, baiña bakoitza bere berde bereziz jantzita. Danak gure begirada baten eske daudela ezan diteke. Aztiri ingu-

ruan eta bertan ere bai, pago batzuek bizi dira oraindik. Benetan politak udaberrian ostoberritzen diranean. Bai atsegiña ere udaran eskeintzen diguten itzala.

Aztiritik Zerain'a bitarteko kamiñoa zuaitz tartean dijoa dana. Piñu, lizar, pago, aritz, saats, makal, keriza, intxusa, sagar eta nik ez dakit zenbat zuaitz mota arkitu litezken. Udaberriko egun argi eta eguzkitsu batean, zuaitz oietako asko lora bete-betean ikustea atsegingarri da benetan. Ainbeste zuaitz dan tokian txori-kanta pranko ere entzuten da. Geldialditxo bat egiñez zuaitz-utsune baten ertzean exerita aurrekaldean agiri dan paraje ederrari begira, xoxo eta birigarroen kantuak entzunez, zer aukera ederra gure barruko pentsamentuak ausnartzeko! Bideari jarraituz, bereala ikusiko degu tontor batean Zerain erritxiki polita, bere kanpantorre punta-txorrotxarekiñ. Bertara igo, eta ango enparantza txukunaren ingurutik ere ikusten da bazter-alde ederrik.

Itxasoa baiño 337 metro gorago dago Zerain. Iñaki Linazasorok bere liburuetakoa batean dionez, erriko eliza XVIIIgarren gizaldiaren erdi-aldera berritua izan zen. Arte aldetik bere merituak badi-tu, eta bertan dauden zenbait irudi edo imajiñak ere bai. Illobi bat ere badago 1457garren urtean egiña. Jauregi izeneko oiñ-etxe aunditik gertu, Laborde jaunaren erakus-toki edo museo bat dago. Erakustoki orren ate-aurretik begiratuta ikusten dana itzez esaten ez da errez. Bordari zanak ala esan zuan aruntz joan zan batean: "Ondarrabi toki polita da, baña bai auxe ere". Ez al da naikoa esatea?

Gelditu gaitzen gaur emen. Urrengoan Zeraindik Segurara joango gera.

Legazpitik Segurara (II)

LABORDE jaunak bazekian bere erakustoki edo museoa Zerain'en zein tokitan moldatu. Asko dira bere ingurutik ikusten diran alderdiei begira lilluratu diranak. Pintura ederrak eta kuadro bikaiñak egongo dira erakustokietan, baiña egun argi batean emendik ikusten dan bezelakorik, naiko lan.

Segurara dijoan bidea artu; eta goazen beeraka. Euskalerriko makiñatxobat erritan bezelaxe, Zerain'en ere badago Ostatu deitzen zaion erriko etxea. Eztarria busti edo zerbait artu nai badegu ez degu bertara sartu besterik. Irtetzean ez ordea besterik gabe bideari eldu.

Aurrekaldean Segura ikusiko degu, bere oiñetan madura duala. Aruntzago, Txindoki. Ezkerreko aldera zenbait erri txiki, zelai eta mendi-egal baserri txuriz ornituak. Eskubi aldera Santa Bárbara mendia, tontorrean pago-mordoxka batekin, kukur bat balitz bezela, erdian ermita duala. Inguruko mendiak basoz estaliak, eta udaberria baldin bada lore txuria ugari, denbora gutxi barru kerizak nun izango diran adieraziz.

Begiei ase bat eman ondoren Segurara goazela, soro eta zelaitxo polita pranko ikusteko aukera izango degu, inguruko basoak bezelaxe berde eta lorez beteak. Izadiaren maitale baldin bazera, murgildu zaitez Segurako madurako soro eta zelai tarte-

an. Etzaizu damutuko. Kirkill kanta alairik entzungo dezu, eta iñun ez bezela nabaituko dezu izadiaren udaberriko usai berezia. Uxatu dituzun txoriak belar artean zeukaten kabia utzita iges egiten ikusiko dituzu. Garai batean galeperren “par-pala” otsa ere sarritan entzun oi zan beñ udara iritxi ezkeru.

Eta goazen oraiñ, Iñaki Linazasororen eskutik, Gipuzkoako amar erri nagusienetako bat izan zan Segura’ra. Jauregi ederrak ikusiko ditugu, adibidez, Zurbano, Alustiza, Yarza, Jauregi, Arrue, Gebara eta orrelakoenak. Lardizabalena azkenerako utzi det. Jaun onen ondorengoak Segurako erriari eman omen zioten jauregi au. Oraiñ Udaletxea da, eta ez nolanaikoa.

Eliza ere bikaiña dauka Segurak. Gipuzkoakoen artean aundienetako bat izan bear du, eta, arte aldetik, eliza bera, aldare nagusi inguruak, bertan gordetzen diran imajiñak eta beste gauz asko, meritu askokoak. Erdian zinzilik dagon argidi edo *araña* esaten dioguna Parisen egiña omen da, eta Lyon’go katedralerako asmoan egiña ain zuzen.

Moja-komentu bat ere badago Seguran, 1519garren urtean eraiki omen zan, eta maikiñatxobat kanpai joko zuten ordutik oraiñartean. Andik gertu bizi giñanak ez genduan garai batean erloju bearrik izaten. Komentuko mojen kanpaiak esaten baizigun zer ordu zan, sarri-sarri, goizeko lauretatik asita. Oraiñ ez omen da leen aiña kanpai ots entzuten...

Seguratik Legazpirako bidea zabaldu eta obeagotuko dan eguna iritxiko al da ba. Ni ziur nago Goierriko bazter paregabe au ezagutu eta maitatuko duten gipuzkoar asko izango dirala.

Liburu berri bat

LIBURU berri bat erne da Legazpin. Liburu onen izenburua: *Jatorriaren Errotik*. Egilea: Martín Ugarte Azurmendi, "Saletxe".

Idazle au, Legazpiko Saletxe baserrian jaio zan 1916garren urtean eta bertan bizi da. Beste euskaldun askori bezelaxe, jaiotetxetik datorkio izenordea.

Ez da idazle ezezaguna Saletxe. Guk dakigunez, beste liburu bat ere, *On Egiñaren Obaria*, badu idatzia. "Itxaropena" argitaletxeak atera zuan oraiñ urte batzuek.

Lan geiago ere argitara eman ditu "Saletxek", batez ere Olerki aldizkarian, eta gutxienez, sei beintzat sarituak izan dira. Baditeke sei baiño geiago izatea.

Gizon langillea degu Martín. Gaztetan artzaia izan zan, eta gero industri-langille, baiña azi zan baserriari eta bertako lanari utzi gabe. Irurogei eta bost urte betetzean jubilatu zan eta bere Saletxen jarraitzen du zintzo. Idazlanetan bere burua beste maisurik ez omen du izan. Bere burua eta bere biotza, esango nuke nik.

Apirillaren 23'an egin zan liburuaren aurkezpena, eta gertakari pozgarri eta garrantzitsua izan zan Legazpirako. Don Manuel Lekuona agurtzeko zori ona izan genduan. Gertakariari merezi zuan aundi-

tasuna eman zioten diputadu eta beste jaun batzuek ere baziran.

Joan Mari Lekuonak egin zuan liburuaren aurkezpena. Etzan izan nolanaikoa, aurkezlearen maitasuna nolanaikoa ez dan bezela.

Esan zigunez, iru ataletan zatitua dago liburua: "Aizkorri" artzai-poema, "Tankalaren leloan" errota-ren poema, eta Saletxek berak bildutako atsotiz sail bat. Argi ta garbi eman zizkigun Lekuonak liburuaren xeetasunak. Etzan azalean ibilli. Itzaldi sakona berea. Bikain murgildu zan bere lanean, eta eman zigun erakutsi ederrik. Ez da edozeiñ egiten itzaldi bat goitik beeraiño alako erreztasunarekiñ eramateko. Euskera ederrean gaiñera. An etzan garbizalekeri kaltegarririk eta alperrikako berri-zalekeririk.

Itzaldi luzea omen zan, baiña ni ez nintzan konturatu, eta ez nintzan konturatuko ere, berak esan ez balit. Ordubete iraun omen zuan, baiña ni bezelaxe pozik eta irripartsu ikusten ziran aretoa betean entzuten egon ziranak.

Ao-gozo ederra utzi zuan Joan Mari Lekuonak.

Betoz *Jatorriaren Errotik* bezelako liburuak.

Betoz bizitzaren erakutsi edo esperientziak onela kantatu erazten dien artzai baserritarrak.

Betoz onelako itzaldiak. Mesede ederra izango du euskerak.

Egun okerrak

“**O**BE genduan oetik jaiki ez bagiña”. Beñ baiña geiagotan esan izan degu auxe.

Pentsamentu au buruan degula ez dago oso urrutira joaterik, baiña batzuetan beintzat arrazoirik asko izaten degu onela mintzatzeko.

Atzo, igandea, eguraldi zoragarriarekiñ etorri zitzaigun eguna. Beste aitzakirik gabe etxetik irten erazten duan giro oietakoa zan.

Legazpitik Zerain bitarteko bide ostotsua igaro ondoren, eta erri ingurutik ikusten diran alderdie-tara begira egonaldi bat egiñik, Ostatu aurrean geunden birigarroen kantu-otsak entzunez, pake ederrean. Ordurako, zeraindar lagunekiñ itzaspertu bat egiñak giñan kontu zaarrak esanez.

Etixeratzeko asi giñanean legazpiar lagun batekiñ topo egiñ genduan. Irutasun edo Trinidadeko jala izanik, Aitzkorriko San Adrián inguruan erromeria ospatzen atzo eta andik zetorren, esan zigunez.

Berak eman zigun berria. Amabost urteko mutil gazte bat, idiazabaldarra, arkaitzen batera igo nairik zebilela erori eta ilda gelditu zala.

Idiazabalgo erri-zai edo aguazilla an omen zan urteero bezela erromesakiñ joanda. Bi aldiz edo galerazi omen zion gazteari toki arrixkotsu artara igotzea, baiña aguazillaren dexkuidoaldiren bat

zaindu, eta ogeita amar metro ingurutik beera erori omen zan gizarajoa; eta, jakiña, ill. Au da guri esan zigutena. Ala bear nunbait. Aren etxean etzuan atzo bazkariak on aundirik egingo.

Beste bi idiazabaldar ere gertatu omen ziran zaurituak, mendian zebiltzan beorak amildutako arriak jota. Au ere bada ba suertea. Ez omen dituzte zauri larriak eta gaitzerdi.

Gaur goizaldera irratiz entzun detanez, Bizkaiko Ermuan tren bat bere bidetik irten eta bere makina kamiñora erori omen zan atzo eguerdiko amabiak inguruan.

Izlariak zionez, istripu ori trenaren bidean bi enbor zeudelako sortu ote zan susmoak omen dira. Ala baldin balitz, balitzake zerbait pentsatu erazteko aiña, enborrak ez baitira perritxikuak bezela berenkasa irtetzen.

Iru lagun gertatu omen ziran zaurituak. Naikoa da, baiña pertsonetan ez omen da beste kalterik izan. Obe.

Ogeita amarren bat bidaiari omen zijoazen trenean, geienak zaar-saritu edo jubilatua. Pasako zituzten estuasun ederrak.

Zazpi kotxe eta furgoneta bat ondatu omen ditu tren orrek, azpian arrapatuta. Bada kalterik asko, baiña kotxe berriak egingo dira. Zaurituak ere osatuko dira. Ildakoak dira erremediorik ez daukatenak, Idiazabalgo mutil gazteak ez daukan bezela.

Egun biurria benetan atzokoa. Ez al genduke obe zenbait orrelakotan oetik jaikiko ez bagiña?

Treanean

JAPONEN orduko 500 kilometro korritzen dituan tren berri bat asmatu omen dute. Aldebatera ez dirudi onek ezer askorik, onela esanda bakarrik, baiña bada pixkabat pentsatu erazteko aiña.

Japondarren trenak pamatu askoak ziran leen ere. Orduko 240 kilometro korritzen omen dituzte oraiñ dauzkatena, baiña asmatu duten berri onek laister atzean utziko ditula esaten dute.

Prueba batzuek egiñak dituzte dagoeneko. Bada-ez-bada ere, utsik probatu omen dute tren ori leenbizi, bidaiaririk gabe alegia, eta 517 kilometro korritu omen ditu ordu betean. Esate baterako Legazpitik batera irten, eta gu Donostira iritxi orduko japondarrak Madriden balira bezela. Gu lo gauden bitartean besteak lan danak eginda.

Japonen izan dan batek esan didanez, Ikastegi Nagusi edo Unibersidadeetako ikaslerik onenak, ikasketak bukatzen dituztenerako lana zai edukitzen omen dute.

Azken urte auetan tren berri ori martxan jartze-ko ogeitabost bat milla milloi pezeta gastatu omen dituzte japondarrak ikerketan edo inbestigazioan.

Guk ere bear genduan Ikastegi Nagusia, eta lortu genduan noizbait, baiña zer gertatuko eta

Ikastegi Nagusi ori gobernatu eziñ. Erretorea ere bear zuan, eta izendatu zan. Danen gustokoa ez izan, ordea, eta erretore ori kargutik bota arteko onik ez degu izan. Ez degu esan, bada-ezbada ere: "Lagundu dezaiogun leial, bere eginkizuna betetzen. Eman dezaiogun denborari leku, eta ikusiko da".

Ikastegi Nagusi egoki bat gabe edo Unibersidade azkar eta eragille bat gabe, nai dezuten bezela, beste erri batzuen mailla arrapatuko degulakoan bagabiltz ez gaude leku txarrean. Besteak naiezta utzitako aurrerapenak izango dira guretzat berriz ere, eta aiekiñ baliatu bear, baiña ondo pagatuta.

Gure erri au naiko eroria dago oraiñaldian. Lana eta dirua nunai arkitzen ziran garai aiek joan ziran, eta berriz ekartzen ez baditugu ez degu Euskalerrria jasoko. Ikamika kaltegarriak utzita gure kemen guztiak ortara zuzenduta ere naiko lan izango degula ez genduke aztu bear. Eta gure erria geuk jasozten ez badegu beste iñork ez duala jasoko ere ez, batez ere auteskundeetan.

Bakoitzak bere etxean agindu nai izatea bidezkoa da. Aginduko digutenak geuk aukeratu nai izatea ere bai, bai, baiña erriak eskubide guziz aukeratuak agintariak zirikatzen eta nundik botako asten gera urrengo egunetik. Onelaxe alperrik galtzen ditugu sarritan gure indarrak eta gure diruak.

Japondarrak ogeita bost milla milloi gastatu dituztela tren berri bat egiteko ikerketan bakarrik?

Zenbat milloi gastatuko ote ditugu guk bata-beste larrutzen?

Ez daukagu ikusirik Urolako trena orduko 500 kilometro korritzen.

Itz alperrak

MAKIÑABAT itz egiten da alperrik mundu ontan. Oraindik oraiñ, munduko nazioak Afrika dagon egoera larri ortatik atera bearra dagola, eta billera berezi bat egin dute ONU deritzaion erakundean. Telebisioa dala edo izparringiak dirala, berri tristea pranko ikusi, entzun eta irakurri degu, Afrikan ez il da ez bizi arkitzen diran gizakiei buruz.

Eta, zer esan umeei buruz? Zenbat aldiz ikusi ote ditugu aur errukarriak ezurra ta azala besterik ez dutela, eta bear ainbat eta bear bezelako janaririk ezak sabelak azita? Oiek bai esaten digutela argi ta garbi zer egin bear dan eta zer egiten dan!

Afrikako lur legor eta errietan zer gertatzen dan ez dakianik ez da egongo. Ango gose, izurri eta mixeriareen berri ez dakian gobernurik ez da egongo Europa eta Amerikako nazio aurreratuetan. Rusian ere jakingo da ainbeste.

Zer egin da ordea suprikizun oiek arintzeko? Zer ainbeste eta ainbeste aur eta pertsona larri gosearen eta gaitzen atzaparretatik askatzeko? Zer larru gorrian dagon jende aren gorputzak estaltzeko? Eta, besterik ez bada, bizirik irauteko lain janari nola lortu erakusteko? Kontzientziei deitu, munduaren kontzientzia esnatu, alkartasuna... Itzak. Itz alperrak...

Len esan detan bezela, ONU edo dalako ortan Batzar Nagusi bat egiñ omen da afrikatarrak goseak ilko ez badira zer eskatzen duten eta zer eskeintzen duten aztertzeko. Bost egun igaro omen dira ortan.

Zerbait egiteko garaia iritxi zala esan zitekean, baiña nunaiko komunikabideetan ere oso garrantzi gutxi eman zaio berri oni, irakurri aal izan degunez.

Nekazaritza bear bezela antolatu eta indartzeko bear duten diruaren irutatik bat edo eskatu omen diete Afrikak munduko nazio aberatsei. Ango zuzendariak oraiñ oartu omen dira nekazariak nola bazterturik eduki dituzten. Nekazariak eta nekazaritza, noski.

Naiko berandu bada ere, ez omen dago oraindik okerrak zuzendu eziñik, baiña dirua bear eta ez gutxi gaiñera. Zaildu eta penatuta bederik diru pilla aundi bat aterako duan eskeintza egiñ omen du Afrikak, baiña gaiñontzeko 45.000 milloi dolar inguru kanpotik inguratu bear. Kanpoko nazioetan kontsejuak emateko bai, baiña dirua emateko borandaterik ez. Kanada, Dinamarka eta Olanda izan dira Afrikaren eskariari erantzuteko prest azaldu diranak. Beste nazio aberatsak, au ere begi onez ikusten ez.

Afrikak ez dauka ezer itz ederrakiñ. Etxetik ikusten degu au egunero, erakusten dizkiguten argazki, irudi edo imajiñak egizkoak badira beintzat.

Ainbesteraíño auldu dira afrikatar errukarriak, iñor ez da aien eraso-bildur, eta kostako zaiete laguntza irixtea. Ez baitago an banatutako diruari berealako etekiña aterako zaion itxaropenik.

Aizea

GAURKO munduan bearrekorik ezer baldin bada, argi-indar edo eletrizidadea da. Deskuido santuan indar ori gabe geldituko bagiña, laister giñake mixeri gorrian eta bizi ezinda. Laister porrot egingo luke gure mundu onek.

Geroz ta argi-indar geiago bear da gaiñera. Aurre-rapen asko eta era guztietakoak dira indar oni esker sortuak. Baita iraungo badute bere bear diranak ere.

Argi-indarra ugaritu premia ez da gure auzo-errietan bakarrik somatzen. Baita emen ere.

Zenbat naziotan, arrolio-putzuak, urtegiak eta abar dituztelako poliki moldatzen dira. Guk ez eduki orrelakorik, ordea, eta Euskadin indargaiaren ardura duan Erakundeak aizearen indarrarekiñ argi-indarra sortzeko bear diran ikerketak egiteko asmoa artu du.

Erakunde onek bai omen dauzka amar toki dato edo zeaztasunak biltzeko, baiña geiago bear, eta beste ogeita bost eraiki nai ditu. Ortarako leku ego-kiak bear, eta aizeak ondoena nun jotzen duan billa asiak dira gure teknikoak. Erdi-erditik asmatuko al dute beren lanean.

Badago ba oraintxe aizerik asko gure inguruan. Nolakoa esan bear. Gure erribide, kale, enparantz, edaritegi eta gaiñontzekotan dabillen aizearekiñ

argi-indarra sortzea balego, ez litzake famili askotan dagon bezelako illuntasunik egongo. Baiña, zeiniek eskuak erantsi indar orri? Nork indar ori arrastotan sartu? Eskuak eransterik ez dagon indarrak kalte galantak egiñ izan ditu geienetan. Beti esanda ere oker aundirik ez.

Zoriontasuna

Zoriontsu izan nai badezu, egin ezazu alegin zeranik ere inor oartu ez dedin. Gizartean, errian, lantegian, zertxobait izatera irixten bazera, ez dezu izkutuan bizitzerik izango. Laguna edo lagun izeneko pranko inguratuko zaizu. Etzaizu eskalerik paltako. Izango dezu zeini eta zertan mesede egiña.

Bat zure aita zanaren lagunaren semea izango da. Bestea, zure ama zanaren iztarlengusua. Zure emaztearen gazte denborako neska-lagunen baten semeak edo alabak ere baditeke zerbait nai izatea.

Zeure burua estuasunen batean ipiñita bederik eskale oietakoren baten kutizia betetzen badezu, poztu zaitetz, baiña ez arrotu. "Zerbait egin bear zuan orrek ere" esango du batek. "Ez degu suerte txarra izan" esango dutenak ere izango dira, eta iritxi dutena berekasa etorri zaietela pentsatuko dutenak ere bai.

Oiek danak barkatu ditezke, baiña izaten dira ezerekiñ asetzen ez diran pertsonak, eta auek, ez eskertzeaz gaiñera, zure parean pasatzean beste aldera begiratuko dute.

Badira esker onekoak ere. Badira, zorionez, eskerrikasko esaten dakitenak.

Badira "Portatu zera, eta nik egiteko modukorik ezer bear badezu, etorri lasai" esango dizutenak. On egiñ dezagun nori egiten diogun begiratu gabe.

Etxekoandreen sindikatoa

LENGO gau batean irratia entzuten nengola jakiñ nuan. Etxekoandreak ere bai omen dute Alkartasuna edo Sindikatoa. Bartzelonan omen dauka etxe nagusia, eta oraindik erakundeen alde-tik laguntasun aundirik ez badu ere, poliki ari omen da indartzen. Toki askotan ezagutzen omen da eta Euskadin ere erroak bota omen ditu.

Danok dakigunez, langilleen eskubideak, lan-ordaiñak eta abar babesteko izaten dira Alkartasunak, batik-bat. Askotan besteren kontura edo diru-truke lan egiten duanari bakarrik deitzen diogu langillea, baiña onek ez luke onela bear. Nik uste det lana egiten duten danak dirala langille, eta iñork lana egiten badu, etxekoandreak egiten dute. Beltz gaiñera.

Eguneroko ogia irabaztera lantegietara joaten diran langilleak, lan mota bat bakarra egiñ oi dute. Arotzak arotzian, tornulariak tornuan eta orrela, bakoitza bere bereiztasunean.

Etxekoandreekiñ ez da orrela gertatzen. Berezitasun asko bear dira etxekoandre izateko. Auetako bat sukaldaritza da. Etxeko bakoitzak zer zaletasun duan jakiñ bearko du, zaletasun oien arabera otorduak gertatzeko; bestela izango du aitzakia pranko. Senarraren soldatari illaren azkeneraiño iraun erazteak

sortzen dituan arazoak nola erabaki ere bere gain izango du, eta ortarako, Aritmetika ez ezik Aljebra ere jakin bearco du. Erropa-garbitzen ere trebea bear du izan, senarraren baldarkeriak eta umeen ondamen-diak nolabait estaliko badira. Erropak eta ontziak garbitzeko tresnak nola manejatu eta zaindu ere jakin bearra dauka. Plantxatzeak ere baditu bere lanak. Eta etxea eta altzariak garbi eduki bearrak? Zurezko eta telazko gauzak sitsak joko ez baditu, kimika ere jakin bear du etxekoandreak. Etxekoentzat gosariak gertatu bear eta bera jaikiko da goizean lenbizi.

Otorduetan maian zerbait izango bada, denda, arategi, arrandegi eta oietara ere joan bearco du, baiña lenbizi apaindu egin bear ordea. Ezagunen batekin topo egin ezker zerbait esan bear beintzat, laburki bederik; eta bizilagunak ere zai egongo dira itzaspertutxo bat egiteko, eta aiekikoa ere egin bear. Orra lana alde guztietatik.

Oiek danak orrela izanik, aurrak gauean lo egi-ten uzten badio, gaitzerdi, eta azkeneko izango bada ere, senarra ere an egongo da laztantxo bat edo besteren zai. Ark ere zerbait bearco du ba.

Etxekoandreak beste edozein aiña langille dirala argi ta garbi dago. Orregatik bear dute babestuko dituan eta bere sari eta guzti zaartzaro oparo bat lortuko dieten Alkartasuna: Etxekoandreen Sindi-katoa. Emakumezkoak, gizonezkoak baiño bizi luzeagoa omen dute gainera. Ez ditzagun ba alar-gun eta babesik gabe utzi.

“Ori guk baiño biotz gogorragoa dutelako dek, motell” esaten zidan lagun batek. Baditeke ori ere, baiña biotz bigun eta xamur askoa duten etxekoandreak badira ba. Zer atarramentu aterako ote genduke guk oien laguntzik gabe?

Mendi-bideak

AZKENALDI ontan sarri samar entzuten degu Urbia, Aralar, Aloña eta orrelako beste zenbait mendietara mendi-bide edo pistak egin bear lirakela.

Batzuen iritzia au da, baiña beste batzuek ez dute orrelakorik entzun ere nai.

Diotenez, mendi-bideak ugarituko balirake, oraiñ benetako mendizaleak bakarrik irixten diran tontor, mendigaiñ eta zabalgunekak noiznai jendez beteko lirake, eta oraiñ batzuentzat bederik atsegiñ-toki diran lekuetan ez litzake iñorentzat gozotasunik izango.

Ez da dana gezurra. Jende asko dabillen tokietan gertatzen dana gauza ikusia da. Otsa eta zarata izango da, eta mendien aberastasun diran ardi, beor, basa-bei eta gaiñontzekoak ez dute larrean lasai egiterik izango. Zaborra eta ondakiña ugari geldituko da, eta mendietako errekatxo eta iturri gardenak ez dira leen bezela ixpillu garbi izango.

Esateak pena ematen du, baiña gizakia irixten dan tokietan izadia galduan gertatzen da. Iltzen diran abereen gorputzak jateko ere beste abere batzuek daude azkenik, izadia garbi eta txukun gorde dediñ; baiña gizonak ez ditu askotan Izadiaren arauak errespetatzen.

Auek eta orrelako beste arrazoi asko ematen dituzte mendietara biderik egitea nai ez dutenak, eta egia diote.

Mendiak ez dira ordea batzuenak eta batzuentzat bakarrik. Asko dira zoritxarrez bide egokirik ezean mendira joan ezin diranak, urteetan aurrera dijoazelako, osasunik ez dutelako eta abar, baiña orrelakok ere mendiak dituan atsegiñak gozatzeko beste edozeiñek aiña eskubide dute. Aur txikiak dauzkaten senar-emazteei ere, lantegian edo etxean aste guzia igaro ondoren mendira joanda pago itzal eder batean eguna botatzea ez dago galerazterik. Ezta sasoiko ziranean ariñ igota ikusten zituzten mendiak, zaartuta gero berriz ikusi nai dituztenei ere.

Baiña bideak egiñ ezkerro mendietara edozeiñ joango dala, baztarrak ondatzea besterik ez dala egingo, eta aal dutenak joan eta eziñ dutenak egon ditezela etxean eta kito. Izadia zaindu bearra dago, baiña ez ote da au jokabide errezegia eta meritu gutxikoa? Ori baiño obe izango litzake txikitandik asita aurrei izadia maitatzen eta zaintzen erakustea. Orra familietan eta ikastoletan arreta guztiz egin bear litzaken lan eder bat.

Kotxean mendira joango lirakenak ez dira noski aurrak. Ez dira ikastolan Izadia maitatzen ikasiak. Zer egiñ oiekiñ? Iragarkien bidez eta, zer egin bear duten esan, eta esana egiñ nai ez badute, beartu. Ondakiñak plastiko-zorroetan sartu eta kamio baztarretan jartzen diran ontzietara botatzea ez da ain zailla. Izadia zaintzen erakusteak, mendi-bideak egin nai diralako protesta egiteak baiño meritu geiago duala esango genduke.

Txirrindulari udatiarrak

DENBORAK dira ia txirrindularitzarako zaletasuna sortu zala, baiña azken urte auetan ugaldtu da asko zaletasun au.

Beste edozein kirolari ainbat garrantzi ematen zaio gaur, eta pertsona eldu samarrentzat ere naiko egozia izanik txirrindularitza mota onek geroz ta arrera ohea duala esan diteke.

Gaiñera, garai bateko aldean tresna onak egiten dira orain, eta onek asko erreztu du kirol au. Eros-teko ere leenago baiño erreztasun geiago nunbait eta tresna dotorez osatuta ikusten ditugu oraingo txirrindulari udatiar edo zikloturistak.

Osasunerako oso ona omen da txirrindularitza. Izarditu batzuek artuaz, gorputzeko koipe alperrak urritzeko aproposa. Garai batean, mutiko denbora joanda gero galtza motxakin txirrindulari zebiltzainai parra egiten zitzaieten. Gaur burusoilla pranko ikusten da aldapan gora izarditan, baiña ez da iñor arritzen. Edaritegi batetik irten eta bestean sartu dabiltzanak pena geiago ematen dute.

Kirol guztiak dituzte zerbaiten arrixkoak eta onek ere baditu. Pillatuta ibiltzea beintzat oso arrixkotsua dala esango nuke txirrindularientzat.

Bideak danontzat dira. Ez kotxeentzat bakarrik. Egia. Txirrindulariak beste edozeiñek aiña eskubide

dute kamiñoan ibiltzeko. Bai jauna. Baiña biurgunetan, eta batezere biurguneen ondoren mordoskan dijoazenak, beren buruak arrixko bizian jartzen dituzte. Kotxean dijoanak ez du ikusten askotan biurgunearen ondoren zer dagon, eta nai ta nai ez txirrindulariak baiño azkarrago nola joan bear duan, orra auetakoren bat jotzeko arrixkoa, eta naiz ta bere eskubideak eduki, artzen duanak eutsi egin bear. Ezbearren bat gertatutako berriak sarri izaten dira, eta ez dute batere pozik ematen.

Ona emen txirrindulari asko-ikusi batek zer dion:

“Kamiñora ez da irten bear zertara dijoan ondo jakin gabe. Arri kaskarrak dauden tokian ibilli edo zoru bustia dagonean ibilli ez da berdin. Zer esanik ez olia erorita dagon uneetan. Zer jan ere jakin bear da, eta kamiñoan nola ibilli ere bai. Oso garrantzi aundia du onek. Joan-etorri asko dagonean arrixko geiago egoten baita”.

“Lau milla eta geiago dira udatiar txirrindularitzarako baimena dutenak, baiña danak ez dakite ortarako baldintzen berri. Askotan obe da bakarrik ibilli, oitura gutxi duten lagunakin baiño. Onelakoak, beren buruak ez ezik besteak ere arrixkoan jartzen baidituzte askotan, eta milagroez ez da ezbear geiago gertatzen. Pillatuta ibiltzeko oitura dago, eta ori arrixkotsua da oso. Askoz obe da batabestearen atzetik illaran joatea, eta al dala, kamiño baztarreko zirrindatik. Eun bat kilometro ibiltzea oso ona da asteari gogoz eltzeko, baiña norbere indarrak ezagutzea eta neurtzen jakitea oso bearrezkoa da”.

Dakitenen esanai jaramon egitea ere ez da txarra izango.

Eiztariak kezketan

LENGO batean ez didate ba esan aurten ez dala izango uso-eizean egiterik? Ia negar egin nuan. Ez nigatik, baiña lagun eiztari asko dauzkat eta auek ematen didate pena. Noizean bein gezur txiki bat edo beste erortzen zaiote, baiña ori ez da ezer. Gizon jatorrak dira oso.

Eiztariak arto-bero usai pixkabat eurekin izaten dute. Fama ala dute beintzat. Sua dagon tokitik irtetzen dala kea esan oi da eta zerbait izango da.

Izengoitiz Gezur-Etxe deitzen dioten eiztari-alkarte bat ezagutzen det. Ortik pentsatu alkarte ortan zenbat galeper, eper, uso eta erbi eroriko diran apalondoan puruak kea ateratzen asteen. Tiroarekin anka autsi eta ala ere aurrera joandako basurdeak ere izango dira.

Auxe ere bada. Ainbeste lo galdu, ainbeste neke artu, ainbeste aldagoi ta bisutsi arpegi eman, ainbeste neke eraman, ainbeste diru gastatu, ainbeste aldiz emaztearen sermoiaren aurrean burua makurtu, eta zertarako, eta gezurti fama irabazteko. Orra gure alegin guztien ordaiña.

Orain ez dakit zenbat urte egindako azioak konstatzen dira batezere eiztari artean. Azken urte aue-tan ez da marka aundirik egiten.

Eizean dabiltzanean bakoitza bere aldetik ibillizaleak badira ere, alkarrekin mokadu goxoak egin-

zaleak dira eiztariak. Badakite kaxuelkada dotore askoak gertatzen. Jateko garaiari gezur puntu bat oso osagarri ona izaten da bere neurri batean.

Illabete batzuek dirala, Rusiako zentral nuklear batean ezbear bat izan zan. Gure artean ez da izango Chernobyl izenaren aditzera ez duanik. An gertatua dala ta ez dala berebiziko zurrumurruak banatu dira eiztari artean.

Rusiako berri jakiten apenas oso erreza dan. Chernobyl'go zentrala matxuratuta gertatzean, andik iges egindako atomo-indarrak inguruak kutsatu dituan otsak dira. Udazkenean EuskalERRI gaiñetik pasatzen diran uso asko beintzat Rusiatik etortzen omen dira, eta kutsatuta etorriko ote diran bildurra dago. Orregatik, eiza bost urterako itxiko ote dan zurrumurrua.

Itxura danez, eizarekin sarritan gertatzen dan bezela, kontua geiago dabill egia baiño.

Gipuzkoako Foru Aldundian galdetu omen da, eta an ez omen dute uste egia izango danik.

Españaiko Eiz-Federazioari ere galdetu omen zaio, eta egunkari eta irratien bidez jasotako berriak besterik ez dakitela esan omen dute andik.

Aurten ere eiza beti bezela iririkiko dan itxaropen osoak dira. Beraz, lizentzi edo baimen edo dalako ori atera, trasteak bizkarrean artu eta mendira.

Paga-usoak kutsatuta daudela, eta zer? Aurten ere pasatu egingo baitira. Gelditu ez.

Orra kopradiko baten iritzia.

Omenaldi bat

JOAN dan ostiralean, Uztaillak 18, omenaldi bat ospatu genduan Aztiri'n. Egun artan ziran, izan ere, 50 urte Aita Julian Alustiza prantziskotarrak mezaberria eman zuala. Aztiriko baillara politak bere zaindari Santa Marina ondratzeko daukan elizatxoan gertatu omen zan. Toki berean berritu genduan gertakizun ura.

Nere lerro auek irakurtzen iñor asi baldin bada, bateon batek esan du onezkero: "Orain ere badiagu erlijio edo praille-usaiko zerbait". Ez da nere asmoa orrelakorik eskeintzea, ikusi eta nabaitu nuana esatea baizik. Gaiñera, orrelako gauzak batzuentzat gustoko badira ere, beste batzuek ez dira oien zaleak izaten, eta eskubide osoa dute ortarako. Bakoi-tzak berak pentsatu bear du zein arrosari usai egin.

Onelako ospakizunetan oi dan bezela, sermoia entzun genduan. Aita Julianen bizitza zer eta nolakoa izan dan esplikatu zigun sermolariak, etxeko baserrian jaio zanetik orain arte. Gipuzkoako erri geienak eta Naparroako asko eta asko korritu omen ditu, sermolaritzan saiatzen zalarik. Irixten zan tokietan pakea eta onginaia eskeintzea eta ereitea izan omen zan bere elburu nagusienetako bat, baiña euskerarenganako maitasuna baztartu gabe. Lanaren eta zintzotasunaren bitartez Aita Julian noraino eta zertaraino iritxi dan azaldu zigun ser-

molariak. Etzigun esan ordea guk beste ainbeste egiten ez badegu inpernura joango generala eta orrela-ko txorakeririk.

Eredu bat ipiñi zigun begien aurrean. Bide bat erakutsi zigun. Geuretzat eta besteentzat pakea eta ongi-naia benetan nai baditugu, zein bidetatik jo genezakegun edo nola jokatu bear degun, alegia. Iñor beartu asmoz jaulkitako itzik ez genduan entzun.

Mezako denboran bazan kantu ederrik. Erriak alaxe nai zualako ordea. Gizona, bere borondatez, kantuaeren bitartez barruko sentimentuak ateratzen ari danean da zoriontsu. Kantu mota guztiak ez dira danen gustokoak izango, baiña erri bat berekasa zoriontsu baldinbada, utzi ari pakean. Ark bada-ki zeñ arrosari usai egin.

Meza-ondoan, auresku, opari-eskeintze eta abarren ondoren, Aita Alustizak idazle bezela zenbateraiñoko mailla iritxi duan azaldu zigun Gaztañaga'tar Jesus'ek: idazle bikaiña, ugaria, trebea, Beti batasuna eta pakearen alde eta eske saiatu dana, saill asko jorratua eta bere era-aldaketak izan dituana.

Goitik beera ezarrirako batasunaren ondorioak ere azaldu zituan izlariak. Naiko labur baiña garbi: batasunaren ordez, banaketa, eta pakearen ordez, xextra. Erria ez da artaldea. Artaldeak, artzaiak nai duana egin bear izaten du. Ez bere borondatez, artzaiak etekiñik onena onela ateratzen diolako bai-zik.

Saill ontan ere, zein loreri usai egin nor berak pentsatzea izango da onena. Eta izan bedi pakea.

Aur gutxi ta zaar asko

ORAINDIK urte asko ez dirala, Euskalerriko familietan, eta baserrietan bizi ziranetan batez ere, aitonak eta amonak errespetoz betetako toki berezi bat izaten zuten.

Seme-alaba asko izaten ziran garai aietan, oraiñ baiño esku-zabalagoak giñala esan diteke. Bizikera aldatu dan bezela aldatu da familia ere. Gaur eguneko etxe kaxkarretan eta erosotasunak ainbeste-raiño garrantzia duan familietan ez dago zaarren-zat tokirik.

Errosotasuna maite izateak eta aurrerapenen bidez zaarrai bizia luzatzeak kezkatu rik dauka gaurko gizartea. Jaiotzak urritzen dijoaz, ikusten dan ez. Beraz, geroz ta gazte gutxiago eta geroz ta zaar geiago dago gure artean.

Au ez omen da gertatzen zaar gutxi iltzen diralako, aur gutxi jaiotzen diralako baizik, eta jokabide onek Euskalerrria bezelako biztanle gutxidun errietan egiten omen du kalterik geiena. Lanaren eta irabaziaren beerakadak, familien urritzea berekin izaten omen du, ikusia dagonez. Orra nundik eta nola etorri diteken erri txikientzat denbora gutxian izkutatzeko arrixkoa.

Baiña arazo au ez da Euskalerrrikoa bakarrik. Gure au baiño aundiagoak diran nazioetan ere

bada kezkarik asko, aur gutxi jaiotzen dala-ta. Geroari begiratuta ematen du onek zer pentsatua.

Gainbera dijoan erri batean, gazte geiago sortu ezkeroko gauzak konponduko lirakela dirudi. Baiña, zeiniek esan dezake au onela dala?

Gizonak lana bear du biziko bada, lanik ezean ezin baita premizko zaizkion ondasunen jabe egin. Jan, jantzi, sendagai, etxe-bizitza, eskola eta beste zenbait orrelako ez dago irixterik lanaren bidez ez dala. Gaiñera, gazteak egin bear dute lana, bai eurentzat eta bai zaartu diranentzat. Estaduak ez dauka zaar sarituai eta lan gabe daudenai dirurik ematerik iñori kendu ezean, eta diru orren zati aundi bat langilleen bizkar joaten dala gauza jakiña da.

Baiña, nun dago lana? Aitzaki aski ematen diogu gaztediari. Zenbat gazte daude lanerako ondo gertatuak eta lanean asteko ere aukerarik izan ez dutenak? Zeiniek esan dezake orduan, uts egiteko bildurrik gabe, gazteak ugaritzearekin arazoa konpondua legokela? Eta beste zerbait ere esan diteke oraindik: gizona ere, beste gauz asko bezelaxe, ugaritzean merkatu egiten dala. Gaurko familietan ez daukate au aztuta.

Aur gutxi jaiotzeak kezkek sortuko ditu gizartearen agintari eta gidarietan, baiña lanik ezak eta bukaerarik ikusten etzaion krisiak senar-emazte askori gauzak bi aldiz pentsatu erazteak ez gaitu arritu bear.

Egoera onek ekarri dezazken kalteak sarritan aitatzen dira. Arazo au konpontzeko zer egingo dan ez da esaten. Ezta zer egin diteken ere.

Onek ere ematen du zer pentsatua.

Urteak eta eguzkia

BEIN 70 bat urteetara iritxi ezkerro, juntura eta ezurretako gaitzak ez dira gugandik urruti izaten. Leentxeago ere bai agian, baiña adin ontara iritxi diranen artean, gaitz oien atzaparretan eroriak egoten dira geienak.

Gaixotasun orrek ematen dituan suprikizunak arintzeko, eguzkia artzea ona dala entzun izan degu.

Miña kentzeagatik edo beste askok alaxe egiten dutelako, eguzkitan beltzteko oitura sartua dago gure artean. Ez gazteetan bakarrik. Denbora aldi bat kanpoan pasata, barru-kolore ori-zuriaren orde ezuzkiak ematen duan osasun itxura ederra-ekin pertsona eldu asko ikusten da.

Eguzki printzak oso onak omen dira osasunera-ko. Oraingo orduetan, amabietatik ordubatera arte-koak omen dira indartsuenak.

Berez ona izan arren, eguzkia ere bere neurri batean artu bear da, eta badira oso kontuan eduki bearreko baldintza batzuek.

Eguzkia artzeko asmoa degunean, ondartzara edo mendira joanda bat-batean eguzkitan jartzea ez da ona. Sendagilleak diotenez, eguzkia artzen pixkanaka asi bear da. Lenbizitik, aldiko amar minutu naikoa dira eguzkitan egoteko, eta goizean, eguzkia indartu baiño len. Anka eta besoetatik asi, eta gero gorputz guztiari, aurretik eta atzetik, aldiko pixka-

bat eguzkiak ematen diola. Onela oitzen da eguerdian ordubete edo orduterdian eguzkitan egoten. Burua, txapel edo orrelako zerbaitekin estali bear da, eta begiak, betaurreko illun-illunekin, eguzkiak erre ez gaitzan; eta batzuetan au bakarrik naikoa ez bada ere, ortarako dan ukendu edo "crema" batekin gorputza igurztea ona da.

Gaitz batzuek sendatzeko edo sendatzen laguntzeko ona izan arren, gaixo dauden guztientzat ez omen da ona eguzkia. Gorputza eguzkia artzeko moduan egon bear nunbait eta kontuz ibilli bear, bada ez bada ere. Orregatik, eta batez ere urte mordoxka bat bizkarrean dutenak, sendagillearekin adiskide egotea izango dute onena. Gaur ez degu garai batean ainbat lotsa eta bildur sendagillearengana joateko eta berari nai degun guztia galdetzeko. Sendagilleak ere gugandik gertuago daudela esan ditekete, eta onek ere ez du gutxi balio.

Beraz, eguzki-zale bagera artu dezagun eguzkia, baiña artu ditzagun lenbizi eguzkia artzeko neurriak. Neurri auetan garrantzitsuena, eta ez naiz esaten aspertzen, sendagillearen iritzia da. Berak esango digu aukera onean gauden ala ez.

Ondartzara edo mendira joanda eguzkia artzea gauz ederra da. Ezurretako miña zerbait arintzea ere bai.

Emen baiño eguzki geiago egiten duan tokian txangoaldi bat igarota beltz-beltz eginda etortzea pozgarri izango da, baiña baita berriz joateko moduan etortzea ere noski.

Ortarako ez al degu obe entzuten eta irakurtzen degunari baiño gure osasunaren berri dakianari geiago sinistea?

Ego-Afrika

EGO-AFRIKAK eman du zer esanik asko aspalditxo ontan. Mundua mundu dan ezkeroztik izan da alkarrekin konpondu eziña gizonen artean. Kondairak ala dio beintzat, eta gure denbora auetan batetik eta bestetik datozkigun berriak zer esanik ez.

Egunkarietan irakurrita ez-ezik, telebisioan ikusita ere naiko garbi jakin du munduak Ego-Afrikan zurien eta beltzen artean nolako iskanbillak, burrukak, zapalketak eta odol-ixurtzeak izan diran.

Naizta zenbakiz gutxiago izan, aspaldiko urte auetan zuriak dira lurralde artako jaun eta jabe. Nagusitasun ori dala-ta, zuzentasunaren ardurarik ez izan, beti eurei komeni bezela gobernatu, eta orren frutuak jasotzen asiak izango dira Ego-Afrikan aginpidea indarrez lortu zuten zuriak.

Europatik joanda ango beltzak menderatu zituztenak, norberekeriaren ondorioak etzituzten ondo neurtu, ikusten danez, eta orain dira lanak. Beltzak, nagusien injustiziz eta geiegikeriz aspertu eta euren mixeriarekin besteek aberasten jarraitu nai ez, eta euren eskubideak eskatzen dituzte.

Zuriak ez dute kezkarik izan beren indar guztia-rekin beltzak zapaltzeko eta menderatzeko. Ezta ondo jipoitzeko eta tiroz iltzeko ere. Garbi asko ikusi da au.

Geiago ere bai oraindik. Zuriak esan dutenez, denborarekin aginteari utzi bearrean izango dirala badakite, baiña nola edo ala al duten arte guztian eusteko asmoak dituzte.

Gizon batzuek besteentzat ainbesterañoko amorrua edukitzeak gezurra ere badirudi, baiña onelakoxe gauzak gertatzen dira dirua eta ondasunak tartean diranean.

Ego-Afrikak gauz asko saltzen du Sartaldeko nazioetara: Urre, diamante, platino, galtzairu bereziak egiteko gai eta abar. Sartaldeko nazioetan asko itzegiten da Afrikako gertakizunak dirala ta ez dirala. Gauz asko esan, baiña egin ez.

Nazio aberatsetako industriak bear dituzten leen-gai oiek zurien eskuetan egon eta iñork ez du nai aiekin gaizki jarri. Ego-Afrikako gobernuari ekonomizko zigorrak ezarri nai dizkiotenak badira, baiña ezin dute lortu ezer. Inghlaterra irten da geienbat iritzi onen aurka, bere burnizko andre Margaret Thatcher aurretik dala. Sartaldetarrak oso zibilizatuak eta demokratak omen gera. Baditeke, baiña gure sakelai pakean utzi, bestela komeriak izango dira.

Ego-Afrikan, geienak beltzak dira. Ondasunik ez, ordea, eta ondasunik ez duanak indarririk ez, eta indarririk ez duanak arrazoirik ez. Beltzen geiengoaren dintasuna sartaldetarren interesen mende dago-la esan bear, pozgarri ez bada ere. Iñork lagunduko digun itxaropenean lo lasai egin diteke emen...

Afrikan gertatzen danak euskaldunori ere zer-bait pentsatu erazi bear liguke. Alkar menderatu eziñik alperrik galtzen ari geran indarrak, gure ekonomia zutik jartzen erabiltzea obe genduke, pobretu geralako arrazoi gabe gelditzea baiño.

Ezbearrak

GAURKO gizartean zabaldua dagon oitura bat, aste-bukaera eta urteko oporraldietan bizi-tokiz eta eguneroko bizikeraz aldatzeko artu degun oitura da.

Denbora luzean lan berdiñean jardun bearrak aspertu egiten du gizona. Aspertu eta nekatu ere bai, eta noizean beingo aldaketa oien egarri izatea ez da arritzekoa. Bearrezkoa ere bada, gorputz-animak atseden dezaten.

Aurrera egingo bada, oitura berriak artu bearra dago, zalantzik gabe, naizta berritze geienak izan beren arrixko eta goraberak. Orregatik, aurrez artu bear neurriak gauzak ondo atera ditezten.

Oraingo ibilli bear onen ondorioetako bat, kamiñoan ezbearren bat izateko arrixkoa da. Edozein aste-bukaeratan izaten dira berrogei ta geiago ildako eta beste ainbeste edo geiago zauritu. Oporraldien asera eta bukaeran zer esanik ez.

Ezbear auek danak ez dira ordea aldegiterik ez dagon oietakoak, gizonak uts egitetik datozenak baizik. Ori da penagarria.

Ainbeste denboran eta ainbeste aldiz ari gera gauz berdiña entzuten, eriotz oiek derrigorrezkoak dirala iruditzen zaigu ia, baiña ez genituzke suerte txarraren bizkar bota bear, geiago pentsatu gabe.

Oraindik denbora asko ez dala, Joan-etorrietako Zuzendaritzak kamiñoetako lege-austeak kupira gabe zigortu bear lirakela adierazi zuan. Etziran danak konforme. Kamiñoetan une arrixkotsu asko dagola, eta lenengo oiek konpondu bear dirala esaten dute.

Bai eta ez. Agintarien egitekoa ez da jendea zigortzea bakarrik. Erriari bear diran serbitzuak eman bear dizkiote lenbizi eta gero asi okerrak zuzentzen. Lenengo euren bearkizunak bete, eta gero besteei bete erazi.

Baiña guk ere ez ditugu eskubideak bakarrik kontuan eduki bear. Bearkizunak ere badauzkagu. Kamiñoetan nola ibilli arauak emanak daude, eta arau oiek betetzetik asi bear genduke.

Karneta ateratzeko eman zitzaizkigun erakutsiak naiko axalekoak izango ziran agian. Bearreneko arauak buruan ondo sartzeko aukera izan genduan, ordea, baiña betetzen al ditugu? Esate baterako, arau eta baldintza auetako bat beintzat etenik gabeko arrastoak ez zapaltzea da, baiña ez da bear bezela errespetatzen. Oraingo azkar ibilli bear onekin, asko dira arrastoz beste aldeko bidearen erdiraiño sartzen diranak, beren buruak eta besterenak arrixkoan jarriaz. Eta, alkoolak aize emanda ezorduetan zoroen moduan dabiltzanak? Ikusi bestela ezbear asko eta asko zer orduetan gertatzen diran.

Nik ez dakit suerte au gugana iritxiko dan edo noiz iritxiko dan, baiña indargai berriak arkitzea dala eta abar, gasolina merkatuko den itxaropena da. Onek automobillen ugaltzea ekarriko du. Aurre rapenak gizatasunez erabiltzen ikasiko al degu. Familietan makiñabat negar gutxiago egingo litzake.

Txitxarroa

JAKITUNAK diotenez, txitxarroa ogeita amar bat urtean bizi omen diteke. Bakoitzak eun bat milla arrautz ipintzen omen ditu itxas-zoruan edo zorutik gertu beintzat. Jaio berritan urgaiñera igotzean omen dira txitxarrokumeak, urte pare batean antxe bizitzeko.

Ogei bat zentimetro luzekoak egiten diranean, kosta gertuko uretatik itxaso zabalera joan eta talde aundietan biltzen omen dira, udaberriaren azken aldera urak epeltzen asten diranean arrautzak ipintzeko.

Udaran, arrautz-ipintzea bukatzean, sakabana-tu egiten omen dira jan billa saiatzeko, eta neguan biltzen omen dira berriz alkarrengana itxasoaren zorualdean.

Oraindik ez omen zaio txitxarroari duan baliorik eman. Orregatik ez omen du arrakastarik, naiz ta oso janari ona izan. Au dala-ta, arrantzak ez omen dauka arazorik itxasoan txitxarroari dagokionez, legorrean baizik. Sal-erosketak bear bezela antolatuta egon ez, eta estimazioarik ez daukalako arrai-iriña egiteko eta orrela saltzen omen da. Etekiñ gutxiko gauzetarako, alegia, Bear aiñako salneurrikeri ere ez omen du irixten askotan, eta arrantzaleak txitxarroak itxasora botatzen dituzten egunak izaten omen dira merkeegi ez saltzeagatik.

Janari bezela merezi duan arrera ona baleuka, txitxarroari etekiñ ona errez aterako omen litzaioke, baiña batetik gure oiturak aldatzen zailla dalako eta bestetik bere berri ez dakigulako, orra txitxarroa baztarrera utzia.

Jakintsuak ala esaten dute, eta oiek guztiak ala izango dira. Ez det uste guri iruzur egiten arituko diranik.

Badira txitxarroa bixigua bera baiño naiago dutela esaten dutenak ere. Au ere sinistekoa da. Ez baitegu danok ao-sapai berdiña.

Txitxarroa ona izango da. Janari bezela bear dituan bitamina eta gaiñontzeko baldintzak berekiñ izango ditu, baiña jateko garaian begi-bixta ona eta pazientzia ere bear dirala ez da gezur aundia izango.

Esaera batek dionez, ezurraren ondoko mamia izaten da gozoena. Beraz, txitxarroa gozoa izan bear nai ta nai-ez. Ainbeste ezur du, ez baitu ezurraren ondokoa ez dan mamirik.

Batzuek nai zutena esatea libre eta besteak entzunda ixilik egon bearra zuten garaia ezagutu genduan. Orduan ere urtean-urtean bizimodua gares-titzen, eta telebisiotik txitxarroa jan bear gendukela esan zigun ministro bat izan zan. Agintari jendeak egindako banketeren bateko janari-zerrenda irakurri izan degu iñoiz. Txitxarroaren izenik ez da azaltzen. Beste arrai prexko batzuen bai.

Ainbeste lan eginda gero arrantzaleak txitxarroa itxasora bota bear izateak ematen du pena.

Gaur dauden aurrerapenakiñ, ez ote dago txitxarroari ezurak kentzeko tresnaren bat asmatzerik?

Aldaketa premia

ALDERDI ederrak baditu udarak berekin. Baita txarrak ere, eta auetara ere jarri egin bear.

Alderdi txar auetako batetik naiko ondo libratu gera Euskalerrian, baiña baso sail ederra pranko kiskaldu da aurten baztarretan.

Izan ere, aurtengo legortea eta egin dituan berok baziran bere modu batekoak. Eguzkia ere neurrian da ona, ikusten danez. Pikardia pranko egiten du neurritik irtetzen danean. Su piztzailleak ere ugaritzen dijoazen susmoak dira, eta baditeke ala izatea. Ainbeste erreketeta iñoren gaiztakeririk gabe gertatu dirala sinisteak baditu bere lanak.

Dana dala, ondamentirik asko izan da, eta, esaten zaigunez, orrelakoetan aurrez neurriak artzea zailla izaten omen da. Zer esanik ez batzuen utzikeria eta besteen borondate txarra tarteko diranean.

Montserrat inguruko zuaiztiak ere erabat ondaututa gelditu omen dira. Ango prailleak eten gabe jardun omen dira errezatzen, baiña aien atoitzak eta erreguak ez omen dute indarririk izan suari nai zuana egitea galerazteko.

Ni bai arritu ori jakitean. Ez al zitzaigun ba esan, orain lau bat urte edo, aldaketak egingo zirala?

Prailleen errezo eta orrelakoai parre egiteari utzi-
ta geundela uste nuan nik. Leengo laguntza atzera-
tuen orde, sua itzaltzeko bear diran erreztasun,
tresna eta aurrerapen guztiak noiz-nairako gertu
geneuzkagula uste-ta, prailleen errezoai begira al
geunden oraindik?

Prailleek zenbateraiño dezaketen bagenekigun.
Aiek egin dute al dutena. Guk egin al ditugu basoak
basamortu biurtu ez ditezen egin bearreko aldaketak?

Telebisioz eta abar, gertatzen danaren berri
ematen zaigu, ikusiaz gaiñera konturatu gaitzen
edo. Basoak erretzearekin nolako kalteak eta gale-
rak datozkigun ere esaten zaigu. Beti bezela beroa-
ren, euririk ezaren eta gizonaren zitalkeriaren biz-
kar bota, eta datorren udara arte.

Udararen beste alderdi txarretako bat, ainbeste
beerako eta esteetako gaitz sortzea da. Leen ere bai
eta oraiñ ere bai, gaitz mota auek urteero izaten
dute euren bolara. Iturriko urarena izango dala,
janariren batena, beroarena, egoaizearena... kontua
da, bixitari oni atea ixteko modurik ez dala egiten.
Gaitz auek arrautzak jatetik ote datozen ere esaten
da. Arrautzak bearrezko baldintzak betetzen dituz-
ten, bear dan denbora-barruan saltzen diran eta
abar kontu artu bear litzakela ere bai. Janarientzat
bear dan garbitasunez ez gerala arduratzen ere esa-
ten zaigu, baiña beerakoa datorrenean sendatu arte
eutsi eta aurrera. Iñor ez dala beintzat ill, eta segi
datorren udara arte. Eta ez omen da pentsatu nai
au ekonomiari trabarik ez jartzeagatik dala.

Ez ote dago aldaketa bat edo besteren premirik?

Udazkena

GU bizi geran lur ontan, urteak duan garairik ederrena udazkena dala esango nuke.

Gure kantuak udaberriari eskeiñi izan dizkiogu askotan, eta ez arrazoirik gabe. Ain da polita, argia eta alaia. Buruan ametsak eta biotzean itxaropena eta maitasuna sortzeko garai berezia da udaberria, baiña aldakorra ere bai. Ametsak bezelaxe, egonarri gutxikoa.

Udazkena, beteagoa, oparagoa eta paketsuagoa da. Izadia bera ere bare eta gozo azaltzen zaigu, udaberrian zituan asmoak burutu ditualako lasaitu balitz bezela. Udazkena amaitzera dijoanean asten dira ostoak orituta lurrera erortzen, negu aurreko izotzak sumindutako zuaitzen negar malkoak balira bezela. Orduan asten dira artzaien neke eta buruausteak ere. Mendietako larre eta pakea utzi, eta beeko zelaietara etorri bear neguarekin burruka egitera.

Besteak beste, udazkenak bazuan garai berezi bat: garoa ebakitzeko garaia. Gaur lan orri utzi zaiola kontu. Orain ez da gure mendietan gurdien irrintzi otsik entzuten. Ego-aizeak firi-firi jotzen zuala, mendiak betean jendea garotan ikusten zan egun zoragarri aiek joan ziran.

Artorik ez da ereiten esate baterako eta agur garai bateko arto-zuritze aiek beren ipui, bertso

zaar eta guzti. Garia ereiteari ere utzi zitzaion. Bai garijotzeari ere, zori onean. Etzan lan ederra. Urtearen barruan ogi pixkabat jango baldin bazan, autsa pranko jan bear izaten zan lenengo.

Ta joan zaigun urteak zenbateraiñoko uzta eman digun kontuak ateratzeko sasoi ona da udazkena. Baita datorkigun urtean nundik jo eta nola jokatu pentsatzeko ere.

Azkenengo urte auetan aldaketa izugarriak izan ditugu, eta ez danak kalterako. Aldaketa oiekgatik gure izakera eta sustraiak maitatzen jarraitu eziñik ez daukagu, nai badegu beintzat. Makiñatxo bat neke eta lan alper egiñak gera euskaldunok. Guk gizendutako kapoiak beste batzuek jaten zituzten denbora aiek gaintitu ditugu, eta geure buruz edo bizibearrak eraginda, bizikera obe bat eskuratu degu. Bizikera onek ermotzen eta obeagotzen joan bear luke, baiña eziñ.

Erri bezela astindua pranko artuak gera gizaldiak zear. Oraintxe geunden gure buruaren jabe izaten zerbait asita, baiña ez da pakerik gure artean. Ez degu egonarririk. Kanpotik zirikatzen ez gaituztenean, geu asten gera alkar zirikatzen.

Asko aldatu gera gauza batzuetan. Asko ikasi degu, baiña menderatzen ez degun ikas-gai bat badegu oraindik: guk aukeratutako gidariak zintzo jokutzen ez dutenean oilloak perratzerara bialtzen ez dakigu.

Urbasa

ATZO Urbasan izan nintzan. Aspalditxotik datorkidan oitura det urtero-urtero Urbasari ikustalditxo bat edo beste egiteko oitura.

Urteak joan da urteak etorri, nerean jarraitzen det, eta ez naiz aspertzen. Etzait iruditzen aspertuko naizenik ere.

Toki ederra benetan Urbasako mendi gaiña. Ain da mardula, atsegiña eta zabala, joan aldi bakoitzean arkitzen da an zerbait berria. Ez da egun batean ezagutzen dan oietakoa.

Bera goian egonik, urrutira ikusten diran mendiak bere berdiñean daudela ematen dute. Berez zabala izanaz gaiñera, onek ere mugagabeko zabal-toki bat bezela jartzen du Urbasa gure begien aurrean. Ikusgarriak dira ango pago eta pagadiak, eta zer esanik ez belar-zelaiak.

Urbasa ederra da udaran, baiña bai udazkenean ere. Udarako igandeak alaiak izaten dira an. Batzuek eguzkia artzen eta beste batzuek itzalean, famili asko izaten dira, aurrak lasai jolasean dabil-tzan bitartean, otordua bertan gertatu eta bertan egiten dutenak. Zenbait pago azpitan, ingurua ederk-i alaitzen duten soñujoleak ere ikusi izan dira.

Bai. Leku alai, argia eta osasuntsua da Urbasa jai egunetan, baiña nik aste egunak aukeratuko

nituzke aruntz joateko. Aste egunetan ez dezu eze-
ren trabarik arkituko. Nai dezun lekutik lekura eta
nai dezun aiña bidean ibilliko zera. Irrati, soiñu eta
jendearen zarataren ordezt, ezeren kezka eta bildu-
rrik gabe basoan bizi diran abereen zintzarri-ots
paketsuak entzungo dituzu.

Larrean lasai ta patxaran dabiltzan ardiak ez
dizute ezeren oztoporik jarriko. Moxalak aldamene-
an dituztela larre-toki batetik bestera taldean dijo-
atzen beorak ere ez. Etzanda pake-pakean ausna-
rrean ari diran bei guriak begiratuko dizute onene-
an, baiña zintzarria joaz burua astintzen badute
ere, euliak bialtzeko bestetarako ez da izango. Zuk
jarrai zure bideari Urbasako zuaizti, zelai eta
sakon-uneak ezagutuaz. Badaukazu zer ikusia.

Zenbat aldiz joaten zeran, ainbeste alderdi des-
perdin eta toki berezi arkituko dizkiotzu Urbasari.
Ango zuaiztetan pagoa da nagusi, baiña arabota,
elorri eta arantzabeltza ere erruz ikusten da. Perre-
txiku, kamamilla, txanpiñoi eta orrelakorik ere iza-
ten da Urbasan. Zer esanik ez ainbesterañoko ixti-
mazioa daukan "Patxaran" egiteko arantxamilloa
ere. Zeiñek bildua ere bai, baiña ezagutzen dute-
nentzat emankorra da mendi-gain zabal ura.

Urbasak eta andik ikusten dan lurraldeak, Eus-
kalerrian gaudela gogoratu eraziaz gaiñera Naparro-
arenganako maitasun bero bat piztu eta indartzen
du biotzean.

Ia ez da ikusten aurrean kotxerik ez dagon ar-
tzai-txabolarik. Poza ematen du onek. Artzantzatik
aurrerapenen jabe izatea iritxi ezkerro, bai baliteke
artzaiak Urbasan irautea.

Fubola, pelota eta abar

IRITXI zaigu aurtengo fubolaldia ere. Zaleak diranak izango dute fubolaren eta fubolarien goraberen berri jakiteko aukerarik asko. Gai ontan gutxi dakigunoi ere poz ematen digu emengo taldeak eta jokalariaik goi-maillan ikusteak.

Gure Gipuzkoa txiki onek eman du fubolari iaio eta ospetsua pranko. Iñor baztartzeko asmorik gabe, atezai edo porteroak nabarmendu dirala batez ere, esango nuke. Zergatik ote da au?

Gipuzkoan pelotan jokatzeko zaletasun aundia izan eta orren ondorena dala esan du, atezai sonatua izan zan Galarraga jaunak. Nundik eta nola datorren eta norako bidea artu dezaken antzeman bearra dago pelotari, joko baldinbada. Kontrarioak jotako baloiari onela antzematea, erreztasun aundia izan bear baloi orri eskuekin eltzeko edo sarera bidea ixteko. Orra nola etorri lezaioken gizonari ogia irabazteko era. Eta ez ogia bakarrik, bai gazta ere askotan.

Nork daki noiztik asita, Euskalerriko erririk txikienetan ere izan da ba pelotarako zaletasunik asko, zenbaitengandik laguntasun aundirik izaten ez bazan ere.

Mutil koskorrak giñala, gure biurrikeririk aundienetako bat pelotan ibiltzea izaten zan. Orduan

etzan Eusko Jaurlaritzarik. Foru Aldundiak ere etzuan pelotaleku berrien zabalkundeak ospatzen lanik izaten, eta eliz-atarian egin nai izaten genituan gure pelota-saioak. Orrekin izaten ziran kome-riak. Eliz-atariko ormak igeltsoz zarpiatuak zeuden, eta guk pelotarekin zarpioa zikindu eta ondatu egi-ten genduan.

Pelotan asten giñan bakoitzean, an azalduko zan gure Bikario jauna gu oartzerako. Laister eman bear izaten genion artille-ariarekin ainbeste kostata egin-dako pelota. Eskura eman bear gaiñera. Ordaiñetan kaskarreko bat edo beste emango zigun, eta urren-gora arte. Ondo geunden gu kirolari esker gorputzak osasuntsu eta animak garbi gordetzeko. Ormak ala zarpiatu erazi zituanak, zerbait egin zuan.

Garai aietan, eta batez ere erri txikietan, eliz-gizonak izaten ziran geiena zekitenak. Ortik etor-zen zitzaien nunbait erriari euren iritziak ezartzeko tentazioa. Lanak izaten ziran orrekin ere. Ez det esan nai onekin eliz-gizon guztiak onelako agindu-naia dutenik. Bestelakoak ere badira, eta ez gutxi.

Alako batean, Jainkoak eraman zuan gure Bika-rioa bere ondora, eta apaiz gazte bat etorri zan aren tokira. Bereala ikusi zuan zer gertatzen zan. Ala. igeltsoa kendu erazi eta arri landu ederrez egindako ormak agirian utzi zituan, pelotan egiteko oztoporik izan etzedin. Ori da erriari bere erara bizitzen uztea.

Ez dira auek lengo kontuak bakarrik. Orain ere badauzkagu gure artean ikasiak eurak dirala eta dana dakitelakoan zer pentsatu eta nola itzegin agin-du nai digutenak. Eta ez dira danak eliz-gizonak.

Ez ote du denborak maisu oberik sortuko?

Bide obeak bear

ARROLIOAREN goraberek dirala-ta, gasolinari buruz iritzi desberdiñak entzuten dira. Toki batzuetan, merkatu egingo omen da. Emen leenean jarraituko omen du. Oraingoz beintzat ez omen da garestituko, eta ori ere zerbait da.

Indar-gaiak merkatzeak ekonomiari indar berri bat emango omen dio. Bankuak ere azkenaldi ontan baiño modu obean emango omen diote dirua eske dijoanari. Errezago eta oraiñ artean aiña interes ordaindu gabe.

Diru-gauzetan aldaketa auek dirala-ta, automobil geiago eta obeak erosteko erreztasunak izango dira. Gasolina merkatzeak, berriz, aste-bukaeratako joan-etorri geiago eta oporraldietako ibillaldi luzeagoak egin al izatea ekarriko du, eta gure automobillez ibilli naiak eta ibilli bearrak ugaltzen joango dira. Orra nundik eta nola datorkigun bide geiago eta obeak bear izatea.

Bide berriak egiteko Egitamua (*plan de carreteras*) egin zanean, orduko arrolio eskasiari begira egin omen zan. Orain, ekonomia pixkabat xuxper-tuko dan itxaropena, ordea, eta Bide-Egitamu ortan aldaketak egitea bear-bearrekoa dala diote gai oietan jakitun diranak.

Eskatzen dan aldaketa bat, egitamu edo Plan ortan esaten dan baiño bi bideko kamiño edo "Autovía" gutxiago, eta "Autopista" geiago egitea da.

Dakigun bezela, bi bideko kamiñoetan, kotxeak ez-ezik oiñezkoak, txirrundulariak, gurdiak, tratoreak eta danak ibilli ditezke, eta arrixko izugarria du onek. Ikusi besterik ez dago aste bukaera guztietan zenbat ezbear eta eriotza gertatzen diran.

Autopistan azkarrago ibiltzen gera, baiña oztopo eta trabarik arkitzen ez, eta ez degu gure bizia ainbeste arrixkatzen.

Autopistak egitea bakarrik ez omen da ordea naikoa. Azkar, bereala egin bear omen dira. Europan gure aldean aurreratuak omen daude gai ontan, eta europatar izan nai badegu, an dauden bezelako bideak bear omen dira emen. Gauza naiko garbi dagola dirudi.

Arrolioia garesti, Bankuak diru gutxi ematen, eta gauzak naiko estu zeuden oraindik denbora asko ez dala. Diruari etekin polita, interes polita atera ere bai, aurreratu zezaketanak, eta ekonomiaren geldialdia. Jakintsuak ala diote beintzat.

Argialdixoren bat ote degun ba orain. Ez dute danak nai bezin azkar eguzkia ikusiko, baiña laiñoak meetzen astea zerbait da.

Kotxe geiago saltzea bera bakarrik ez litzake txarra guretzat. Lantegi asko dira Euskadin automobillentzat pieza edo puskak egiten dituztenak. Alde ederra dago tallerrak lur jotzen ikustetik arnas-berritzen ikustera.

Autopistak egiteak ere lana sortzen du. Bide geiago eta obeak egin premi ori izan bedi ongi etorria. Lanaren antzari berriketa gutxirekin eldu bearreko egoeran arkitzen gera, eta erosotasun geiagoko bizikera ere ez da txarra izango.

Biziko bada, dirua bear da emen, eta dirua izango bada, lana.

Otxaportillo

BANEKIAN. Naparroan izan nuan lagun jator bat, eta ark esan zidan zorigaiztoko gerra aren asieran, Sakanako zenbait erri txikitan nolako astakeriak egin ziran.

Etziran garai ederrak batek zekiana iñori esateko, baiña lagun ark eman zidan gertatuaren berri, eta aren esana ezin zitekean gezurra izan.

Gorrotoz eta inbiriz itxutuak bezela pentsatzen etzutenak, eta batez ere abertzaleak baziran, Otxaportillora eramane eta leize zulo batera botatzen omen zituzten. Kosta zitzaidan sinistea, baiña neri au esan zidana egi-zalea zan.

Gipuzkoa aldetik goazela, Urbasa gaiñera iritxi ta bereala, ezkerreko aldera dijoan bide bat ikusten da. Antxe dago letrero bat "Casa Otxaportillo" jar-tzen duana. Bide orri eldu eta kilometro pare bate-ra, eskubiko aldetik, beste letrero txiki apal bat: "Sima". Karminiñotik gertu, burnizko oroigarri bat. Bere erdian, lurrean, iñor erori ez dedin burni-sare ermo batekin babestua, leize zuloaren ataka.

Toki artara irixtean sentitzen dana esaten ez da errez. Ni beintzat ezur da arri eginda gelditu nintzan. Ezer pentsatzeko ere kemenik gabe. Ainbeste-raiñoko zarrada nabaitu nuan nere barruan, ez nintzan pixkabatean nere onera etorri ere.

Indarraren jabe ziranak bezelakoak etzerala edo inbiria eta eziñ ikusia zala, jaiotzea beste errurik etzuten gizonak bota egin bear ziran leize zulo artara.

Gizon bezela lotsa sentitu nai duana, joan dedilla Otxaportillo bideko oroigarria ikustera. Gizona da gizonari ori egin dezaioken pizti basatia, eta gizona bakarrik, besterik ez. Bada lotsatzeko beste arrazoi bat ere. Orrelako astakeriak egin zituztenak, euskaldunak ziran. Naparroako Sakanako zenbait erri txikitian euskeraz itzegiten da oraindik. Zer esanik ez orain berrogeita amar urte. Beraz, gau illunean gizon billa joaten ziran aiek euskaldunak izango ziran. Baita gorrotoaren martiri gizarajo aiek ere.

Arrabia, ezereztasuna eta eziña ere sentizen dira Otxaportillon. Ainbesterañoko injustiziak ikusi eta eziñ ezer egiñ. Bateonbateg esan du onuzkero kontu zarrak dirala oiek eta aztu egin bear dirala. Barkatu bai, esango nuke nik, baiña aztu? Nola? Otxaportilloko oroigarriaren ondora lore berriak maiz eramaten dituztenak ez dira oraindik aztu. Besterik eziñ, eta leizean karraxika il ziranen alde aitagure bat eta aiek bota zituztenen alde beste bat errezatu eta aldegin nuan. Nai duanak nai duana esan dezala, baiña izan dedilla pakea anai artean.

Anthony Hawish Nobel-sarituak gure lur ontatik kanpo, beste mundu batzuetan ere izakiak bizi diran susmoa omen du, eta bear bada, gizakiok ikusi baldin bagaituzte, euren goi artatik begiratuta aberetzat artuko omen gaituzte. Ala esan du.

Itz gogorrak gure belarrientzat, baiña ez dira edozeiñek esanak.

Jubilatuen arazoak

GIZONAK, eta emakumeak, zaar-saria artzera edo jubilatzerara irixtean, bizitzako arazoak gaintitu dituztela esan diteke. Ala dirudi eta ala bear luke, baiña ez da orrela, eta sortzen zaizkieten arazoetan nagusienetako bat diru-arazoa da.

Zaarren indarrak neurtu-errezak dira. Orregatik, diru-kontuan agintzen dutenentzat zaarren eskari, premi eta eskubideei mugak jartzea ere erreza da. Eman bear duana geienez berearekiñ irtengo da, ortarako askotan aitzakiak arrazoi biurtuko baditu ere. Au da ondo ez dagona.

Estaduak, Gobernuaren bitartez, urteero izendatzen du bizi izateko illean edo egunean gutxienez zenbat diru bear dan, baiña naiz eta beste iñundik etorkizunik eduki ez, Estaduarengandik diru ori jasotzea irixten ez diran pertsona edadetuak millaka dira.

Diru-arazo au ez da konpondu eziñ ditekena. Zaila izango da, baiña eriotzari iges egitea bezela eziñezkoa ez. Andik kendu eta emen ipiñi, premirik gabe edo premi aundirik gabe gastatzen diran diruei beste bide bat eman ez eta abar gauzak obeto egin litezke, eta egiten ez badira, gure akatsa, danon akatsa, gizonen akatsa da.

Aginpidea lortu zutenen itz eta asmo onak baka-rrik ez dira naikoa. Zezenari adarretatik eltzeko

ausardia eta kemena bear. Or dago koxka. Sermoia egitea bat izan, eta ogia ematea, bestea. Aginpide billa dabilzanak premian daudenakiñ katuak xaguarekiñ bezela jolas egiten dute batzuetan. Orrek ez luke orrela bear.

Zaarrentzat beste arazo bat osasunarena da. Onentzat bai ez dagola erremedio errezik. Etxe zaartuak bezelaxe gorputz zaartuak ez baitu itukiñ paltarik izaten. Ala ta guztiz ere, eta naiz ta osasunik diruz erosterik egon ez, suprikizun batzuek beintzat arindu litezke. Emen aiña otz eta euri egiten ez duan tokian negua pasatu al izatea gauz ederra litzake zaarrentzat, baiña ortarako dirua bear.

Zaarrak epela ondo bearrekoa du, baiña neguan ez da ura zerutik etortzen, eta bateko erreuma eta besteko ez tul, al duan arte eutsi eta kitto.

Bakardadea da beste arazo bat zaarrak asko samintzen dituana. Bere denbora guztian lantokian beste batzuekiñ batera, kalean lagunartean eta orrela oituak bere burua baztertua ikusten nunbait. Leenago bezela alkarte edo soziedadera joaten bada, danak bera baiño gazteegoak ikusiko ditu. Bere adiñekoekiñ bildu ezker, aje kontua eta kotta besterik ez du entzungo. Orra sano dagona gaixotzeko modua.

Eta, alarguntzen bada, arritzekoa ez dan bezela? Orduantxe zerua lur jota. Diruz poliki baldin bada-bill lagunak izango ditu. Zeiñek lagun egiña ere izango du. Dirurik ez badu, laister da lagunik gabe.

Jaungoikoaren legeko amar aginduak bitan biltzen diran bezela, iru arazo auek batean biltzen dirala esan genezake: diru-arazoa.

Ikasten

ONDO izateko egunero zerbait berria ikasi bear omen da, eta alaxe izango da, bestela, leena aaztu eta berririk ikasi ez, orra baterez.

Nik uste nuan gaurko emakumezkoak, gizonezkoak bezelaxe lantegi batean lana egiñez, bere buruaren jabe izan nai zuala. Izan ere, beretzat aiña irabazteak alakoxe askatasun bat ematen dio pertsonari.

Emakumezkoak gizonezkoaren eskubide berdiñak ditu, eta bidezkoa du lanaren bidez dirua irabazi nai izatea. Gauzak bide ortatik joaten asiak bazeuden ere, Italiko emakumeak beste era batera pentsatzen asi dira.

Diotenez, etxetik kanpo lana egiteak ez ditu betetzen. Ez omen dira konforme orrekin ere, baiña antzeman omen diote zer nai duten. Ez da gutxi.

Garrantzirik aundiena osasunari ematen diote. Urrena, ezkontzan daukate euren itxaropena. Osasun onarekin eta aurtxo bat aziaz, senar on batekin bizitzea da Italiko emakumeen elburua. Euren ametsik gozoenetako bat, aurtxo bat laztanduaz senarra noiz etxeratuko zai egotea omen litzake. Eziñ esango degu Italiko etxeakoandreak benetan maitagarriak ez diranik. Amets ori egi biurtzen laguntzen ez badute, ez dute italianoak barkazorik.

Itz eder oiek diru asko daukanen batek esango zituan, seguru asko. Aurtxoa eta senarra laztanduta besterik gabe goxo-goxo bizitzeko, emen baiño irabazi obeak egongo al dira Itali aldean; bestela ez dute ango senarrak kontu-potxolo asko entzungo. Etxe-bizitza eta gaurko bizikerari dagozkion beste gauz asko, langilleak ere eskubide guztiz eskatzen dituztenak, ez dira senarrari begira egonda erosten.

Dana dala, baliteke Itali aldeko moda ori, beste asko bezelaxe, onuntz etortzea. Ura izango litzake zerua. Lanetik etxeratzean ontziak garbitzen asi edo arpegi irripartsu eta alaiarekin zai dagon emaztearen laztan goxoa artu, alde ederra senarrarentzat.

Italiko emakume oiek, euren kezka eta illunaldiak arintzeko nai omen dute senarra. Senarrak, berriz, izan dezaketen neke eta arazo guztietan gorputz ta anima laguntzen saiatzeko ere prest omen daude. Auxe da benetako ezkontza zer dan argi ta garbi ikustea.

Txantxak alde batera utzita, ia orain artean, emakume asko neskazar ez gelditzeagatik ezkontzen ziran. Gaur ez da orrela. Gaurko emakumeak badakite zer komeni dan eta zer nai duten. Maite duan lagun on batekin bizitzeari eta une on eta txarretan alkarri laguntzeari bere balorea ematen dio orain emakumeak. Edertasunari iraun arazteko eta zoriontsu bizitzeko osasun onak zer esan nai duan ere ikusten du. Gizonak ematen zionari begira bizi bear ura bukatu zaio emakumeari zorionean.

Ea ba gizonok ere saiatzen geran emakumeen gogoia betetzen. Ezta beti errez izango, baiña zer oberik familiko gozotasuna baiño?

Akatsa

EUSKALDUNOK izan ditugun akatsetako bat, eta ez txikia, liburuetako erakutsiengan sinismenik ez izatea da.

Garai batean etzan Euskalerrian bear aiña eskola. Ziran eskoletan berriz etzan euskeraz erakusten, eta ori jakintza pixkabat lortzeko oztopo aundi bat zan. Nola eta zer ikasi izkuntza arrotzean?

Euskerak eta euskal-kulturak etzuten arrera onegia izan zenbait agintari eta jauntxoan aldetik.

Zerbait ikasi nai zuanak, erderazko liburuetatik ikasi bear, eta ortarako erderaz ikasi bear lenbizi.

Modua zeukatenak bialtzen zituzten euren seme-alabak erri aundietara edo Euskalerritik kanpora, baiña baserritarren eta artzaien umeak ezer ikasteko erreztasun gutxi izaten zuten.

Langilleak, bai, langilleak izango ziran, baiña lana nola egiñ besoei buruak agintzea komeni, eta euskaldunen buruak ortarako gertatu gabe zeuden. Itz batean esateko, gure baserritar eta artzairik geienak ezjakiñak ziran. Ez ikasteko balio etzutelako, erakutsi etzitzaielako baizik.

Orregatik bizi izan giñan geurekasa denbora askoan. Geure burua il-zorian ikusi arte ez genduan sendagillearengana joan nai izaten. Auetako asko erdeldunak izan, eta batzuetan lotsaz eta bes-

teetan burugogorkeriz, petrikilloren batengana joan naingo izaten genduan.

Abereekiñ ere gertatzen zitzaigun orrelako zerbait. Ala ere, ez dakit albaiteoarengana ez ote giñan medikuarengana baiño errezago joaten.

Nekazaritza gaietan ere zelebreek giñan. Kanean bizi ziranetan, beti izaten ziran baserritarrak baiño zerbait geiago zekitenak, zerbait ikasiak ziralako, irakurtzeko zaletasuna zutelako, opizioen bat zutenak, apaizak eta abar. Orrelakoen artean izaten ziran baserritarrei zerbait erakusteko borondate onekoak: "Soro orri orrelako ongarri eman bear zenioke, sagar-zuaitzak onela zaindu bear zenituzke, garaietan inausiaz eta onelako edo alako sagar-motaz txertatuaz, onelako edo alako barazki onak dira eta artu eziñik ez daukazu, eta abar".

"Bai, esaten zuten askok. Orrek liburuetan irakurria besterik etzekik. Liburuak ez ditek ogirik ematen. Jango bada, egin bearra zegok emen. Orain artean onela izan gaituk eta aurrera ere onela jarraitu bear diagu".

Azkenengo au izan da guri kalterik geiena egin diguna: "Orain artean onela izan gaituk eta..." Auxe da gizonak sekula esan bear ez duana. Beti berdiñ egoteak benetan kezkatu bear du gizona. Ori baiño askoz ere obe du al duan guztia ikastea. Liburuetatik ikastea aldapan gora egiten bazaio, bera baiño obeto bizi diranei begiratu, eta beste ainbeste egiten saiatu beintzat, gutxienez. Bestela galdua da. Berri-tu edo ill. Ez dago besterik.

Japondarren berriak

IÑUN makina edo tresna berririk asmatzen baldin bazan, japondarrak azkar ikasten zutela beste ainbeste egiten esan oi zan. Berebiziko kopia-tzailleak zirala alegia. Etzan pentsatzen japondarrak asmatzaille onak ziranik, eta etzan uste Ipar-Amerika, Alemania, Ingalterra eta beste zenbait naziok Sortaldean zirikatzaillerik izan zezaketenik.

Baiña denborak erakutsi digunez, ez da guztia onela. Besteenak ondo kopiatu ez-ezik, gauza berri asko asmatu eta sortu dituzte japondarrak. Baita mundu guztian zabaldu ere. Erosleen kutizi eta premiei antzematen ez dira makalak. Ezta etekiñ edo produktoa merke ateratzen ere, baiña onek ere sortzen ditu kakoak, ikusten danez.

Ain dira saiatuak, mundu guztia osatu dute euren kotxe, motor, transistore eta gaiñontzeko trepetxuz. Ez dago Japonen egindako erloju, kontuak ateratzeko tresna eta orrelakorik salgai ez dagon dendarik.

Asetzeak geiagoren bearrik eza berekin du ordea, eta orrek kezkatzen ditu ango enpresariak. Badakite ortik lana urritzera oso salto txikia dagola, eta lanik ezak sortzen dituan iskamilla eta burrukai neurriak artzeko oraindik iñun ezagutzen ez dan esi berezi bat asmatu dute.

Japongo langilleak ez dira alde auetakoen berdiñak. Ugazabakin ezta-baidaren bat dutenean, emengo alkartasun edo sindikatoentzat arrigarri dan jokera artzen dute. An ez da uelgarik egiten, eta lan-sari obeak eskatu bearrean ikusten diranean, ez dira besoak zintzilik dituztela gelditzen. Oitura duten baiño askoz lan geiago egiten dute, eta kobratu gabe orduak sartuaz, bestela baiño bi aldiz etekiñ geiago ateratzen dute. Orra egindako dana saldu ezin duten nagusiei pipa jotzeko modu polita. Ala ta guztiz ere Sartaldeko enpresariak euren langilleek japondarren jokera berdiña noiz artuko irrikitzen omen daude, baiña apenas dagon ortarako arrixkorik.

Japongo enpresariak ez daude ordea lotan. Kri-sisak langilledia oso saltakor biurtu lezakela bada-kite, eta aurrez neurriak artzea erabaki dute. Ortan dago japondaren oraingo asmakizun edo inbentu berria.

Zer odol klase duan, alako izakera omen du gizon bakoitzak... Beraz, ez dago gizon petrala eta langille txarra zein dan jakiñ eziñik. Odola analiza-tzea asko.

Orregatik, Japongo ugazabak ez omen dute emendik aurrera lantegiak saltsa jarri lezaken langillerik artuko. Lana nai duanak, zer odol-mota daukan esan bear lenbizi.

Japondarren inbentu ori ez alda onuntz etorri-ko. Lan eske dijoanak ez al du izango nolako odola daukan aitortu bearrik. Ipurterre samarrak diran guztiak lanik gabe daudenen pillara botatzen asten baldin bagera, izango da zein mantendua.

Bertsolariak eta bertso idatziak

LIBURUTIK liburura nenbillen batean onoko itz auekiñ topo egiñ nuan: “Patxaran jarrita bertsoak asmatzea eta paperean idaztea ez da bertsolari-lana”. “Bertsolari izena bat-batean bertsoak asmatu eta egoki esan edo kantatu oi dituanari bakarrik ematen dio erriak”.

Baditeke, baiña ez dakit ba dan-dana orrela ote dan. Or dauzkagu Xenpelar, Otaño, Pello Errota, Billintx, Txirrita, Xalbador, Basarri, Garmendia eta beste zenbait bertsolari, bat-bateko bertsolaritzan trebeak izanaz gaiñera idatzitako bertso bikaiña pranko emanak. Ez egiñ dutena bertsolari-lana izan ez balitz. Bertso idatzirik utzi ez balute auen eta aitatu gabe gelditu zaizkidan beste askoren aditzerririk ere etzan izango, ez oraiñ eta ez gero.

Patxaran jarrita bertsoak asmatzea ez bertsolari-lana bakarrik, baizik bertsolaria osatzen duan lana dala esango nuke.

Zergatik-bait artzen zuten lan ori leengo bertsolariak. Batetik gogoko zutelako, eta bestetik bertso idatziak erriaren aldetik oso arrera ona zutelako. Etzan bestela garai batean saltzen zan aiña bertso-paper salduko.

Emen galdera au egingo nuke nik: bertsolari ez danak bertso-zaleen gustoko bertsorik moldatuko ote luke?

Patxara eta denbora artu arren, gutxi edo geiago bertsolari ez danak ez du bertso-gintzan asko luzituko. Bat-batean bertsoak botatzeak meritu geiago izango du, baiña leengo bertsolariak paperean jarzeari etzioten muziñik egiten.

Bat-bateko bertsoak, bertsolariak alkarrekiñ jolas egiteko eta entzuten zeudenak alaitzeko zirala batez ere esan diteke.

Azken juizioari, konfesioari eta orrelako gai serioei buruz egindako bertsoak ez dirudite sagardotegian botatzeko oso egoki oietakoak. Xalbadorrek ere etzuan grazi aundirik egingo paperean jarritako zenbait bertso tabernan kantatu izan balitu.

Gai sakonak eta garrantzizkoak paperean jarritako bertsoetan kantatzen zituzten leengo bertsolariak, eta guztietakoak izaten ziran: erlijozkoak, gizarteko goraberak, gertaerak, gerrateenak eta abar.

Nere iritzi apalean, bertso-jartzeak asko lagundu dio bat-bateko bertsolaritzari. Bertsolari asko dira beren bertso-gintza bertso-paper eta bertso-liburuei esker ondu dutenak, eta eziñ esan ezer ez diola erakutsi ere. Bertsolaritza gaur dagon maillan egongo ote zan gero, bertso idatzirik izan ez balitz?

Bertsolari askok ez dute bertsorik idatzi nai izaten, eta eskubide oso-osea dute orrela jokatzeko. Baiña zergatik ote da? Meritu gutxio lana dala pentsatzen dutelako, ala, Xalbadorrek zion bezela, idatzitako bertsoak utsik gabeak izan bear lutekelako?

Bestela naiko lana, eta idazteko astirik ez dute-lako ere izan diteke.

Siñeskeriak

ANTZIÑAKO euskaldunak Eguzkia eta Illargia jainkotzat zeuzkatela esatean ez det uste oker aundirik egingo danik. Au gauza ziurtzat daukaten jakintsuak badira beintzat.

Nola Eguzkiak ala Illargiak, euskaldunen bizikeran eragipen aundia izan dutela eta gure aurrekoen mundu artan garrantzi aundiko ardatzak izan zira-la naiko nabarmen ikusten da. Eragipen aren ondarrak badiraute oraindik ere, naiz ta gaur egun oitura zaar edo usuario bezela bakarrik gorde.

Eguzkiari eta Illargiari begirapen aundia ere bazieten euskaldunak, eta begirapen orrek sortuak izango dira zenbait siñeskeri eta esames ere.

Ona emen Eguzkiari dagozkion batzuek:

Kardu bedeinkatua (Eguzki lore ere esan oi zaio) Eguzkiaren irudia da. Sarrerako atean lore oietakoa dagon etxean sorgiñik ez da sartzen. Ezta oiñaztarrik ere. San Juan egunez ukulluko zutabe batean jarri ezkerro, etxeko abereak ez ditu gaitzak jotzen. San Juan egunez, Eguzkiak dantza egiten du egun-sentian. Intzetan oiñutsik ibillaldi bat egiten bade-gu, urte guztian osasun ona izango degu. Elorri zuri eta lizar adartxoak ipiñi bear dira bide-gurutze eta etxeko sarrera eta leioetan, oiñaztarrik sartu ez dediñ. Ate-aurrean lore eta belar batzuek zabaldu.

San Juan aurreko gauean, etxe-aurre eta bide gurutzetan suak egiñ. Su auetan eskutada bat edo beste belar piztu eta soroetara eramán, uzta onak izan ditezen.

Illargiak ere baditu berari dagozkionak. Badakigu Illargiak lau gorabera edo aldi dituala. Nekazarien ustez, aldi oiek zer ikusi aundia dute zenbait lan egiteko, aziak ereiteko, landareak aldatzeko eta abar. Txerria iltzeko ere Illargia zertan dagon oso kontuan eduki oi da gure baserrietan. Ardiei buztanak mozteko eta ille-mozketak egiteko ere, Illargialdiak zer ikusia badutela uste da. Gizakientzat ilberan baiño ilgoran iltzea obe dala uste dutenak badira, ortarako edozeiñ garai ere ez da oso ona izango baiña...

Oitura auetako asko siñeskeri utsak izango dira. Siñeskeriak, esanak, sorginkeriak edo nai degun bezela, baiña bat beintzat bada egi-egia, eta orri buruz dakidana esan nai nuke.

Askotan uste izaten degu, zuaitza noiznai bota arren zura berdiña ateratzen dala, baiña ez da zuaitz guztiakiñ orrela gertatzen. Altzarekiñ ez beintzat.

Altza, Maiatzeko ilberrian bota bear da bere zurarekiñ ezer egiñ nai badegu. Illargi-aldi ontan—Maiatzeko ilberrian alegia—botatako altzaren egurra, ariña, gogorra, zimela eta zekena izaten da. Kostatzen da ari aizkora sartzea, igartzen danean. Garai ortatik kanpo botatako altz-egurrak, berriz, ezerik dagon artean gaztak ontzeko kea egiteko beste ezertarako ez du balio izaten.

Zenbait berri

EGUNA joan eta eguna etorri, era guzietako berriak jakiteko aukera izaten degu. Berri batzuek, asko ez, oso alaiak izaten dira. Beste batzuek illunak, goibelduta uzten gaituzten oietakoak.

Izaten dira bi alderdi dituzten berriak ere, eta alderdi illuna ikusten diegunean, bada ez bada ere, alderdi argirik daukaten ondo begiratu bear genieke berri guziaz. Ala egin ezean gure bizi guzia gizatxartuta igarotzeko arrixkoan jartzen gera.

Orain urte batzuek biriketako gaitzak berebiziko pikardiak egiten zituzten gure artean. Pulmonia arrapatu ezkerro etzan giro izaten eta tisiko sartu ezkerro etzan eskaporik.

Penizilina arkitu zala berria zabaldu zanean ez giñan asarre. Xomorro edo mikrobioai eguraldi gorria etorri zitzaien orduantxe, eta beste mundura joan bearreko asko oraindik emen baldin bagaude, pulmoniari eta tisisari eskerrak. Jakintsuak gaitz oien kontrako erremedio billa zebiltzala egin zuten penizilinarekin topo, eta pulmonia eta orrelakorik izan ez balitz penizilinarik etzan izango.

Lengo batean nere lagun bati kotxea ostu nai izan omen zioten. Dirudienez, besteen gauzen zale danen bat asi zan kotxe ori irikitzen, eta uste etzuan zakurrak zaunka egin zion. Orra adar, sirena edo dalako trepetxu oien bearra.

Pentsatu ere egin nuan: Lapurrik gabe ere biziko giñake ba. A zer pakea izango genduken. Eta alaxe dirudi, baiña zer gertatuko ote litzake gauetik goize-ra lapur guziak izkutatuko balira?

Sirenak egiten dituzten langilleak lanik gabe lirake, eta tresna oiek kotxeei ezartzen dietenak zer esanik ez. Orrelakoak saltzen dituzten dendariak ere ez luteke mesede aundirik izango. Orain bearrekoak diran ate asko eta asko ere alperrik izango lirake, eta makiñabat arotz eta burnizko ate eta itxiturak egiten aritzen diran langille asko zer egiñik gabe geratuko lirake. Sarrailla eta orrelakoak egiten diran fabrikak ere izango luteke jipoi ederra.

Epaille, lege-gizon, oien idazkari, gizon armadun eta abarren erdiak ez luteke lanik izango. Eta zenbat luzatu ote liteke gai au, ariari tira egiten asi ezkerok? Ea, penizilina arkitzeko pulmonia bezela, lapurrak ere bearrekoak diran batzuek ogia jan dezaten? Polita izango litzake...

Badira bildurra ematen duten berriak ere. Ona emen oietako bat: Colombian drogaren sal-erosketa libre utziko ote dan zurrumurruak dira. Amerikako nazio askok bezela, Colombiak ere zor aundiak omen dauzka. Artzekodunak baldintza estuak ipintzen eta zorpetik irten ezin. Biziko badira dirua inguratu bear nolabait.

Orra bi alderdiak txarrak dituan berri bat. Gaitza txarra, eta erremedioa okerragoa oraindik.

Pakea eskatu oi degun egunak datozkigu. Pakerik izan ote diteke zuzentasunik gabe?

Eguberri on, irakurle.

Urte berria

URTE bat geiago joan zaigu. Aldi bat bukatu eta bestea asi, onela dijoa mundua.

Aldebatera, badirudi aldatu ere ez dala egiten, baiña gauza bizi guziak bezela ez ditu danak berdiñak. Gizonaren aroen aldean luzeak ditu ordea, eta asko ta asko antzeman gabe pasatzen zaizkigu. Ez ote da gizonok muga batzuek gainditu ez ditugulako?

Joan dan urtean beintzat betiko barrutian ibilli gera larrean. Sarritan gertatu izan zaigun bezela, alkarren artean konpondu eziña sortu zitzaigun.

Baiña konpondu eziñ ori etzuan erriak sortu. Gizon bezela ditugun akatsak sortu zuten, eta ez beekoak eta ez goikoak —eta auena da penagarriena— ez genduan asmatu akats oiekin alkarrizketarako bidea egiten. Danak goian nai, baiña goian danentzat tokirik ez. Besteak kenduta an gelditu ziranak ere koloka geratu ziran.

Gora-bera oiek zirala ta etzirala, egin ziran auteskundeak. Bakoitzak gure kutunak nagusitzea nai genduan, baiña etzan ala gertatu, eta ortara dauden indarrak danon artean banatu bearko dira. Ez da izango iñor indar geiegirekin geratu bildurrik. Gobernua moldatuko bada alkarrizketari ekin bear.

Aukeratu ditugun gidari oiek badaukate zeri eldua datorkigun urte ontan. Ez jakiñak ez dira eta gertatu danarekin eskarmentatuko al ziran.

Urtearen asierako egunetan urte berriari eta iru Erregeei au eta ori eskatzen jardun oi gera. Oitura alaxe da, eta gauz askoren premian gaudenez zerbait nai ere bai, errez erortzen gera axalkeri ontara. Au egiteari oso utzi nai ez badiogu ere, obe izango degu oiñak lurrean ditugula arazoak konpontzen astea, geuk konpondu ezean beste iñork ez baidizkigu konponduko.

Orrela, Euskalerrria gobernatzeko moduko erri biurtu bear dala dioteneri, erriak ontzat artuta dauzkan legeak errespetatzeko eskatu bear genieke. Diran bezela, osorik, legeak aitortzen dituzten agin-pide, jabe-aldaketa eta guzi. Gaurko gizona ez da orain eun urtekoa bezelakoa, eta errespetatua izan nai duanak, bestea errespetatzetik asi bear du. Ez almenez menderatu nairik eta bere eskubideak nundik murriztuko. Ortik pakera bukatzen ez dan bidea dago.

Aukeratu ditugun ordezkariet beste au ere eskatu bear genieke: gaztediari begira gobernatzeko. Arazo asko eta estuak ikusiko dituzte noski, baiña gaztedia kezkatu dago. Irtenbiderik ez du ikusten.

Beste iñork ere ez, baiña batez ere gaztediak itzaldi, eskeintza eta orrelakoekin ez dauka ezer. Egintzak bear ditu, eta biar baiño gaur obe. Zuzentasun egarri da, eta dirua lana sortzeko erabiliko duten erabaki egokiak ikusi nai ditu. Gazteak saltakorrak dirala esanarekin ez da ezer aurreratzen. Bideak iriki bear zaizkie.

Itz gutxitan esanda, aukeratu ditugun ordezkariak alderdien gaiñetik Euskalerrriaren ona jarrita gobernatzeko duan Gobernu bat osatzeko al digute.

Oraintxe dute aukera.

Zuzentasuna

NOLA Gabonetan ala Urteberritan irratiz edo telebistaz guri itzegiteko aukera izan duten danak, iru gauz opa dizkigutela esan digute: maitasuna, pakea eta zoriona. Beren eginkizuna betetze-koan danak ao batez itzegiten zutela esan zitezkean. Guganako azaldu duten borondate ona eskertzekoa da benetan.

Bada ordea beste birtute bat gizartean oso pre-mizkoa eta gutxitan aitatzen dana: zuzentasuna edo justizia, nai dezuten bezela. Leen esandako izlari oiek ez det uste aitatu dutenik. Ala ez bada, barkatuko al didate, baiña ez naiz gogoratzen entzun detanik.

Egunkari batek dionez, politikari, artista, intelektua-
l eta kirolari, amazapi gizonez osatutako talde bati galdeketa edo enkuesta bat egin zaio. Amazazpi oietatik bat bakarra izan da justizia aitatu duana. "Pakea eta justizia besterik ez det eskatzen, au beteko balitz naikoa litzake". Zer esaten digu onek?

Aoak biotzaren ugaritasunez itzegiten omen du. Beraz, eta iñori miñ emateko asmorik eta gutxiagorik gabe, amazapi gizonetatik bat izan da biotzak justizia eskatzera bultz egin diona.

Orain aterako detan kontu au estuegia edo zorrotzegia izan diteke, eta baditeke oso juxtu-juxtu ez izatea ere, baiña bateko enkuestak eta besteko zenba-

kiak agintzen duten garai ontan bizi geran ezkerro, kontu au ateratzeko zirikalidiari ezin eutsi izan diot.

Amazazpi gizonetatik justizia eskatu duana bat izan bada, eta danak eginkizun desperdiñetan jarduten diranak izanik, zenbakiak duten izkuntz otzean esan genezake eun gizonetatik 5,88 bakarrik dirala gure premien goi-maillan justizia jartzen dutenak. Zorrotzago esanda, euneko 5,88 gizon edo gizaki besterik ez dirala zuzentasun-egarri, itxurantzean bizi diranetan.

Ez nuke esan nai maitasuna, pakea eta zoriona garrantzi gutxiko gauzak diranik. Ez orixe, baiña bes-teen ona ikusi ezin degun garai auetan, iñoren zorigaitzak errukirik sortzen ez digun egun auetan, eta premian dagonari eskua luzatzeko uxkur eta zur gerralarik, maitasuna aitatzeak fariseokeria ere badirudi.

Aginpide apur baten jabe egiten bagera, eta indarraren jabe zer esanik ez, beekoei euren esku-bideak ukatzea besterik ez degu pentsatzen. Gurearekin irtetzeagatik, gezur eta abar edozeiñi bere izen ona kentzeko kupirarik ez degu. Ezta gizona nolainai tratatzeko ere. Eta pakea nai degula?

Zuzenak bagiña, justuak bagiña, ez genduke orrelakorik egingo. Esan gabe utzi ditudan gure zenbait petralkerik ere ez lukete baztarretan egiten duten aiña kalte egingo. Orduan izango genduke zoriona. Berekasa sortuko litzake eta ez genduke eskatu bearrik eta iñora billa joan bearrik izango.

Ortarako zuzentasuna, justizia bear ordea. Bakoitzari berea eman nai ez dionak, naiz politikan eta naiz gizarteko artu-emanetan, ez du maitasunik. Ez da pakezale.

Ez det sermoirik egin, gertatzen dana esan baizik.

Oitura aldaketa

IKUSTEKOA da aurrerapenak sortu alean gure oiturak nola aldatzen diran. Aldaketa auetako bat, denborari zumu geiago ateratzea edo atera bearra da.

Garai batean txoriakin batera jaiki eta txoriakin batera lotaratu oi giñan. Esate baterako, eguzkiaren argia besterik etzan, eta arekin moldatu bear izaten genduan. Ezer egingo badegu argia nola bearrerekoa degun, orain baiña leen egun laburragoak zirala ematen zuan, baiña ala ere astiroago bizi giñan. Aurrerapenen eragipenak azpikoz gora jirata jarri gaituztela esan diteke.

Onerako? Txarrerako? Nik esan bear banu, onerako esango nuke. Leengo aldean presaka bizi gera, ori bai, baiña askoz etekin geiago eta ohea ateratzen diogu gure bizitzari. Uste ez genduan erosotasunak dauzkagu gure esku. Gauza berriak ikastea dala, toki berriak ezagutzea dala eta abar, ametsetan ere pentsatzen ez genduan atsegiña pranko badago gaur guretzat.

Eta zer esan osasunari buruz? Garai batean sendatzerik etzegon gaitzak, gaur ez digute kezkarik txikienik ere sortzen. Badira, bai, beste mundura eramaten gaituzten oietakoak, eta izango dira aurrera ere. Orri ez dago alde egiterik. Emen ez da iñor azitarako gelditzen, baiña mundu ontan gabil-tzan artean, gure aurrekoen aldean gozatu ederrak artzen ditugula eziñ ukatuko degu beintzat.

Baiña kutizi batzuek beteko badira beste batzuei utzi bearra ere gertatu izan da, eta ez dakit jateko erarekin ez ote zaigun gertatu auxe.

Gaurko etxeakoandreak ez daukate suari begira egoterik. Gure baserrietan labesua egiten zan egunean eta ondorengoetan ere jaten genduan bezelako ogia noizean bein jaten degu, eta ez nunai. Udaberri aldera jaten degun artesnearekin egindako mamia ere ez da leenagokoaren berdiña. Orain ez baitago sutan goriturako kare-arriarekin esnari erre-gusto berezi ura emateko astirik.

Leenago, al zanean bixigua eta ezin zanean txi-txarroa, txingar gaiñean erreta jan oi genduan, beatzak ezpaiñetan garbituaz. Orduko sukalde zaarrai etzitzaien ajolik izaten ke puskabategatik. Gure etxeetan agintzen dutenai esan bear orain bixigua ala erretzeko... Ortarako labea dala esango dute. Arrazoiarekin gaiñera. Artzai bat ezagutu nuan babarrunak maneatzeko esku aparta zuana. Ark zionez, lurrezko eltzean egosi bear dira babarrunak, eta beeko suan. Aurretik bakarrik eduki dezatela sua, eta naastu bear diranean, kirtenetik elduta lapikoa astinduaz. Kutxare eta orrelakorik sartu gabe naastu bear dira babarrunak..

Lukainka mutur bat edo beste eta txerri-saieski pixkabat ere ez dira gaizki etorriko babarrun artean. Urdai zuri utsa baiño obeto seguru asko.

Nik ez dakit nola moldatzen zan gure artzaia, baiña etzan nolanaiko babarrun-maixua.

Aurrerapenak ere, beste gauz askok bezelaxe, beren alde on eta alderantzia, baiña euskaldunok moko fiñekoak gera, eta jate-kontuan lezioak eman-go ditugula oraindik esango nuke.

Ipar Amerikako kontuak

IPAR Amerikan izan zan bati lurralde ura zer moduzkoa zan edo zer iruditu zitzaion galdetu nion bein.

“An, dana aundia da” erantzun zidan. “Kotxeak, asko eta aundiak. Kaleak zuzenak luzeak eta oso zabalak. Kamiño, autopista eta orrelakoak zer esanik ez. Uri aundi batzuetan izugarritzko etxeak badira, danok dakigunez. Esan oi dan bezela, zerua urratzeraiño oietakoak... Bear ere bai uri aietan bizi dan jendetza katonatuko baldinbada. Dendak, asko eta aundiak. Badira gau eta egun irikita egoten diranak ere, eta batek bear duan guztia erosi dezake aietako edozeinetan. Gaixo-etxe eta klinika aundiak daude. Ikastetxe Nagusiak ugari eta aundiak eta mundu guztian sonatuak. Iker-lan edo inbestigazioan izugarritzko dirutzak erabiltzen dira”.

“Oso laterri aundia izanik, toki batzuetatik besteetara bide-sail aundiak daude eta egazkiña ikusten da erruz. Ango trenak ere ez dute emengoen inbiririk. Bizkorrak eta orduan ibiltzen diranak. Ipar Amerikan dana da aundia”.

Gu baiño aurreratuago bizi da angoo jendea. Emen oraindik gertatzen ez diran gauzak gertatzen dira. Ango legeak ere emengoak baiño aurrerakoioak dirala esan diteke. Ez dira ordea oso-osoak. Badituzte utsarteak, ikusten danez.

Egun auetan, auzitegi batetik zintzilik bezela omen daude ipar-amerikatarrak, sekula sortu ez dan bezelako auzi bat dala ta ez dala.

Senar-emazte batzuek ondorengo bat nai, baiña ezin omen zuten lortu, emazteari osasunak laguntzen etziolako. Zer egingo, eta neskame bat artzen den bezela, emakume bat artu zuten, erak egin ezin zuten lana diru-truke egin zezan itun bat izenpetzen zutelarik. Ortarako dauden aurrerapenen bitartez, leen esandako senarraren azia emakume onen sabelean erein zuten eta aurdun gelditu zan. Denborak bete zitzaizkionean aurtxo bat egin zuan.

Orain dira komeriak. Bere sabeleko frutua ikusi duanean, emakume orrek allegatu du aurra berea dala eta ez duala emango. Bear bezelako ama batek nola saldu, izan ere, bere biotzaren puxka dan aurra? Lan ortarako artu zuten senar-emazteei euren dirua biurtu naiago du aurra eman baiño.

Gauzak onela, epaitegira jo dute, baiña Ipar Amerikan ez omen dago oraindik beintzat arazo au konpondu dezaken legerik. An daude orain danak epailleak zer erabaki artuko zai. Auzi au portunatu zaion epailleak badu galtzak bete lan. Uste danez illabete batzuek joango dira erabakia artzerako. Izenpetutako itunak garrantzi berezia omen du Ipar Amerikan, eta orri bere artan eutsi nai diote. Au alde batetik; eta bestetik, aurra nai zuten senar-emazteei arrazoi eman ezkeru, diru-truke aurra egitera jarriko liraken emakumeak erruz izango omen lirake. Eta orduan zer?

Bertsolari batzuei jarri zitzaien gaia datorkit burura: "Kalabaza-landare batek zure baratzen dauzka sustriak, eta alea zure lagun onen baratzen. Norena da kalabaza?"

Negua

BERE garaian etorri zaigu negua aurten ere, bere otz, elur, izotz, aize zakar eta guzti. Une ontan elurra ari da mara-mara. Goitik datozkigun erasoai ez dago beetik ezer egiterik eta artu egin bear, oso bixitari atsegiña ez bada ere. Bearrekoa omen da gaiñera eta ezin arpegi txarrik jarriko diogu, ez degu ezer aurreratuko-ta.

Bazeuden benetako negua noiz etorri bear zuan galdezka zeudenak. Beti toki batean egoteko garai txarretan bizi gera, eta gazte asko ta asko elurra noiz egingo zai zeuden, eskiatzera eta neguari zumua ateratzen zaion lekuetara joateko. Aste bukaera lagun artean eta alai zerbait desberdiña egiñaz pasatu nai, egun pare batean bederik betiko sokatik askatuta. Ez da arritzekoa. Bideetan eta mendian suerte on bat izan dezatela, txangoaldia-
ren ondoren miñik artu gabe etxeratzeko.

Aurrak ere sarri galdetu oi dute elurra noiz egin bear duan. Benetan poztu oi dira elurra ikustean. Zuritasun orrek zerbait apartekoa badu umeak egi-
ten dioten bezelako ongietorria egiteko. Elurretako jolasaldiak gogoratzen nunbait.

Olerkariak-eta, beren loreak bota izan dizkiote neguari. Koadro bikaiñak pintatzeko argitasuna eman izan dio zenbaiti neguak, eta argazkilariak ere egi-
ten dute lan ederrik berari esker. Mendigoizaleak ere ez dituzte berriketako markak egin, beti elurrez eta izo-
tzez estalirik egoten diran mendi tontorretara igoaz.

Negua bearrekoa dala eta aldizka polita ere bai, ez dago ukatzerik. Baditu alderdi onak, eta ez gutxi. Negurik ez balitz, erosotasun asko gabeko udarak izango genituzke, urik ezetik asita. Beraz, gozatu nai badegu sufritu egin bear lendabizi.

Oso gozoak ez diran izen-lagunak ere eman izan dizkiogu neguari: negu beltza, gogorra, gordiña eta abar. Neguaren bi illabete ere gogorki bataiatuak zeuzkaten euskaldun zaarrak: Ilbeltza eta Otsailla. Naikoa esaten dute itz edo izen oiek.

Sudur-zapi batekin bezela aizeak lainoekin iguraztean, Aizkorrik ez du kopeta argia erakusten. Elurra zuri badago ere, negu beltzaren irudi zeatza dala iruditzen zait leiotik begiratuta.

Bizimoduko eginkizunak dirala-ta egunero etxetik irten bearrean gertatzen diranak jakiten dute ondo neguaren berri. Asko dira gaur lanera kotxean joan bear izaten dutenak. Bizikera eroso baten itxura badu ere, nekea eta arrixkoa pranko du orrek, bideak elurak eta izotzak arturik daudenean. Elurretan joan ezinda bide baztarretan gelditzen diran kamioizaleak ere une txarra pranko igaro bear izaten dute. Eskale eta tellaperik ez duten gizarajoak badaukate eguraldi gorria.

Euskaldun arrantzale asko, amasei graduko otzarekin arrapatu omen zituan lengo batean ekaitzaldiak itxasoan. Errez esaten da. Sufritzea zer dan ikasiko zuten lenaz gaiñera. Gure artzaiak eta baserritarak ere esango dute zerbait. Perietan jenero asko eta merke ikusteko itxaropenik ez du ematen aurtengo neguak. Ez al du elurte onek luzaro iraungo.

Bere gogorkeri eta guzti ere, udaberriaren bezpera da negua. Eskerrak orri.

Estalgarriak

ENTZUTEN danez, industri aundi batzuek mol-daketa berrien premian daude zutik iraungo badute, eta ortarako 25.000 edo 30.000 langille lanik gabe geldituko omen dira. Ez omen dago orri aldegerik.

Orrelakoetan oi dan bezela, era askotara itzegin da, batek esan duana besteak ezeztatuaz eta abar. Lenbizi otsa zabaldu, eta zurrumurruak indar geiegi artu ez dezan, beste berri batzuei aize eman eta orrelakoak ere egin dira. Sindikatoak ere orru batzuek atera dituzte, itxurak egiteko edo, eta bateko onelako eta alako arrapatu dituztena, ikasleak sose-atu eziñik daudena eta orrelako estalgarriak gaiñera bota badira ere, opilla eginda dago ikusten danez.

Arazo latza nunaitik begiratuta ere, baiña ipiñi nai izan zaion estalgarriak ematen du zer pentsatua. Ainbeste milla ikasle kaleak betean euren eskakizunak oiukatuaz ikusteak bildurra ematen du. Arrazoi osoa ez dute edukiko bearbada, baiña puskabat badutela ez dago ukatzerik. Ainbeste gazte ikasketak eginda —asko eta asko al duten baiño diru geiago gastatuta— irtenbiderik gabe ikustea, bada ikaratzeko lain. Arro-arro zeuden gobernuak izan dira ikasleen eziñ-egonak koloka jarriak.

Lengo ariari elduaz, ainbeste langille kalean geratu bearra ez da txantxa. Beste erremediorik ez omen dago eta datorrenari arpegi eman bearra izango du batek baiño geiagok. Industrietan egin bear diran berritzeak, familietan negarrik sortu gabe egingo al dira. Ori lortu duten enpresak izan dira, egia esan bear bada. Ez dira danetan gauzak nolana egin.

Kontua da, egoera ortara iritxi dirala gauzak, eta orain irtenbideak billatu bear. Zergatik erortze au? Enpresak egiten dutena saldu ezin dalako, zalan-zik gabe, baiña galdera geiago ere egin ditezke.

Zuzendariak ez al zuten ikusten zer zetorren? Ez al zegon gauz batzuek egiteari utzi eta beste batzuek egiterik? Ez al zegon bere garaian makina obeak jartzerik, orain jarri bear diran bezela? Zeiñen esku zegon erabakiak artzeko almena? Dirua errez irabazi eta errez gastatu egiten zan urteak izan ziran. Egia da, baiña...

Langille bat bazan oso egonarri gutxikoa. Lan bat eman edo bestea eman, toki batean ipiñi edo bestean ipiñi, etzan arekin burutuko zuan ankabikorik.

Egun batean, langilleen buru egiten zuanak deitu eta esan zion: “Biar ez daukazu lana egin bearrrik. Zer tallerretan zer lan egiten dan ikusi ezazu, eta etzi egongo gera”.

Ala, deitu zion, eta: “Zer moduz atzoko ortan?” “Ba, fabrika guztia korritu nuan —erantzun zion—, baiña emen ez dago neri gustatzen zaidan lanik”.

Bakoitzak bere astoari arre esaten dio. Oso geurea degu au. Ustez danok joaten gera arrazoi-bidetik, nola goikoak ala beekoak, baiña askotan arrazoa erdiko bidean egon izan da.

Tabakoa

CRISTÓBAL Colón eta bere lagunak Amerikara iritxi ziranean, ango indioak belar batzuek erre eta ateratzen zuten kea artzen ikusi zituzten. Kañabera batzuen bidez kea aotik edo sudur-zulotik irentsi egiten zuten. Kea ateratzeko erretzen zuten belarra, tabakoa zan.

Tabakoa erretzeko edo fumatzeko oitura bereala zan Europan, eta emendik mundu guztira zabaldu zala esan ditekete. Gaur ez dakit tabakoa ezagutzen ez dan baztarririk egongo dan iñun.

Amerikatik tabakoa ekarri zuten españiar aiek etzekiten asko zer egiten zuten. Indioai begira egon ziran denboran palmera-itzal eder batean lo egon izan balira, alde ederra genduan. Orain egiten dan aiña eztul etzan egingo. Goizeko jaikiera atsegiña goa izango zan makiñabatentzat.

Utsa litzake tabakoa erretzeak eztula egiñ eraztea beste ondoren txarrik ez balu. Ni ezin asiko naiz tabakoak zenbat gai edo sustantzi dituan esaten. Bat bada ordea sarritan aitutzen dana: nikotina. Izen ori ez dakian asko ez da izango.

Sendagilleak diotenez, nikotinak kalte aundiak egiten dizkio gorputzari. Zaiñak estutu egiten omen ditu eta biotzarentzat kaltegarria omen da. Biriketako eta eztarriko minbiziak ere zer ikusi aundia omen du tabakoa erretzearekin. Urtean milloi bat eriotzatik gora egiten omen ditu tabakoak. Geiago gabe ez da kalte gutxi.

Marañón sendagille jakintsua eta ospetsuak esan zuanez, tabakoa da españiarrak Amerikatik ekarri zuten asmakizun edo inbenturik negargarriena.

Orain zortzi-bederatzi urte, erretzaille geienak gizonetzkoak omen ziran, baiña orain, emakume erretzailleak gizonetzkoak aiña edo geiago omen dira. Eskubide berdiña dutela esango dute. Bai, baiña bai zer ikusi geiago ere. Aurdun dagon emakumeak kalte asko egin omen dezaioke sabelean daraman aurrari tabakoa erretzearekin. Bularra ematean, esnearekin batean nikotina ematen omen dio azkenik, eta tabako-gustodun esnea. Bada zerbait pentsatu erazteko aiña.

Tabakoa erretzeak alako arrera izan zuan, zenbait Estadu bereala konturatu ziran irabazpide ona izango zala, eta eurentzat bakarrik artu zuten tabakoaren salerosketa. Ona emen agindu pekoen osasunaren kontura dirua irabazteko modua.

Tabakoa erretzeko oiturak bereala menderatzen du gizona, eta ez nolanai menderatu ere. Orain 300 bat urte edo, batzuen geiegikeria ikusirik, Aita Santuak debekatu egin zien eliz-gizonei tabakoa erretzea. Egon bear zuan zerbaiten premia. Ederki emango zuten *Oremus* bakoitzeko zigarroari tirazo bat egiñez meza ematen.

Zailla da tabakoari uztea, baiña probatu ez duanak ez daki orrek gorputzari nolako mesedea egiten dion. Eskerrak garaiz utzi nionari, bestela negu gordiñeko egun beltz auetan, irakurtzen ari naizen liburuaren orrialde bakoitzeko zigarro bat erre, eta giro izango zan urrengo goizean. Orain ez daukat sikira nere buruarekin errietan egin bearrik. Ezta kezketan eta tripajaten egon bearrik ere.

Orañaldiko aizeak

GAZTEENTZAT lanik ezak berebiziko arazo larriak sortu ditu Europako zenbait nazio-tan: berrogeita amar urtetik gorako langilleak jubilatatu bearra eta jokabide onek langille auentzat dakarzkian ondorioak.

Nazio danetan ez dira neurri berdiñak artzen ari, baiña batzuetan, esate baterako Alemanian, Frantzia, Italian eta Inglaterran dituzten asmoak alkarren antzekoak dira. Dirua eskeñiaz eta abar, langille edadetuak oraiñ artean baiño lenago lantegietatik kentzea iritxi nai da.

Au dala ta ez dala, era guztietako iritziak entzuten dira. Batzuek diotenez, langille askori, nai badute eta ez badute, beartsu izatera bultz egitea litzake. Danok dakigunez, zaarsaria lanarena baiño urriagoa izaten da. Langilleak berak erabaki bear omen du lanari noiz edo zenbat urterekin utzi, beraz; diru-irabazia urritzeaz gaiñera eskubide bat kentzea litzake au, eta bereizte itxusi bat.

Orrezaz aparte garaia baiño len lan egiteari uztea ez omen da ona osasunerako.

Oiek guztiak orrela izatea, naiz eta kaltegarri izan, ez litzake ainbeste izango neurri oiek artzearekin gazteei lana ematea balegoke, baiña ez det uste ala gertatuko litzaken ziurtasun aundirik dagonik.

Onelakoxe aizeak dabiltz European oraiñaldian. Gu ere European sartuak gaude eta baditeke aize oiek onuntzaiño irixtea.

Bat eta bi baiño geiago izango dira onuzkero berri auen jabe diranak eta erretiroa artzeko pozik daudenak. Azkarregi ez ibiltzeko esango nieke nik orrelakoai.

Nagusi zorrotza dutelako edo lantokiko karguduna petral samarra dalako, goizean goiz jaikita lanera joatea astun egiten zaietenak izango dira. "Noiz arrapatuko ote diagu askatasun pixkabat?", esango dute.

Ibilli zaitezte argi orrelakoak. Ez pentsatu etxean zeïñek agindurik izango ez dezutenik.

Berandu antzean jaikitzen bazerate, izango da norbait oea astindu bear duala, logela garbitu bear duala, eta ez dakit zer egin bear duala esango dizutena, eta ez beti irriparrez. Leioa zabaldua eguzkia erakutsiko dizute bein baiño geiagotan. Estimatzekoa da au alde batera, baiña ez du beti atsegin ematen. Zuek ez jarri arpegi txarrik, etzaizute komeni-ta.

Berandu antzean etxeratzen bazerate nun edo zertan egon zeraten galdetuko dizute txorrotx-txorrotx, baiña etxean denbora luzean dagon gizonak traba egiten du. Zuek pentsatu nola asmatu.

Udaran eta eguraldi onarekin perretxiku billa joango zerate besterik ez bada, baiña neguan elurra ta kaskabarra ari danean? Udazkenean eizera joateak ere izaten ditu bere goraberak, baiña egoaizea oso osasungarria da eta eutsi oitura onai.

Au irakurtzen badezute, ez uste izan, arren, jubilatzeak alderdi danak beltzak dituanik. Batera eta bestera ibillaldiak egiteko aukera on eta merkeak izaten dira. Artu zuen emaztetxoak eta segi. Saiatu ondo portatzen. Emazteekikoa egiten badezute, dana egiña daukazute.

Betiko kanta

GARAI batean neska gazteak lenbailen ezkondu nai izaten zuten. Orduko emakumeen pentsatzeko era uraxe zan. Bizimoduak ala eskatzen nunbait.

Joan ziran garai aiek ere. Emakumezkoak eta gizonezkoak animaz berdiñak zirala eta orrelakoak esaten ziran, baiña orain begiratuta ez du ematen gizarteak oso sinisten zituanik. Emakumea gizonaren osagarri bat bezela ikusten zan eta iritzi onen arabera bizitzea beartua zegon. Gaur ez. Gaur bere buruaren jabe ikusten da emakumea, eta gizonezkoak dauzkan eskubide guztiak dauzkala kontu.

Edozein ikasketa egiteko eragozpenik ez du, eta orrek berekasa bizitzeko almena ematen dio emakumeari. Bizitzeko bear duana eskuratzeko ez dauka gizonezkoaren mendeko izan bearrik. Bere bizimodua erabakitzeko premi estu ura ez du ikusten. Orregatik, oraingo neskatxak lenagokoak baiña beranduago ezkontzen dira. Zaldizkorik ez baldin bazan oiñezkoari lenbailen eldu bearreko estuasunean ez dira ikusten zorionez.

Adin nagusira iritxi etziralako, ezkonduko baziran aitaren baimena bear izaten zuten andregai gaztetxo aien denboran ez gaude. Amazazpi-emezortzi urterekin ez, baizik ogeita bostekin eta orrela ezkontzen dira gaur neskatxak. Baita ogeitamar bete ondoren ere, eta bitartean ondo pentsatuta. Aukera ona egin

ezean ezkontza austeko ere gerozta erreztasun geiago dagola esan diteke, batez ere dirudunentzat, baiña onek ere ez ditu ezkontzeko berotzen neska gazteak.

Jokabide guztiak bezela, gaurko emakumezkoenak ere baditu bere ondorioak. Oiñordekoak ipiñi nai dituztenak neurriak garaiz artzea bezelakorik ez dute, eta ortarako sasoiko diran artean lanari eltzea dute onena. Aspaldiko esaera da, zaartuta geroko ume-azitzeak bi aldiz neke geiago duala. Mundu ontan danok gera zorion-egarri. Danok nai degu bizi-modu on eta eroso bat, eta pertsona elduak bizitza korapillatu baiño len gauzak bi aldiz pentsatzen ditu.

Oraindik egun gutxi irakurri degunez, azkeneko ogeitabost urte auetan jaiotzak euneko ogeitamar urritu omen dira European. Zenbait giza-maillatan berebiziko kezkek nabaitzen dira au dala ta ez dala, baiña erremedio billa iñork ipurdia busti duan otsik ez da. Besteen jokabidearekin urduritzen gera gu. Betiko kanta.

Maitasuna, neke eta ezbearrak pazientzian eramatea, zoriona diruarekin erosten ez dana eta onelakoak edo onelako erakutsiak ez dute indarrrik gaur. Lanerako besorik gabe gelditu-bildur diranak oraiñarteko bideei utzita beste batzuetatik jo bearko dute. Eguneroko ogia irabazi ezin dan tokian maitasunak ez du bear bezelako fruturik ematen. Pobrezak eta eten gabeko premiak errez menderatzen dute maitasuna.

Esan bezela, egun gutxi dirala adierazi zaigunez, zaartzen ari dan Europa onek gogor deadar egin omen du aur geiagoren eske. Emendik urte batzuetara munduan eragipen gutxi izango duan bildurra du.

Arazo oiek danak ez ote dira danon artean konpondu bearrekoak, beti batzuen bizkarretara bota gabe?

Nagusiaren txakurra

ORAINDIK urte asko ez dirala, Goierri alde ontako baserritar asko maizterrak ziran. Erri guztietan izaten zan Donostian edo beste nunbait bizi zan jaunen baten baserri mordoska. Orrelakoetan bizi ziran baserritarrak naiko lanekin ikusten ziran askotan. Baserri itxurazko samarra baldin bazan, an nunbait, baiña lur gutxikoak edo basoz ondo jantzi gabeak baldin baziran, maizterraren izerdiak urteko errentak eramaten zituan. Dirua eskas izaten zan, eta baserritar askok garitan ordaintzen zuten errenta.

Gariaz gaiñera, kapoi pare bat edo beste ere azi bear izaten zuten nagusiarentzat, ez etxean zeïnek janik etzegolako, baiña orduan alaxe izaten zan, eta, zaildu, saiatu eta urteroko bearkizunari erantzun egin bear.

Nagusiak ondo jakiten zuten maizterren berri. Goiko maillan dagonak izaten du zeïnek losintxa egiña eta kontuak nork eramana. Jauntxoak nai bezelako oiturak etzituzten maizterrak entzuten zuten erretolika ederrik. Etziran euren buruen jabe eta ezin lasai bizi. Auteskundeak irixten ziranean ere kezka eta naigabea pranko sortzen zan maizterren familietan. Mendean bizitzea zer zan jakiten zuten.

Baziran nagusi jatorrak ere. Nagusi zirala jakiñik, errespeto aiña bildur sartzen bazuten ere, baziran zuzenak eta biotz onekoak. Maizterrak geiegi

estutu gabe bizimodua ateratzeko moduan utzita beste mundura joandakoak izan ziran. Dozena pare bat aritz edo pago salduta artutako diruarekin baserria bere lur eta guzti erosi zutenak etziran ain gaizki atera, testamentua egitean nagusiak artarako bideak zabalik utzi zitualako.

Otsa zabaldu zanez, nagusi auetako bat Zurbano izan zan. Seguran zeukan bere jauregia, eta andik zaintzen zituan bere ondasunak eta maizterrak.

Egun batean, aietako bat nagusiarengana joan bearrean gertatu zan. Oso kezkatu rik eta goibel arkitu zuan Zurbano jauna. “Txakurra daukat gaxorik —esan zion maizterrari— eta ez du ezer jaten. Arategian dan aragirik onena ematen diot, eta ez dio begiratu ere egiten”.

“Nik etzeukat ba orrelakorik”, pentsatu zuan maizterrak. Baiña nork esan orrelakorik nagusi jaunari? Apal itzegiñez: “Ez bedi naigabetu, nik sendatuko det txakurra-ta. Nere etxera eramango det, eta emendik illabetera ikusiko du nolako saltoak egiten ditun”.

Ala, eraman zuan txakur ori, eta iru egunean mokadurik eman gabe eduki zuan, ondo gosetu arte. Gero, Zurbanok txakurrarentzat bialtzen zion aragia berak jan, eta talo pixkabat ematen zion aldian bein txakurrari. Laister zan lirainduta eta salto egiten ikasita. Andik illabetera joan zan nagusia eta: “Zer dio nere txakurrak?” “Zearo sendatu da”, erantzun zion maizterrak. Deitu zion txakurrari. Baita azkar etorri ere. Talo zati bat erakutsi zion eskuan gora jasota, eta txakurrak salto eginda arrapatu eta egundoko azkarrena irentsi zuan.

Maizterrak bazekian, gizarajoak, goseak nolako mirariak egiten dituan.

Arrantzaleak

“**E**PAILLA aizetsu eta Jorrailla euritsu, Orri-lla loretsu”, dio esaerak. Epaila etorri zaigu, baiña ez digu aizerik ekarri oraindik, euria eta lanbroa baizik. Euri jasa batzuen ondoren eguzkia aterako balitz ere gaitzerdi litzake, baiña ez diogu ortarako asmorik ikusten. Aspertzen ez dan baiña aspergarri dan lanbroa eten gabe. Jantzietan erantsita gelditzen dan lanbro gogaikarri oietakoa.

Martxoko eguzkiak buruan zuloa egiten zualata, eguzkitan geldi ez egoteko esaten ziguten txikiak giñanean. Egun auetan ez dago orren bildurrik. Il guztia joaterako aldatuko al da giro au, bestela neguan sortutako erdoiak sustraiak egingo ditugure gorputzetan urte guztirako.

Euria egiten duan guztietan atertzen du eta ez dezagun itxaropenik galdu. Orain ez duala udaberri-rik egiten eta orrelakoak esaten baditugu ere, noizean bein eguzki epela artzeko aukera izango degu.

Etxetik irtetzeko gogorik ematen ez duten egun auetan, arrantzaleak datozkit gogora. Antxo-arrantz-aldia egun auetan asten da, berriak diranez. Itxasotik urruti, mendi magaletan bizi geranori bear bezela oartu gabe edo arin joaten bazaigu ere, kostaldeko errietan badu garrantzirik asko berri onek. Baita urte sasoi onek ere. Itxas ertzeko erri zoragarrietan eta aietako kaietan izango da zer

esana eta zer egiña. Famili asko dira Euskalerrian antxoa-arrantzarekin zer ikusia dutenak. Ea urte on bat izaten duten gure arrantzaleak.

Arrantz-aldiari asiera emateko prestaketak burutuak omen daude. Barku eta gaiñontzeko guztiak gertu, Garagarrillaren azkenera arte iraungo duan lanketari eltzeko.

Gure mundu au beti aldatzen ari da, eta antxoaren izateko eran eta toki-aldatzeko oituran ere izan dira aldaketak, ikusten danez. Gai ontan jakitun diranak ala diote beintzat, eta arraiak oiturak aldatzen dituztenean, arrantzaleak ere aldatu egin bear, ezer egingo badute. Aldaketa oiek arrantzaleentzat onurakorrak diran ala ez, or dago gorabera.

Arrapatu dan antxoarik geiena orain 22 urte arrapatu omen zan, 80.000 tonelada ain zuzen, baiña arrezkero gorabera aundiak izan dira. 5.000 toneladaz azpitik gelditutako arrantz-aldiak izan dira eta 30.000 eta geiagokoak ere bai, orain lau eta iru urte. Joan dan urtean, berriz, Euskalerriko arrantzaleak arrapatuak 6.000 toneladatara etziran iritxi. Orra, nolako goraberak.

Beste aldaketa batzuek ere izan dira azkenaldi ontan. Leenago etzan al zan guztia arrapatzeko eragozpenik. Orain, ordea, itxasoan ere mugak daude, eta muga oietan errenditzen ez danak izaten du zer ordaindua. Geiegi irabazi ez dezaten izango da... Leenago baiño urrutirago joan bear izaten dute orain arrantzaleak antxoa billa. Goizean irten eta illunabarrean etxeratzea eziñezko biurtu zaiete.

Egunez lanean nekatutako gizonarentzat gauean etxeko gozotasuna ederra da, baiña arrantzaleentzat orixe ere ez askotan.

Mirariak

SARRITAN entzuten degu auxe: “Orain ez da miraririk gertatzen”. Izan ere, edozein egunkari edo aldizkari irakurtzen asten bagera, kezka ematen duten berriak eta gertakizun illunak besterik ez degu arkituko. Baiña ez digute ikararik eragiten. Aurrera egiteko moduko bide argirik ez da ia ikusten, eta gure mundu onek gutxiena uste degunean baztarra jota gelditu bear duala dirudi. Dana koloka dagola esan diteke gaiñera, eta alakoren batean erori eta azpian arrapatu bear gaitula. Zerbait gogorra etorri bear dula ere esaten degu batzutan, baiña oraindik emen gabiltz beintzat, eta mundua ere or dabil beti bezela jiraka lengo lekuan. Zutik eta bizirik eusten digun zerbait badago.

Baiña gaurko gizartean ez da atsegin geiegi nabaitzen. “Gustoa galdu degu —esaten zidan lengoan nere lagun batek— eta onela ezin miraririk egin”. Arrazoi zuala uste det. Gerorako zer esanik gabe jokatzeko bear dan arreta ura ez da inñundik agiri. Izketarako, lanerako, eta egin bear deguna ingurukoak aspertu erazi edo minberatu gabe egiteko gustoa palta zaigu.

Etxetik eta eskolatik asita, gauzak txukun egitea eskatzen zitzaigun garai batean, eta zorrotz eskatu ere. Ogia irabaziko bagenduan erdera ikasi bearrean gertatu giñan, eta Cervantesen maillara iritxi ez

bagiñan ere bere itxura batean mintzatzera iritxi giñan beintzat. Gaur beste aldera gertatzen da. Gure artean ez dago erderaz ez dakianik, baiña zertan edo artan lana izango baldin bada euskeraz ikasi bear askotan. Ala ere, ez dirudi onek ain lan zailla. Fubolean “complicasioak evitatzea” eta estropadetan “irtera validoa” egitea naikoa da bapo bizitzeko. Gustoa galdu degu.

Eun langilletatik 23 lanik gabe omen daude Euskadin, baiña kalera begiratuta ez da ezer ezagun. Larunbatetan lana egiten zan garaia ezagutu genduan. Gaur ez dago orrelakorik, baiña ala ere bizi. Jatetxe itxurazko batera joatea pentsatzen badezu eskatu ezazu tokia aurrez, bestela ez dezu nun eseririk izango, naiz eta astegun buruzuria izan. Jate-txe oiek ez dirala batzuentzat bakarrik? Ondo jateko eskubidea danok daukagula? Bai, noski. Ontan ez degu gustorik galdu, zorionez. Geiago dirudi mirariak gertatzen dirala, eta gertatu ditezela gaiñera.

Atera zaitetz kamiñora. Kotxea kotxearen gaiñean, eta ez nolanaikoak. Aundiak, indartsuak, dotoreak. Erri guztietako kaleak ere orrelakoz beteta ikusiko dituzu. Au ere pozgarria da. Danok daukagu bizitzeko eskubidea. Nunai uzten ditugu, ordea, iñori traba egingo ote diogun begiratu gabe. Gustorik ez.

Irixten zaizkigun berrien arabera, leenagoko aldean lan gutxi egiten da. Uelga uelgaren gaiñean: ikasleak, irakasleak, langilleak, poliziak, sendagilleak...

Jubilatuak ez dute uelgarik egiten. Zertarako, gizarajoak? Bankeruak ere ez.

Ala ere danok bizi gera. Gu tontoak giñan edo mirariak gertatzen dira oraindik. Bietan bat. Ala biak?

Zegama eta Papelera

ZEGAMATIK naiko berri tristeak datozkit egun auetan: Papelera ixteko zorian dagola. Itxi dala ere entzun det. Aspalditxoan nai aiña aldiz ikusten ez badet ere, asko eztimatzen detan erria da Zegama.

Gu mutil koskorrak giñala, Goierrian beintzat izen aundia zuan, eta emendik kanpora ere erri ezaguna izango zan, bertan egiten zan papera ala zan beintzat.

Gerra aurreko kontuakin ari naiz. Ordurako musika-banda ere bazuan Zegamak. Oso banda entzute-sua gaiñera. Ortik pentsatu inguruko errietan nolako sona izango zuan. Urteko jai guztietan kanpotarrez betetzen zan, eta Zegamako Jaun San Bartolome aundiaren ondran eta alabantzan ospatzen zituzten pestetan zer esanik ez. Garai artan erri dexente batean moldatu zitezken pesta mota guztiak ospatzen ziran an. Erri alaia zan Zegama, bat alairik bazan. Alaia, zoriotsua eta bapoa. Ardi, beor eta onelako aberez osatua eta mendi-larre eta basoz ornitua. Alkolera, perra-fabrika, eltzegintza eta oiek guziaz gaiñera, erriko lantegi nagusia zan Zegamako Papelera. Gerra ondoren, *Electroquímica* zeritzaion beste lantegi bat ere eraiki zan, baiña urte gutxiko bizia izan zuan.

Artzaiak eta tratolariak ugari ziran. Baserriak ere ez ain gutxi, baiña bear aiñakoak ez ordea, eta zeuden lantegiak naiko mugatuak izanik, zegamar asko ogi billa erritik irten bearrean ikusten ziran.

Baso-zain, kamiñero, mikelete eta trenbide-langille pranko eman du Zegamak. Baita gizon jakintsu eta ospetsuak ere. Erri argia izan da beti Zegama. Ondo itzegiñak, jatorrak, langilleak eta errespeto aundi-koak zegamarrak. Aruntz zijoanak etzuan denbora askoren bearrik lagunak egiteko. Orra erritar batzuen leialtasunaren ezaugarririk onenetako bat.

Alaxe bizi ziran zegamarrak gerra etorri zan arte. Zorigaiztoko burruka negargarri ark bakandu ederra eman zion Zegamako gaztediari. Lantegiak ere izkutatzen joan ziran batabestearen ondoren. Papelera eta beste bi lantegi, oso aundiak ez, daude zutik.

Joan daneko eun da geiago urte auetan izan du Zegamak Papelaren bearra, bera izan baita erriaren ardatza, alde askotatik begiratuta. EUNETIK gora omen dira bertako langilleak, eta milla ta eun biztanle dituan erri baterako ez dira gutxi.

Pasatako kontuak esaten ariko naiz, baiña ortantxe oiñarritzen da askotan erri batentzat degun onginaia. Gaztetan Zegama ezagututako bat ez da izango erri orretaz maitasunez oroitzen ez danik eta ango lagunakin igaro zituan une atsegiñak gogoratzen etzaizkionik. Nola ez atsekabetu aiek kezkatu ikustean? Bankuak-eta diru-laguntzarik ematen ez diotelako omen da Papelaren larrialdi au. Nik ezin dezaket esan ala dan ala ez. Beste arrazoirik ez bada, penagarria dala bai.

Berri illunak Zegamatik datozkigunak. Zegamarrak ez dira ordea atzera begira egoteko egiñak. Ni ziur nago oraingo estualdi au nola edo ala gaintituko dutela, erriarentzat irtenbide berriak irikiaz.

Bestela ez lirake zegamarrak izango.

Jaurlaritza berria

OSO kontu prexkoak esaten ez giñan asiko, baiña Eusko Jaurlaritza berria ere eratu da. Politika kontuan ezer askorik ez badakigu ere, bakoitzak bere iritzia emateko askatasuna dagon ontara gertakizun oni buruz pentsatzen deguna esatea ez da pekatu izango.

Jaurlaritza au oso bearrekoa omen genduan, eta moldatuko bazan nai ta naiezkoa zan itun edo paktoa egitea lortu dute gure politikariak. Batzuek agintearen erdiari eutsi diotelako eta besteak nai zutenaren erdia beintzat eskuratu dutelako, pozez beterik ikusten ditugu. Erdia, baterez baiño geiago izan orratik. Poz ori errian ere itsasten dan ala ez gero ikusi bear.

Gure gidariak sentitzen duten bezela itzegiten badute, egin duten itunari esker lau urtetarako Jaurlaritza izango degu. Ea ba gure erri au gobernatzeko moduko erri biurtzen degun noizbait.

Ezkondutako urtea izaten omen da onena. Itunak eta ezkontzak alkarren antza badutela esan diteke. Euskadiren onerako baldin bada, bizi luze eta oparo bat izan dezala itun onek. Ezkon ondoko ezti-aldia ona izan oi da. Denborarekin, ezkonduak alkar ezagutzen dijoazen bezela, asten dira korapilloak, eta bi alderdiak duten borondaterik onena jarri bear sarri, ezkontzak iraungo badu.

Politikan ere baditeke onelako zerbait gertatzea. Alderdi guztiak euren santu artuak jaso nai izaten dituzte goi-maillara, eta ortarako iñun diran eskeintzak erriari egiten ez dira motz gelditzen. Agindutakoa betetzen duten ala ez, ortarako alegin guztiak egiten dituzten eta uste duten bezin gai diran ala ez, beste kontu bat izaten da.

Oraingo Jaurларitza au asmo onez betea jaiο zaigu. Egin duten ituna bi alderdiak errespetatuko omen dute, eta emendik aurrera Euskadin egingo dan politika itun orren ondorioa izango omen da. Ez dira ain asmo txarrak.

Danentzat esan-nai berdiña izango ote du itun orrek? Estatutoa ere egin zan, baiña bere arabera legeak egiterakoan bakoitzak bere astoari arre, eta zeregiñik asko egon bear du oraindik saili ontan.

PSOE eta PNVren arteko itun onen elburu nagusienetako bat, Estatutoaren zati aundi eta garrantzitsu bat betetzea eta martxan jartzea izango omen da. Ori agintean dauden denboran lortu asmoa dute, itunak dionez. Ala izan dedilla. Dagon erori alditik jaikitzeο etzaio gure erri oni gaizki etorriko seguru asko.

Ezin asiko gera emen esan zaizkigun guztiak berritzen. Ituna or dago eta denborak emango du bere epaia.

Gizonak egindako lan guztiak bezela, onek ere izango ditu bere akatsak edo utsuneak. Itun ontan ez da azaltzen erru guztiak besteei botatzeari eta besteekgatik astobeltxarenak esateari utzi asmorik.

Etzan ba asmo txarra izango.

Traputxoak

MUNDUAREN erdiak, beste erdia nola bizi dan ez omen daki. Gure ingurura sarritan begiratzen badegu, alaxe dala irudituko zaigu.

Askotan uste izaten degu, aberats guztiak gure aldean ondo bizi dirala. Dirua daukatenak mundua euren dutelakoan egoten gera, eta premi guztien gaiñetik nola bizi diran, bete ezin dezaketen kutizirik ez dala.

Batean eta bestean irakurtzen danez, izaten dira beste era bateko kontuak ere. Inglaterrako erregiñaren seme Andres larri samar omen dabill. Emengo dirutan kontuak aterata, urtean amalau milloi pezetaren etorria omen dauka gutxi gorabera, baiña ez omen du bizitzeko bear duan aiña. Orrekin irixten ez, eta premialdietan dirua amak ematen omen dio. Ez dauka suerte txarra.

Etxe batean edo bestean jaio, badago alde ederra. Gu bezelakoen artean ere izaten da diru premiirik asko, baiña erdi-negarrez amarengana joatea alper samarra izan oi da. Dirua ondo zaintzeko, irabazten dan dana ez dala gastatu bear eta orrelako kontsejuen paltarik ez da izango, baiña diru askorik ez. Ez amak borondaterik ez dualako, baiña nai izatea da bat eta al izatea bestea.

Andres printzipe orregatik etzan len orrelakorik entzuten. Orain illabete batzuk ezkondu egin zan

ordea. Ezkontzeak sortu ote dizkio orrelako arazoak? Emaztea diruduna eta oso emakume ona izan bear du aidanez. Baiña zerbait gertatzen da. Trapu-
txoak gustatzen zaizkion oietakoa ez da ba izango?

Andre bati entzun nion, gustatzen zaion trapu-
txoren bat dendan ikusi ezkerro, eskuratu arteko
onik ez duala izaten. Uraxe erosi bear derrigor, bear
badu eta ez badu. Orrek illaren azkena urrutiratu
egiten berriz...

Aldebatera, emakumeentzat ez da au pekatu
aundia. Emakumezkoen eginkizunetako bat gizo-
nezkoak engaiñatzea ez dakit ez ote dan. Au asko
esatea izango da bearbada, baiña engaiñatzea ez
bada ere gizonezkoak eurai begira jartzea beintzat
badala esango nuke.

Gizonezkoak lilluratzeko doaia oso berea du
emakumezkoak. Indarrez gutxiago izanik, doai orre-
zaz baliatzen da ustez geiago dan bere lagun galtza-
dunari arrastoan eusteko, eta doai ori komeni zaion
bezela erabiltzeko abildade aparta du.

Bere nortasuna dualarik, beti besteen esanetara
jartzeko gogorik ere ez, arrazoizkoa dan bezela, eta
dituan berezko doai eta zoragarritasunarekin baka-
rrik ez dio etsitzen.

Aurpegi irripartsu bat ondo apaindutako gorputz
egoki batean inguruko guztientzat zeñen atseginga-
rri dan badaki ondo asko emakumeak. Eta trapu-
txoen aurrean noizean bein diruak eskuetatik iges
egitea arritzekoa al da?

Dirua arin samar gastatzean emakumeak edertu
egiten dira sikira. Gizonok itxusitu berriz askotan.
Ez gaitezen izan zorrotzegiak.

Eta orain zer?

ALAKO garaietan bizi bearra gertatu zitzaigun, makiñatxobat erakutsi artuak gera gure denboran. Danak txarrak ziranik ez det esango, baiña ez dakit danak onak ote ziran.

Auzia galtzen duana larru gorrian eta irabazten duana alkandora-utsean gelditzen dirala dio esaera zarrak. Orixe gertatu zan gure gerra negargarri aren bukaeran: galdu zutenak lur jota, eta irabazi zutela uste zuten asko, mixerian. Dana berria egin bearrean ikusi giñan. Bazan orduantxe lana. Baita lanerako gogoia ere. Gizona lanarengana makurtzeko ez dakit premia bezelakorik ote dagon.

Mundu guztiko bigarren gerra sortu zan berriz urrena, eta berekin, bizitzeko bear ziran gauz guztien eskasia. Bukatu zan noizbait gerra ura ere. Bear aiña jateko eta gutxiagorik ere ez, eta batzuk gaixotu eta besteak ill, ekin zitzaion bizimoduari. Egunero kanta berdiña entzuten genduan: "Geiago egin bear da. Aurrera irten nai baldin badegu ez daukagu gauz geiago egin beste erremediorik". Emen baiño makina obeak egongo ziran baztarretan, baiña inguruko nazioekin biurrituta geundelako eta abar, makina orde z kanpotar jendea etorri zan erruz.

Etzan ori bakarrik naikoa. Zenbait banku-gidarik ziotenez, diru gutxi aurreratzen genduan. Emen,

dirua gastatu ez, baizik bota egiten zan. Orrezaz gaiñera, jaun oien iritziz lansariak etziran jaso bear; bestela, salneurriak puztu egingo ziran, inflazioa etorriko zan alegia, eta orren ondorioak langillediak nozituko zituan geinbat.

Egoaldetik etortzen zan artobero usaiarekin batera, aolku au ere izaten zan guretzat: "Sartaldeko zibilizazioari eutsi bear diogu, bestela galduak gera. Komunismoa eta masoneria jarriko zaizkigu nagusi". Alako batean asi ziran ordea txorikumeak kabitik irtetzen. Gauz geiago egitera iritxi giñan, baiña egiten zana salduko baldin bazan, merkeago egin bear.

Emankizuna edo produzioa ugaritzera ez dakit iritxi giñan —au ez baita berriketakin lortzen, aurre-rapenen bidez baizik— baiña mendean bizi giñan, eta agindutako dana egin bear izaten genduan. Orduan etzan uelgarik. Bi urtez etzuten lansariak ikararik egin, baiña salneurriak gora joan ziran.

Danentzat peri txarrik ez omen da izaten, eta, bankuak apenas ain gaizki atera ziran estuasunetik, baiña dirua korrituan jartzen dutenak geroz ta interes urriagoa jasotzen dute. Ipurdiko ederra beren denbora guztian zintzo jokatu dutenentzat. Itxaropen ona zartzarorako.

Europako nazioetan Jainkoak dakian aiña gari, esne, mantekilla, aragi eta beste ez dakit zer omen dago pillatuta, eta milloika langille lanik gabe. Euskalerrian bertan, ia 38.000 famili mixeri gorrian bizi omen dira, egunkariak diotenez.

Sartaldeko zibilizazioa ona izango da, baiña oraindik zerbait ondu litekela dirudi. Badaude sail galantak, nork landuko zai.

Apirilla

AURTENGO Apirillak etzuan oso asiera ona izan. Bazuan otza eta bustia berekin. Une txarrak luze egiten zaizkigu, eta aurten udaberririk izango ez ote zan etsi ere egin genduan. Txar aldiaren ondoren on aldia etortzen da, ordea, eta etorri da. Gaur beintzat —illak 15— eguraldi zoragarria dago. Ipar aize pixkabat badabil, baiña laiñoen izpirik ez da agiri zeru urdiñean, eta eguzkia indartzen asia egonik, egun alai eta atsegingarria gaurkoa, bat baldinbada. Kale zulotik irten eta mendi aldera joateko gogoia ematen duan oietakoa.

Erri inguruan badago gaur zeñ ikusia eta norekin itzegiña. Danak pozik ikusten dira, eguraldia ontzeko garaia bazala esanez. Lanbroak eta eguraldi gordiñak biriketean egindako armearme-sareak kentzeko gogoia bazeukaten batek baiño geiagok. Aterki azpian gorde ezin dan arpegi zimurrari begiratu edo paparra zabaldua eguzkitan lasai dabillen batena ikusi badago alde ederra.

Eta zer esango degu izadiari buruz? Noranai begiratuta lora besterik ez da ikusten. Keriz, udare, arantzabeltz eta iñun diran guztiak oraintxe daude lora bete-betean, eta ostoa nola oraindik atzera samar dagon, iñoiz baiño obeto nabarmentzen dira lorak. Badago begientzat atsegingarririk asko.

Zelaiak ere belarrez ondo jantziak agiri dira. Baztarrak eze gordetzeko lain euri badu egiñik, eta

eguzkia epeltzen asi danean larre gozoa nunai. Ez dago artaldee begiratu besterik. Datorren illean Urbiara joan bearko dute, baiña badaukate bitartean nun gozatua. Eguerdiartetik, inguruan arkumetak jolasean dituztela, larrean saiatzen badira ere, arratsalde erdirako naikoa janda abaro egiten agiri ziran gaur, itzalean lasai. Aize otzak eta bisutsak errapeak zimurtutakoan aiña esne emango dute noski, eta pozgarri da au ere, izanetik bear baitegu.

Eguraldi ona, egun alaia, eguzki epela... Danen artean ere ez digute batzutan pentsamentu sakonik sortuko bearbada. Ez digute gauz aundirik esan eraziko, baiña maitatzekoak dira alaxe ere. Ur sakontan murgiltzearekin gozaten dute batzuek. Izan ere, itxasoak gordean dauzkan zenbait izaki eta gauz ikusteak atsegin eman bear nai ta nai ez, baiña ur gainean igeri egiteak ere baditu bere alderdi onak.

Izadiak ere badaki bere zale diranak ordaintzen. Ezin ukatu gauz bizia dala, eta bera maitatzen eta zaintzen degun aiñean erantzuten digula. Zenbait liburutan arkitzen ditugun pentsamentu sakonak gure jakin-naiarentzat sari aberatsak dira, baiña izadiak bere itxiltasunean eman oi dizkigun erakutsiak ausnartzeak ere badu bere balioa, bidebatez atsegin eta atsedean gertatzen baizaigu sarritan.

Batzuek erri eta urietako zurrunbilloetan egurasten dira. Beste batzuek mendibideetan euren motorrak marruz dituztela.

Zeru urdiñaren azpian zuaitz tartean ibillalditxo bat eta pago mardul batean azpian eserialdi bat egiñez euren animak asetzen dituztenak ere badira.

Mundua onelaxe da.

Itzaldi bat

APIRIL onen 9'an itzaldi bat eman zitzaigun Legazpiko Kultur Etxean. Gurasoak beti izan dituzte kezkak eta orain ere badituztela esan bear. Ori dala-ta, ona izaten da itzaldi batzuk entzutea. Beti ikasten da zerbait.

Gurasoen ametsetako bat seme-alabak bear bezela ezitzea izaten da eta ikasketa egoki batzuk egiten laguntzea, gaur edo biar gurasoak izan zute-na baiño bizimodu erosoagoa izan dezaten. Ortara-ko, seme-alaba oiek goi maillako ikasketak egitea nai izaten dute, lan-sari on bat irabaztera edo itzal aundiko giza-emakumeak izatera eramango dituan titulu bat iritxi dezaten.

Ametz zuzen eta bidezkoak noski, baiña oraiñal-diko krisisa dala-ta, ain etorkizun illuna ikusten da, ainbeste korapillo arkitzen dira eta ainbeste zalantz sortzen dira gizartean, batez ere gurasoen-tzat argi-bide bezela antolatu zuan itzaldia Kultur Etxearen zuzendaritzak.

Gure erritar Iñaki Larrañaga izan zan izlaria, eta guztiok ulertzeko moduko euskera errezean ondo baiño obeto bete zuan bere eginkizuna, atsegiñez entzuten dan oietako jardunaldia ematen zigularik. *Stadeco*-ren zuzendari onek badaki gaiaren berri.

Garbi asko esan zigunez, aro baten bukaeran eta beste baten asieran arkitzen gera. Artzantzaren

eta nekazaritzaren ondoren sortu zan industrigintzak azi-muga arrapatu du, eta lanbide edo bizibide onek eskatzen dituan teknika-gizonez osatuak gaudela dirudi. Orregatik, naiz ta gure seme-alabak goi maillan ikusi nai izan, oraiñartean dirua irabazteko onak izan diran karrerak ikastera ez ditugu beartu bear. Geurekasa ezin baldinbadegu, sikologoen laguntzaz edo, seme-alabak zer nai duten, zer langintzatarako zaletasuna duten eta zertarako gai diran jakin bear degu lenbizi, eta berezitasun oiek eskatzen dituzten ikasketak egiten lagundu. Euren gustoko lanari guk naiko gendukenari baiño probetxu ohea aterako diote. Euren buruen jabe egingo dituan ikasketak baiño oberik ez da gazteentzat.

Zertara jo orduan! Industrigintzaren denbora beteta bezela ikusten da, eta serbitzuen garaian sartu generala aitortu bear. Serbitzuen saila zabala da benetan, eta badago nun eta zer jorratua. Ikastegi Nagusietan, berriz, industrietan teknikoak bearke diran baiño iru aldiz ikasle geiago omen dabill. Au jakiñik, ikasleek zer bide artu bear duten naiko garbi dagola dirudi.

Kanpoko nazioetan, serbitzuetan zenbait langintza edo ofiziotan lan egiteko, artarako izendatuta dauden ikasketak egin eta tituluak eskuratu bear dira. Emen ere izan liteke aurki orrelako zerbaiten bearra, ez baitegu aztu bear European gaudela. Nazio aurreratuetan, emendik 2.000 garren urtera bitartean zenbat gizon trebatu bear diran kontuak atereak omen dauzkate eta ikasketak orren arabera antolatuak. Eta, emen?

Itzaldi bikaiña Iñaki Larrañagarena. Emen esanak ez dira laburpen txiki bat besterik.

Egun bat

GAURKO udaberri-eguraldi zoragarriari zegokion ibillalditxoaren ondoren illunabarrean etxeratu naizenean, auxe etorri zait burura: batzuetan ez du gizonak gauz askoren bearrik izaten egun eder bat igarotzeko.

Legazpin badegu alkarte bar "Sociedad Recreativa Ilintxa" deritzaiona. Berrogeita amar urtetik gora dira sortu zala. Orduan ere alamoduzko garaiak izango ziran, eta sorrerako araudian irakurria naizenez, alkartean politika-kontuan itzegitea debekatua zegon. Pake premia ez da gaurkoa, ikusten danez.

Ogeita amaseiko gerra zala ta etzala, naiko auldua gelditu zan gure Ilintxa, eta andik urte batzuetara, denborak zerbait aldatzen zijoazen bezela, arnasberritu bat eman nai izan genion bazkideok. Gure asmoetan goitxotik jo-edo, gazteak naiko saltakor izaten dira-ta, erri koskorretan sarritan gertatu oi dan bezela ika-mika zorrotz samarrak sortu ziran. Bazkide zaarrak euren arrazoiak bazituzten, eta gazteak ere bai ustez beintzat, eta gure alkarte au tokiz aldatu bearrean gertatu zan. Baiña ori izan zan guztia. Ortik ez giñan pasa, eta bereala giñan esan oi dan bezela leen bezin asarre eta adiskide. Aldaketa orren ondorioz, leen maizter zan Ilintxa orain nagusi da, toki berria erosi egin baizuan. Toki berri onen zabalkundea, bazkideei "lunch" bat eskeñiaz ospatzen du urtero, Ospakizun ori genduan gaur.

Urteak ez dute barkatzen, eta mordoxka gera gure alkartea nai genduken aiña aldiz zapaltzen ez degunak. Gaur izan degu alkartzeko zoria. Baita musean piñ jokatzen genduan garaiko kontu zaararak esanez une gozo batzuek igarotzeko ere. Arduradun giñanean gaurko egunez amaiketako on bat prestatzen saiatu oi giñan, baiña oraingo zuzendaritzak gure erakutsiak jaso ez-ezik ondu ere ez ditu gutxi egin, eta pozik gelditu gera. Badaude pulamentuzko gazteak.

Muslari-txapeldunai sariak ematea eta ikusi, eta ala atera gera kalera. Dantzari txikien eguna izan gaur, eta bazan emen txistu eta danbolin soiñu eta alaitasunik asko. Izena duten bezela txikiak ziran dantzariak, baiña bai ondo eziak. Norbaitzuk lana egiten dute kupira gabe, aurtxoai dantzan onela erakusteko. Nik ez dakit zer izan ditezken aurtxo oiek emendik urte batzuetara, baiña gaur jazkeraz eta izkeraz euskaldun azaltzen ziran. Geroari begira gure izkuntzak kezkarik eta zer pentsaturik asko ematen badu ere, euskal espirituaren eutsgarriak ziruditen gaurko dantzari txikiak.

Apirillaren 26-garren egunean ari naiz lantxo au idazten. Gure erriaren itxaropen diran aurtxo auek ikusi, edo gaur 50 urte batabestearen ondoren eten gabe Gernika bonbardeatzera egazkiñak nola zijoa-tzen ikusi, badago alde ederra. Bein ikusteko geiegi zan, eta berriz ez al du alakorik iñork ikusiko.

Egazkiñ aiek bialdu zizkigutenak etzuten asko pentsatuko, ordutik 50 urtera, andik onuntza eto-rritakoen aurrak poxpolin jantzita euskeraz mintza-tzen ikusiko ziranik.

San Isidro

SAN Isidrotan gera ba oraintxe. Maiatzaren amabostgarren eguna etzaiete oartu gabe joango gure baserritarrei. San Isidrori bezela ainguruak ez diete soroko lanak egingo, baiña euren zaindariaren eguna ospatu naiko dute bere itxura batean.

Gure baserrietan leenago aiña lur lantzen ez bada ere, izenak berak dion bezela, nekazaritzak nekea berekin izaten du. Baserritarrak ez dute ba neke paltarik izaten, eta ez da arritzekoa urtean bein euren egunari zumu ona atera nai izatea.

Euskaldun jatorrei dagokien bezela meza, bazkari eder bat eta bazkalondoan bertsolariak ere izango dira. Baterako eta besterako eske paltarik ez dute izango bertsolariak egun ortan.

Baiña baserrietan ez dute gizonak bakarrik lana egiten. Etxekoandreak ere izaten dute eskuak bete lan. Euren parteak eginda bizi dira, eta baserrietako nagusiak aiña eskubide daukate San Isidro eta beste edozein santuren eguna ospatzeko, eta ondo ospatzeko gaiñera.

Edozein gertakizun dala ere, senar-emazteak alkarrekin ospatzeko oitura sustraitu da eta geroz eta indar aundiagoan ikusten degu zorionez. Bazan garaia.

Esku-zabalak eta biotz aundiko emakumeak dira gure baserrietako etxeoandreak. Etxeko burubidea eta gaiñontzeko lanak egiterakoan nekeari begiratzen ez dioten oietakoak, eta etxeoak eta kanpokoak gozatu ditezen sukalde baztarrean kupiragabe lana egiten dakitenak.

Ez dakit euskaldunok baserrietako etxeoandreak bear bezela eta merezi duten aiña eskertzen dakigun. Zer izango lirake baserriak etxeoandre oiek gabe? Eta zer litzake oraindik ere Euskalerrria baserririk gabe? Dituian guztiak bear ditu Euskalerrriak, baiña bai baserriak ere, eta ez gure sustrai diralako eta orrelako arrazoiakgatik bakarrik.

Dana dala, ni ziur nago San Isidro egunean baserritar asko edo geienak euren emazte ta guzti joango dirala bazkaltzera. Etxeko jaunak, bere emazte musugorria aldamenean duala, ondo osatutako mai eder baten aurrean ez du ba gaizki ematen! Ez dakit ikuskizun atsegiñagorik ote dagon ere.

Lanak nekea berekin du eta nekeak umore txar samarra eta pazientzi palta pixkabat ere bai iñoiz. Baserrietan ere izaten dira orrelakoak, arritzekoa ez dan bezela, baiña San Isidro eguna ez da txarra uskeri oiek alde batera utzi eta nagusi-etxeoandreak alkarrekin egun bikain bat igarotzeko, familiaren onerako alkarren arteko lokarri maitagarria sendotuz.

Baserritarrok: onelako egunak senar-emazteok alkarrekin ospatzeko oitura artua baldin badezute, eutsi ezaiozute, eta ez baldin badezute, artu ezazute aurtendik, etzazute damutuko-ta. Eraman itzazute emazteak zeuekin batera bazkaltzera.

Matxarda samarrak izango dira bearbada, baiña ori dana eta geiago merezi dute.

Zurrumurrak

BEINBATEAN, jatetxera joan zan batek “Munduan zan gauzarik onena” emateko eskatu omen zion serbitzariari, eta onek, mingaiña ekarri omen zion.

Jan omen zuan mingaiñ ori, eta besterik ezer nai al zuan galdetu zionean: “Ekarri zaidazu orain munduan dan gauzarik txarrena”, eta berriz ere mingaiña eman omen zion jateko.

“Nola diteke au ordea? Gauzarik onena eskatu, eta mingaiña, eta txarrena eskatuta ere mingaiña?”

“Alaxe da, erantzun omen zion serbitzariak. Onera ematen duanean, zer gauz oberik mingaiña baiño? Eta zer gauz txarragorik mingaiña baiño txarrera jotzen baldin badu? Nola neurtu mingaiñ gaizto batek egin dezazken kalteak?”

Serbitzari ark bazekian zerbait. Neurrian eta bear bezela erabilliaz, mesede asko egin dezake mingaiñak, iñoren erorialdi eta illunaldiak alaitzea dala, amorrualdiak baretzea dala, zalantzaldietan laguntzea dala, erakutsi onak ematea dala eta onela asko eta asko. Egintza onak ez dirala elizan bakarrik egiten, esan oi da. Egia. Bere onuraren ondoren bakarrik ibilli gabe urkoari laguntzeko prest dagonak on asko egin dezake, eta orrelakoak ere badira zorionez.

Eta txarrera jotzen duan mingaiñak? Zenbat naigabe ematen duan, zenbat negar egin erazten duan, zenbat etsipen beltz sortzen duan, eta nolako kalteak eta aldizka zenbateraiñoko ondamendiak ekarri dezazken ez dago itz batzutan bakarrik eta denbora gutxian esaterik. Ixilik egotea obe askotan, zenbait zauri berritu ez ditezen.

Mingaiñarekin esaten da egia ere, baiña onek ere miñ ematen du batzutan, eta ontan ere mingaiña kontuz erabiltzea obe izaten da.

Gezurra ere mingaiñarekin esaten degu noski. "Gezurra esan nuan Getarian, ni baiño lenago zan atarian". Esaera ala da, baiña ez da beti orrela gertatzen. Ekarrri dizkigun kalteak nozitu artean ez dizkiogu askotan gezurrari belarriak ikusten. Errena baiño azkarrago arrapatzen dala gezurtia ere esan oi da, baiña au ere ez da itxu-itxuan sinistu bear. Zenbaitekin argi ibiltzea obe, bada-ezpada ere.

Zurumurrua, berriz, egiaren eta gezurraren tartean egon oi da sarritan, eta gezurra bera baiño okerragoa izaten da erdizkako egia. Egia erdipurdika edo garbi ez esateak ere baditu bereak. Baiña gauza guztiak edo geienak izaten dituzte gutxienez bi alderdi, eta zurumurruak ere alaxe izaten ditu. Pertsona batzuk zurumurrua erabiltzen oso abillak izaten dira. Ziur-ziur ez dakiten zerbaiten berri jakin nai dutenean, gezurrarekin egia atera erazitzen dakiten maixu azkarrak ez dira gutxi. Garbi eta piñ jokatu-zale diranei komeni baiño geiago agian.

Izaten dira gaitzik gabeko zurumurruak ere, eta guk nai genduan uraxe eskura ematen digutenak ere bai. Eskertzekoak izaten dira orrelakoak.

Arantzazu eta pakea

“**Z**UK zer dezu Arantzazu, amets-kabi, otoitz-leku? Onela dio Salvatore Mitxelena olerkari aundiaren poemak. Otoitza berekasa datorkionarentzat otoitz-leku aparta, eta noizean bein amets egiteak pozten duanarentzat amets-kabi berezia da Arantzazu. Baretasuna eta pakea eskuz eltzeko moduan nabaitzen diran tokia. Zurrunbillo biurtu zaigun bizikera ontatik une batzuetarako bederik aldendu, eta gure buruarekin bakarrik, gure animari begira egonaldi batzuek egiteko arkaitzarte bakarti egokia.

Baretasuna. Pakea... Zer da pakea? Gerrarik eza. Burrugarik eza. Alkarrekin ondo etortzea. Inõorentzat eziñ-ikusirik ez izatea. Urkoarentzat ongi-naia...

Gerrarik eta burrukarik eza, baiña ez batek bestea zapaldu dualako. Ez batek bestea mendean daukalako. Ez jaiki nai eta ezin danari berriz beera bultz egin eta beea jo erazten diogulako. Ezta bi burrukalariak alkarri erasotzeko lain ez izateraiño aulduta gelditu diralako ere. Beste burruka baterako gertatzen ari geran denbora ere ez da pakea.

Burrukaren ondorioak ondo aztertu eta ausnartu ezkeru, baditeke pakea nai izatea. Baditeke gure bizitzako une guztiak pakea sortzen igarotzea. Baditeke pakea irixtea. Baita biotzetan pakea ereiten saiatzea ere.

Arantzazu ez da beti leku pakeosoa izan. Kondairak dionez, Euskalerrian etzan giro Arantzazuko Amabirjiñaren irudia arkitu aurretik. Gerra, burruka eta jauntxokeria nagusi, eta errietako jende xeea eta beartsua jauntxoeren mende, lotuta. Erri bakoitzaren barruan, bi alderdietako jendea askotan, bakoitza bere jauntxoarekin. Baiña erauntsien ondoren eguzki-ostarteak izaten diran bezela. Arantzazun ere asi ziran pake-aldiak. Auekin batera baita Euskalerrian ere.

Pakeak bereala jartzen du gizona egunsenti alai baten zai. Berekin ditu bizi-poza eta anai arteko alkartasuna. Bera da erriak aurrera irtetzeko bear duten giroa.

Arantzazu bereala asi zan goraka pakea iritxi zuanean, eta asieran estalpetxo bat besterik etzana, serorategi, ostatu eta amabi bat prailleentzat tokia zuan komentu zan 24 urte barru. Naiko azitzea zan orain 493 urte egiteko.

Geroztik izan da makiñatxobat gorabera. Arantzazuko komentura leenengo joan ziran prailleak merzedarioak ziran. Arroza baiño arantza geiago arkitu ordea, eta an etzala giro, eta bereala anka egin zuten. Aien buru egiten zuanak berriz ez joan nai, eta merzedario izateari utzi eta prantziskotar egin zan, praillegaiak bildu eta komentuko bizitzari asiera ematen ziolarik. Prantziskotarrak ere gizakiak izan, eta or nun biurritzen diran alkarrekin eta aldegiten duten. Ondoren jeronimoak etorri ziran. Aiek joan eta dominikoak urrena, eta orduan ziran komeriak: alde batetik, dominikoak nai Arantzazu. Bestetik, prantziskotarrak euren zutela. Xextra. Burruka. Auzia. Prantziskotarrak irabazi zuten, Aita Santuaren erabakiz. Leenagoko burruka aien arrastorik ez da agiri. Arantzazuko pakea ez ote da burrukaren ondorioak aztertzetik sortutako pakea?

Obra onak

“**O**BRA onak ez dira elizan bakarrik egiten”, dio esaera zarrak, eta egia dio, esaera zar guztiak edo geienak bezela. Nunai eta era askotara on egin diteke, izan ere. Gure onerako diran gauz asko ez ditugu beti onartzen, eta orrekin izaten dira komeriak.

Alemanian ministrotarako izendatu duten jaun batek, tabako erretzailleai minbizi-zerga ezartzeko asmoa omen du. Alemaniarrak badute ba agintariai jarraitzen leialak diran fama, baiña oraingo ontan apenas danak oso konforme dauden. Erretzeko oitura zuztarretik ateratzen zailla izan nunbait. Ala ta guztiz ere, ministro berria bere asmo sendoa aurrera eramateko prest omen dago. Tabakoak eta minbiziak duten alkarren arteko lotura ikusi eta arrazoiak balio ez badu, erretzailleai patrikaratako ondarrak biltzea izango dala onena esan omen du.

“Gurasoak edo maisuak zigorren bat ezartzen baldin badizute, nai dizutelako da”. Aspaldi irakurri nuan eskolako liburu batean. Ondo zaill egin zitzaidan auxe sinistea, baiña egia izango zan. Era askotara on egin omen diteke-ta, era oietako bat zigortzea izango da. Zerbaitegatik dute alemaniarrak gizon azkarren sona.

Baiña alemaniarren on egin bearrak ez dira ortan bukatzen. Españaoko “Costa del Sol” aldean

txakur asko omen dago baztartuta, jaberik gabe, eta beste asko berriz gorriak erakutsi ondoren kupira gabe akabatzen omen dituzte. Udatiar edo turista alemaniar batek, erabat kupitu, eta txakur oieri bizimodua erreztari eman omen dio gorputz ta anima. Zineko artista edo dan emakume batek, abereen bizi izate negargarria eta udatiar errukitsuaren alegiñak ikusirik, txakurrentzat berebiziko ospitala eraiki omen du Alemanian, bertako zuzendari esan degun turista ori dala. Au ere on egiteko era bat izango da.

Abereak supritzen ikusteak ez nau beiñere poztu, egia esan. Ezeren errurik ez, eta zergatik supritu bear duten galdetu izan diot nere buruari amaika aldiz.

Oni erantzuna emateko ni baiño jakintsuagoa bear da izan, baiña txakurrentzat ospitalak egitea baiño aurreragoko lanak badaudela esango nuke, eta lanak estuenez aurrera egin bear dira.

Mundu ontan, lau gizakietatik bat mixeri gorrian bizi omen da, eta eun milloi pertsonak ez omen daukate teillape edo nun babesturik. "Costa del Sol" aldean ere txakurrak dabiltzan lekutik gertu, laguntz premia duten pertsonak egongo dira.

Txakur-maitaleak, euren diruarekin nai dutena egin dezaketela esango dute seguru asko. Diruak eskubideak ematen ditu noski, baiña bai bearkizunak ere. Ala ez?

Ibillaldi bat (I)

LEGAZPIKO Jubilatu-Etxeak antolatutako ibillaldi bat genduan lengoan. Napparroan bada “Señorio de Sarría” deritzaion bazter-alde edo finka bikain bat, eta uraxe ikustera joan giñan.

Bi autobus bete lagun geunden itz emanak ibillaldi ontarako. Irteera goizeko zortzi ta erdietarako zegon izendatua, eta an geunden danok txintxo asko, esandako ordurako. Lanerako izan balitz batek edo bestek kale egingo zuan bearbada, baiña parranda-antxa danean aitzakiak aztu egiten zaizkigu, sasoirik onenean ez bagaude ere. Erreuma konturik eta orrelakorik etzan entzuten lengoan.

Eguraldi illunarekin atera giñan Legazpitik. Aterkiak zabaldu bearrik etzegon ala ere, eta gaitzerdi. Idiazabaldik gora, Etxegarateko aldapa begientzat atsegin zan. Ango lore eta ostoen emana! Kamiñoak erdibitzen duan baso artako zuaitz eta sastrapak mardulak daude, bakoitza bere berde desperdiñarekin.

Altsasutik Iruñara bidean Napparroako Sakana ere ez dago ba itxusia oraintxe. Garai batean aiña labore ez da ereiten, baiña zelai ederra eta gari-soro bikaiña pranko ikusten da oraindik. “Txiki banintzan aundi banintzan, Maiatzean burutu nintzan”, esan omen zuan gariak. Maiatzaren ogeiko kontuak dira auek, eta itzari eutsi nai baldin badio azkar ibi-

lli bearko du. Lantzen ez diran lurretan sasi mordoska batzuek azaltzen asi dira, baiña auetxek ere politikak daude azkenik.

Sakanako erriak ere politikak dira. Politikak, eta etxe bikaiñez osatuak. Badago an arri landua eta egurrezko abe mardula ugari. Urdiain, Iturmendi, Bakaikoa, Etxarri Aranaz, Arbizu, Lakuntza, Arrua-zu, Uarte Arakil...

Eskubiko aldean San Donato eta ezkerrekoan San Migel ere an daude bakoitza bere mendiaren gainean, oiñetan arizti eta pagadi galantak dituztela, Sakanaren zaindari. Erri aietako biztanleak nai aiña ez agian, baiña industri batzuek ere agiri dira. Oraindik txiki samarrak. Ingurumariari bere nortasuna ez galdu eraztearren, ez dutela geiago azi nai esan ditek.

Arakil ibai eder askoa ere an dijoa Sakanaren erditik. Poz ematen du ain txukun eta garbi ikustekak, eta industriak azitzen dijoazen bezela kutsatu ez dedin, bear diran neurriak artuko al dituzte gure anai naparrak.

Miru, sapelaitz eta orrelako egaztiak noiznai ikusten dira oraindak. Ango baso mardul eta arkaitzetan emengo piñudietan baiño toki obeak dituzte nunbait kabiak egin eta umeak ateratzeko. Napparroan sartu eta urrutira gabe badago oraintxe begiai nun atsegin emana. Maiatzean Euskalerrria polita da benetan.

Onelaxe, baztarretara begira, oartzera Iruña inguruan giñan. Txindorritasunik eta izan etzedin, autobusetatik irten, eta gosalduekin egin genduan. Belaun katilluak euren onera etorri ziranean, sartu autobusetan, eta Iruña ertzetik bederik zerbait ikusiaz, "Señorio de Sarría"-rako bideari eman genion berriro.

Ibillaldi bat (II)

BEIN Iruña aldera ezkerreko aldeketa asko ikusten da, kanpoari dagokionez beintzat. Aize otzak bereak egiten baditu ere, eguzkiak gure aldean baiño sarriago eta geiago berotzen du emen, eta orren arabera mendi eta soro legorragoak agiri dira. "Perdón" izeneko mendi-gaiñera irixtean eta andik beerakoan, Gipuzkoatik Naparrora dagon aldea geroz eta nabarmenago ikusten da.

Mendi luzeak, zabalak eta arte-zuaitzez estaliak. Alkarrengandik oso gertu ez, baiña errixka asko, batzuek utsik eta illik badaude ere. Geienak mendi tontorretan daude, garai bateko gerrate eta bizimodu latzaren lekuko, bertako lurraren kolorea dutela.

Baiña ango lurra ez da begiratu batean ematen duan bezin arlotea. Soro-sail aundiak daude eta labore asko artzen da. Udazken aldera artalde galantak ikusiko dira ango galtzuetan. Maasti asko dago, eta mota askotako igali edo frutak. Or-emen olibondoak ere ikusten dira, euren adar-zimur biurriekin giro gogor samarrean bizi dirala adieraziz, usai gozoa banatzen duan erle-belar edo tomillo artean.

Abel-azkuntza naiko indarrean dagola dirudi, eta tokian-tokian industriak ere ari dira ernetzen poliki-poliki. Nekazaritza-lan guztiak makinaz egi-

ten dirala ez dago esan bearrik, eta utsik gelditu diran erri koxkorri begiratuta dirudian baiño aberatsago da Naparroa.

Bideak zer ikusirik asko eskeiñi zigun, eta berelaxe giñan Puente la Reina errian. Sarreran dagon letreroan, erderazko izenaren azpian Gares jartzen du. Euskerazko izena izango du au, baiña ez dirudi an bertsolariak zeregiñ aundirik izango lutekeenik. Euskal-usai gutxi nabaitzen dala esan nai nuke.

Erri ontatik gertu egiten da ikusi nai genduan “Señorío de Sarria” bazterralde ori. Ez dago nolanai sartzerik eta nai dan guztian ikusterik. Baimena aurrez eskatua genduan, eta bertako arduradun bat an zegoen gu iritxi zai, kotxean autobusen aurretik joanez bidea erakusteko.

“Señorío de Sarria” ori ez da edozer gauza. 1.250 ektarea omen da, eta garai batean Xabiergo Prantziskoren familiarenak omen ziran ango lurrak. Xabierdarrak etzeuden esku-utsik. Badago an gari, garagar, almendra, sagar eta gaiñontzeko fruta eta laborerik. Arga ibai ederra ere antxe dijoa patxaratsu, garbi askoa, zeru urdiñaren ispillu. Amorraik bikaiñak egongo dira an.

Bi milloi piñu ere ba omen daude bazterralde artan. Batzuek berekasa etorriak izango dira eta besteak aldatuak, seguru asko, baiña sail galantak daude beintzat. Tartean sasi eta larra ikusten zaiete eta bakandu-premi pixkabat ere bai. Etekiñ ohea ematen duan beste zerbait egon nunbait, eta piñuaren txanda iritxi gabe egongo da oraindik.

Ibillaldi bat (III)

LEENGOAN ikusi genduan finkako etekiñik garrantzitsuenak, beiak eta ardoa dira. Bei asko dago eta danak arraza berdiñekoak, zuri-bel-zak eta adarrrik gabeak. Bei ta txal, 550 burutik gora omen daude, batzuek ikulluetan eta besteak kanpo-an, nai dutenean bertan dauzkaten legorpeetan babesten dirala. Zezen bat ere ikusi genduan. Adarrik etzeukan ark ere, baiña bearrik ere ez errespetoa jartzeko. Seireun kilo baiño geiago pixatuko ditu-ta, aren mende dauden beiak ez dute beti nai duten guztia egingo. Errape galantak dauzkaten beiak badaude. Ez noski garai batean bezela saski-arbiak bizkarrez eramanda mantenduta, beste jana-ri mota batzuekin eta makinaz lana eginda baizik.

Ondoren, sartu autobusetan eta bodegak ikustera joan giñan. Ain ba bazterralde aundia, batetik beste-ra ibiltzeko automobilla bear da, eta oso bide onak.

Izugarrizko maastiak daude. Gure mendietan ota-riak bezela, an maastiak ikusten dira. Sail aundiak, ondo jorratuak eta zainduak. Urtean 1.500.000 kilo maats biltzen omen dira gutxi gorabera. Ardo potzu galanta egingo da. Ez dago ango upel pilla ikusi besterik.

Naiko ezaguna eta sonatua da ango ardoa. Amaiketakoarekin eman zigutena ederki sartu zi-

tzaigun, eta botill batzuek etxera ekarri genitun; noizean bein itxurazko ardo pixkabat ondo etortzen baita. Bixita atsegingarria benetan "Señorio de Sarria"-ra egin genduan.

Ango bazterrak ikusi ondoren, Iratxeko otelera joan giñan bazkaltzera. Bai bapo bazkaldu ere. Etzegon an rejimena egin bearrik eta onek edo orrek gaitz egin bildurrik, eta ala obe ere. Bazkaldu, kontu-kontari patxaran egonalditxo bat egin, eta autobusetara, esandako ordurako. Bazkalondoa lasai samar artuak baziran, baiña berealakoxe batean bildu ziran artaldera. Iratxetik Lizarrara joan giñan, eta an bota genduan arratsaldea. Erri zarra da Lizarra, eta kaleetan konponketa asko ari dira egiten. Kartelak eta "pintada"-k agiri ziran. Gure errietako egoeraren zipriztiñak aruntza ere iritxi dira nunbait.

Lizarratik Lizarragako mendi-zulo edo tunelera artekoa ere ez dago ba paraje itxusia. Artea eta pagoa ikusten da erruz. Elorriak ere bai, eta oraintxe daude lore txuriz estalita. Zunbeltzeko benta ingurutik asita, kamiñoaren bi aldeetan berebiziko arresi sailak egin dituzte. Tarteka burnizko atea dirala, ez dakit mendi artarako itxitura egokiagorik izan ote diteken. Lizarragako mendi-zulotik gertu, Sakana aldera, ikus-toki bat dago. Andik ikusten dan lur-zatiari begira lilluratu ez danik ez dakit iñor izango ote dan.

Naparroa gurekin edo gu Naparroarekin bat egiñik ez egoteak pena ematen du. Itzak alde batera utzita ortarako giro on bat sortzen asiko al gera noizbait. Auxe pentsatuaz etxeratu giñan.

Erantzun motzak

GURE oraingo bizimoduak bukatzen ez dan apostu bat dirudi. Nor geiago izan edo nor azkarrago ibilli jokatzeko ari geran apostu edo joku bat. Gaur ez dago patxaraz bizitzerik. Edozein tokitara joan nai degula edo zerbait egin bear degula, beti presaka ibilli bear. Azkar ez dabillenak izango du zeinek aurrea artua. Izango du zeinek akullatua.

Orain onela bizi gera, eta lenago ere onelako zerbait gertatuko zala pentsatu izan det sarritan. Gure kirol eta apostuak ez ote dute ori esaten?

Aari joku, idi-proba, estropada, korrika-apostu, aizkol-apostu, arrijasotze, pelota eta abar, zeinek abere obeak zeuzkan edo zein indartsuago, azkarrago edo abillago zan proatzeko asmatuak izango dira seguru asko. Orrezaz gainera lan nekosoak dira, eta nekeak bizitzeko eran bere arrastoa uztea erreza da.

Nekea gaintitu nai duan bati edo korrika bizian dijoanari zerbait galdetzen baldin badiogu, erantzun luzerik ez digu emango. Ark ez dauka denbora-pasa egoteko astirik. Bere buruarekin dauka naiko lan, eta zirikatzen jarraitzeko biderik ez digu emango. Erantzun motzen bat bai.

Gatza eta piparra ere bereak ditu euskera zarrak. Txantxetan batabestea zirikatzeke oitura geurea degu euskaldunok, eta berezitasun oiek ere

sarritan sortzen dituzte erantzun motzak; adarra jo nai diguna moztuta uztea oso gogoko baizaigu. Gure artean atsegin ematen du orrek.

Mundu ontan nai luken guztia daukanik ez da, eta euskaldunok aspalditik dakigu urritasunaren eta premien berri. Bearrak eta eziñak geure onetik ateratzen gaituztenean, gure buruari ezin eutsi izaten diogu askotan. Orrelakoetan berriketa gutxi gurekin, bestela laister izango da erantzun legorra. Petralaldiak baretu nairik ere erabiltzen ditugu batzuetan erantzun motzak. Atsegin zaizkigula jakiñik, illunaldietan irriparra sortzeko ez dira gaizki etortzen.

Onelako zerbait gertatu zitzaidan bein Donostitik etxera trenean netorrela. Batean gelditu eta bestean ere bai, etorrera gogoikarria gertatu zitzaigun benetan. Argitan etxeratu bear genduna, illundu ere egin zigun, eta gure umorearen berri jakiten etzan zaill. Alako batean, nere aurrekaldean eserita zetorren gizon batek: “Nun gaude?”, galdetu zuan. Ixilik egon besterik ez nuan, baiña ni ere asper-asper eginda netorren, eta batere pentsatu gabe: “Trenean”, irten zitzaidan. Nik broman esan nuan, baiña gaizki artu zidan gure gizonak. “Au gizon azkarra da. Onekin poliki ibilli bearko degu. Gizon bizkorra da au”.

“Ez gizona, ez”, esan nion, “Ez naiz besteak ez bezelakoa. Ain azkarra izan banintz ez nintzan emen egongo, baiña ementxe nago beste batzuen moduan”.

Geltokira iritxi zanean, bere errosarioa erreza-tuaz irten zan trenetik. Ez nion gaitzez eman ain erantzun motza. Barkatuko al dit.

Brasilgo berriak

NERE lagun bati —neskatxa bera— Brasilera joatea bururatu zitzaion bein. Oporrak artze-ko garaian emen prexko samar egiten, eta zerbaiten ikusmiran eta eguzki billa, beste neskatx bat lagun zuala Brasilerako bidea artu zuan.

Etzan asarre aruntza iritxi zanean. Eguraldi ederra batetik eta emengo diruarekin poliki moldatu ere bai, bereala zan negu-kolorea kendu eta ango beltxaranen antzean jartzeko pozik. Egun batzuek ango baztarrak ikusten pasa ondoren, ondartzara joaten asteko asmoa artu zuten bi neskatx lagunak.

Zerbaiten zurrumurrua entzunak izango ziran, eta eguzkitan egon ondoren batek itxasoan busti bat artzen zuan bitartean, besteak erropak zaintzea erabaki zuten.

Premiak toki guztietan begi argiak izaten ditu-ta, Brasilen ere bai nunbait, eta asko uste etzutela zaindaria zaintzen asi zan norbait. Kontua da, erro-pa-zai zegona oartzera igari zebillen nere lagunari erropak ostu zizkioten, eta otelera bikinian joan bearren gertatu zan.

Emezortzi urteak aspalditxo paseak baditu ere oraindik neskatx bikaiña dago, eta lorerik asko entzun omen zuan ondartzatik otelera bitartean. Ez omen zuan uste Brasilen alako arrerarik egingo zio-tenik eta ainbesteraiño-ko estimazioa izango zuanik, eta oporraldia pasata gustora etorri zan gure neska.

Baiña Brasildik datozen berri guztiak ez dira ain alaiak eta jostalariak. An ere emen bezelaxe gertatzen kamiñoetako ezbear eta istripu eta gaiñontze-koak, eta orrelakorik izan ezkeru argi ibilli bearra dago. Zorioneko dirua irabazi bearrak beti egin ditu ez-egitekoak, eta orain ere ez gutxi.

Esan degun bezela, istripu baten ondorioz klinika joan bearrean gertatu ezkeru, zenbait sendagillek zauritueri soin-zati bat edo beste kentzeko ez omen dute batere kezkarik izaten. Ori da ebaketa egiterakoan gaixoari ematen zaion anestesia edo dalakoari zumua ondo ateratzea.

Ez naiz ari sendagille guztiak zaku batean sartu nairik eta gutxiagorik ere, baiña Brasil alde ortan ondartzako lapurrak bakarrik ez dira begi argiak dituztenak. Esandako klinika oietan, batez ere igande arratsaldeetan egiten omen dituzte orrelako azioak, iñork ikusi beldur gutxiena orduan egoten omen da-ta.

Orra diruagatik nolako beargiteak egiten diran mundu ontan. Ezbearren bat izan duten gizarajoeri iñun diran begi, biotz, gibel eta giltzurriñak kendu, eta gaixorik dauden aberatsen gorputzetan aldatu, galanki kobratuta.

Dituzten bi gauz aietatik bat kenduta utzitako gizasemeak ere bai omen dira azkenik. Bikini-utsean utzi zutena baiño askoz obeto ez dira gelditu aiek.

Ez dakigu asko zer ikusteko gauden. Brasilera oporraldia igarotzera joan nai duanak, obe du lenbizi kontuak ondo atera, ango egonaldia larrutik ez- ezik larruarekin ordaindu bearrean gertatu ez dedin.

Modak eta asmakizunak

GEROZ eta obeto bizi naia berea du gizonak. Bere bizikeran, jazkeran eta abar aldaketak egitea dakarkio onek; eta moda berrientzat duan zaletasuna ere ortik etorriko zaio seguro asko.

Oitura aldaketak zer esanak sortu izan dituzte iñoiz, baiña gizartearentzat aberatsgarri dirala esango nuke. Orrelakorik ez balitz beti leenean egon bearako genduke, eta ezin bizimodurik obeagotu. Zenbait oitura berri beintzat, neurritz azterkatu bear genituzke, orrelakoak asmatzeko gai diranai egoak moztu gabe.

Modatik modara ibiltzeak izango ditu bere akatsak, baiña bai alderdi onak ere. Eraberritzeak lana sortzen du batetik, eta bestetik, aspergarri egin zaizkigun jantziak utzi eta beste batzuekin gorputza apaintzeak, alako berritu edo pozgarri zaigun zer-bait ematen digu. Galdetu bestela gure alaba eta etxeakoandrei.

Jantzi-erakukestak antolatzen dituztenak bada-kite onen berri eta ez dira lo egoten. Asmatzen dute moda-zaleai zumua nola atera. Moda berri bat sorterakoan, jazkiak ez-ezik oial edo telak ere badu zer ikusia, eta oraingoan Extremaduran erabaki dute erazoa ederki: kortxoarekin oiala, tela, egiten asmatu dute.

Garrantzi aundiko asmakizuna izan bear du oraingoa. Kortxoarekin egindako oial onek egokitasun asko omen ditu. Leuna eta eskuz ikutzean gusto ematen duan oietakoa, eta batez ere bikiniak egiteko omen da aparta. Ipar Amerikan eta Catalanen berebiziko salmenta omen dauka ta, ez da txarra izango.

1

Ez ikaratu berriak beti
berritzen dijoazela,
deitzen zaieten bezela berri
ez bailirake bestela.
Asmakizun bat ezagutu da
berri bat balitz bezela:
Extremaduran kortxoarekin
tela egiten dutela.

2

Asmatu duten oial berri au
ez degu nolanaikoa,
baizikan urik pasatzen ere
etzaion oietakoa,
diran kolore eder guztiak
artzen ditunetakoa,
jantzi-eredugarriak ere
egiteko modukoa.

Kortxozko oial ori omen da
dana berekin daukana
ain goxo eta leuna, jaztean
gusto ematen duana.
Eta izanik oso fiña ta
zimurtzen ere ez dana,
etxeakoandrei joan zaiete
plantxaketan zuten lana.

4

Bikini onik egin nai bada
ez dago ain gai zuurrik,
orretarako beste oialak
oni ez ematen urrik.
Eta uraren azpira ez da
joaten kortxo-apurrik,
bikini oiek jazten ditunak
ez dauka ito bildurrik.

5

Euskalerrian ixldu ziran
liño ta ardatz kontuak
euleak ere joan ziran ta
gabiltza atzeratuak.
Extremeñoak ikusten ditut
guri aurrea artuak,
txorakeri ta berriketak guk
eta aiek inbentuak.

6

Era ontako asmakizunik
ez degu guk ateratzen,
batzutan nekez asten baigera
gure oiturak aldatzen.
Baiña oraintxe beste biderik
nola etzaigun geratzen,
asi gindezke piñuen partez
alkornoakeak landatzen.

Zergatik?

ERAKUSTOKI edo museoetan egoten da kuadro ederrik, baiña gu bezelako asko, neu aurretik naizela, mutu, itxu ta gor gelditzen gera aien aurrean.

Picasso, Dalí, Miró eta orrelakoak egindako lanen merituz eta esan-naiez jabetzeko, ni baño bizkorragoa eta ikasiagoa bear da izan.

Artearen ezkutukiak ezagutzea eta ulertzea ez da edozeinentzat egiten dan lana. Kuadro bat bestea baño politagoa dala iruditzea ez da naikoa arteari zumua ateratzeko, eta gu bezelako batek museoan txakurrak elizan baño palta geiago ez duala egiten esatea, ez derizkiot pekatu aundia izango danik.

Museoetan bakarrik ez dira ikusten, ordea, gauza politak. Izadiak ere baditu pintura eta kuadro ederrak, bikaiñak eta zoragarriak. Kolore garbiz, illunez, argiz, milla tankeratako kolorez osatuak, eta gure animari milla eratara itzegiten diotenak. Zer nai dezute erakustoki oberik izadia baiño?

Aspaldi ontan aldaketa aundiak izan baditu ere, zer erakutsi asko du oraindik gure Euskalerrriak. Nunai esatea geitxo izango da bearbada, baiña toki askotan ikusten dira txoko politak eta bazter zoragarriak. Orrelakoen billa salatzea, berezko erakustokiak bixitatzea dala esango nuke.

Udarako jai egun batean, Aloña mendiaren oiñetan arkitu nuan berezko kuadro oietako bat.

Mendi aldera zijoan bide bati eldu nion. Errekatxo bat zetorren goitik bera eskubi aldetik. Etzan aundia, baiña bai marmarraria eta ur garbikoa. Zuaiza eta sastrapa ugari alde bietatik, eta ostoa artean etzan ia ikusi ere egiten. Basoarroa, intxusa eta lore bati eusteko aiña ziran belar eta txotx guztiak lore bete-betea zeuden. Pitxillota ugari lorerik-lore, eta errekatxoaren susmurra eta txorien kantuak ziran ango ixiltasuna urratzen zuten ots bakarrak. Bidearen ezkerreko aldetik, belardi aldapatsuak. Bazter batean, katu bat xaguzai. Ixilik, geldi. Belarriak bakarrik mugitzen zituan aldian beiñ... Bizi bearrak ematen dituan lanak. Aurrera jarraituaz, baserri-mordoxka bat agiri zan bidearen bukaeran.

Jai arratsaldea izanik, kale aldera zijoazen emakume batzuekin topo egin nuan. Euskeraz itzegiten zuten alkarrekin, eta nik ere euskeraz agurtu nituan. Argiak eta iztunak, ezagun zuten zoriontsu bizi zirala txoko maitagarri artan. Neri beintzat alaxe iruditu zitzaidan.

Iritxi nintzan etxe-mordoxka artara. Baserri bikaiñak, orma eta leio ederki pintatuak, teillatu berriak, etxe-inguru txukunak. Leenago ikullu ziranak, orain garaje dira. Garaje aietako batean, zortzi-amar urteko mutil koskor batzuek zebiltzan jolasean. Fubolean ari ziran, baloi gorri batekin. Pelotarik etzan agiri. Begira egon nintzan pixkabatean. Erderaz ari ziran. Nun, eta Aloñaren oiñetan! Nik topo egin nuan emakume aiek izango ziran mutill koskor aien amak. Nolatan umeak erderaz? Zergatik, ordea? galdetzen nion nere buruari.

Ez ote da eskolan etxean egiten dan euskera erakusten etzaietelako?

Luzio Gabiria

GABIRIKO semea zan. Gabiriko Beekoetxe baserrikoa ain zuzen. Otzaurten ezagutu nuan, Naparroa eta Gipuzkoaren arteko mugan.

Beste probintzietatik ekartzen ziran ardo eta zenbait jenerogatik, Diputazioari zerga ordaindu bear izaten zitzaion garai artan, eta zerga aiek kobratzea zan Luzioren lana, edo lanetako bat beintzat.

Uso-eiztari eta amorrai arrantzale pijoa bezin gizon jatorra, oso ezaguna zan Luzio, eta ez det uste lagun paltarik izaten zuanik. Probintzi-arteko mugak iriki ziranean Zumarragara aldatu zan, eta bertako “Caja de Ahorros Provincial”-ean —orduan ala esaten zitzaion— zuan bere ogi-bidea. Bereala nabarmendu zan langille zintzo eta lagun leial bezela. Ñori mesede egiteko aukera zai egoten zala esan zitekean. Argibideren bat nai zutenak lasai jotzen zuten Luziorenkana.

Erri guztiak ezagutzen zuan. Baita estimatu ere. Orain ia bi urte edo, ondo bizi beste lanik etzuanean, 63 urterekin joan zan gure artetik. Zumarragako eliza bertako eta kanpotik etorritako jendez leporaiño beteta zala egin genion azken agurra. Bertso-lariak ere kantatu zioten, euren atsekabea azalduz.

Euskaldun sutsu eta euskalzale purrukatua zan. Beste askori bezela, barruko sentimentuak gordean eduki bearreko denboran bizi bearra ere

gertatu zitzaion, baiña sentimentu oiek beti arkitzen dute zirrizturen bat, nun dauden adierazteko, eta Luziok ere bazituan orrelakoak. Aletako bat bertso-zaletasuna zuala esango nuke. Makiñabat bertso saio antolatu eta aurkeztu zuan bere denboran, bai bere sorterri Gabirian, erriko pestak zirala, bertsolari gazteen txapelketak zirala eta abar, eta baita Zumarragan ere. "Galeperra" alkarte batean antolatu zuan txapelketa aieri esker gaur plazetan kantatzen duten bertsolariak badira.

Batetik eta bestetik bertso-epaiketarako deiak ere izaten zituan. Arreta aundiz artzen zuan lan au, eta kontzientziz eta zuzen betetzen zuan bere eginkizuna. Bertsolariak kuttunak zituan Luziok. Besteai kantatu erazten ona zan, baiña bazekian berak kantatzen ere. Bazekian bere abots mardul arekin lagunarteak alaitzen.

Ain zan bertso-zalea, ilda gero ere bertso jaialdiak antolatzen jarraitzen duala esan diteke. Orrelakoren bat izango zan Uztaillaren iruan Zumarragako "Zelai Arizti" antzokian entzun genduan; bere omenez egiña bai zan.

Sei bertsolari gazte sasoikok kantatu zuten, eta bakoitzari bere tankera ikusten zitzaiolarik, saio polita izan zan.

Ikastolako umetxo batzuek, Txirritak eta Fermin Imazek bertso paperetan alkarri botatako "lorak" ere kantatu zizkiguten. Bertso zaarrak noski.

Irteeran, beti gertatu oi dan bezela, entzule bakoitzak bere iritziak. Iritzien artean, galdera au ere entzun genduan: Oraingo euskera batu onek ba aldu bertsoatarako leengo euskera ark bezelako grazirik?

Jende berria, lege berria

IA gure artetik izkutatua zegon jende mota bat agertu zaigu berriz. Agertu bakarrik ez, baita naikoa ugaritu ere: eskaleak.

Garai batean oso ezagunak ziran. Nunai ikusten ziran: bideetan, errietan, kaleetan, baserrietan... nunai eta asko, nola gizonezkoak ala emakumezkoak.

Danak dira eskaleak, baiña leengoak eta oraingoak ez dira berdiñak. Oraingo geienak eskatu bakarrik egiten dute. Batzuek badira soñua jotzen eta jarduten diranak, baiña ez danak. Etxeko atera datozkigunak ez digute ezer eskeintzen, zerbaiten edo, obeto esateko, diruaren eske luzatzen diguten eskua izan ezean.

Leenagoko eskaleak etziran onelakoak. Aiek etzuten dirua bakarrik eskatzen. Zakua bizkarrean zutela ibiltzen ziran, eta emandako guztia artzen zuten. Dirua bai, baiña baita ogi-zati, artaburu eta orrelakoak ere. Zerbait eman ere egiten zuten, borondate ona besterik ez bazan ere. Eskean irixten ziran etxe guztietan Aitagure bat edo beste errezzateko oitura zan orduan. Oitura eta bearkizuna ere bai, bestela ez baizan limosnarik izaten, zenbait lekutan beintzat. Orain etzaio Aitagureari balio aundirik ematen, baiña orduan bazuan bere garrantzia, eta eskaleak ura beintzat eman bear izaten zuten. Zenbait eskalek bazuan beste zerbait

eskeintzeko oitura ere: kontsejuak. Etzitzaieten asko aintzakotzat artuko, baiña baziran zerbait era-kutsi nai izaten ziguten eskaleak. Pedro Mari Otañoren bertsoak irakurri bestela.

Gure etxera sarritan bixita egiten zuan eskale bat bazan. Oraindik begien aurrean daukat bere bizar zuri luzearekin. Egun batean, makilla aundi bat eskuan zuala atariko atearen erdian zutik, ala esan zigun: “Jende berrie, lege berrie, eta gu bezelako tontook antz emateako, denborea pasa”. Eskolarik etzuan sekula zapalduko, eta Ikastegi Nagusirik izaten zanik ere etzuan jakingo, baiña bere bizitz errukarriari zerbait ikasi zion gizarajoak.

Oraingo belaunaldiko jende berri onek, lege berria egin eta ezarri du. Aurrekoentzat eta aiek egindakoarentzat ez dago gaur estimazio izugarri-rik, baiña leengo jokaera guztia ez dute baztatu, euren erara eta komeni zaieten modura aldatu bai-zik. Ortan trebeak dira benetan.

Jokaera auetako bat, zenbait egunetan aitzaki geiegirik gabe jai egiteko oitura dala esango nuke. Onelakoetan ez da gure jende berria egunsentirako jaikita meza entzutera joango, baiña ez lanera ere. Leengo zaarrak jai egiteko jarritako oiturari ez dio muziñik egingo, eta jaiak alkarren gertuan datoze-nean, laister egingo du zubia jai batetik bestera. Ona emen guztiontzat —guretzat ere bai— ain eder-ki etortzen diran “puente” edo dalakoak. Orra jende berriaren lege berrietako bat, zaarretatik artu eta txukundua, ondua eta osatua.

Guretzat ere ondo etorri da-ta, eman dezaiozun arrazoi jende berriari, merezi du-ta

Miss...

EZ dakit aurten ikusiko degun, baiña eguzkia ateratzen bada eta ez bada, udaran gaudela aitortu bear. Udarak beroa berekin izaten du, eta erropak kenduta gorputza zerbait arintzeko gogoia ere bai. Orregatik izango dira seguru asko udara guztietan ainbeste Miss leiaketa.

Aurten ere asi dira leiaketa oiek, eta urtero bezelakoxe autsak arrotu dituzte. Miss-peri ori ere ez da nunbait danen gustokoa, eta mota guztietako iritziak entzuten ditugu. Danak errespetagarriak, ori bai. Emakumea ez omen da gauza. Ez omen da nunai eta edozeiñi erakusteko egiña, eta ez nolana erabiltzeko ere. Gauza ez, baizik pertsona dala eta orrelakoak.

Iritzi oiek danak arrazoizkoak eta egiak dirala eziñ ukatu. Zibilizatuak gerala uste degun tokietan ere, gizonezkoak ez du emakumezkoa bear bezala errespetatzen oraindik. Esate baterako, indartsuago izateak ez dio emakumea beartzeko eskubiderik ematen gizonari. Ezta beste edozein tratu txar emateko ere, eta orrelakoak gertatzen diranaren berri egunero datorkigu zoritxarrez.

Gauza ez, baizik pertsona dala emakumea. Nola ez? Baiña ori berak ere badaki, eta bere jokabidea orren arabera izan bear luke beti. Emakumeak badaki bera zer dan, eta gizona zer dan ere bai. Badaki gizonak berari begira nola jarri eta gizonai

nola inbiri eman. Gizonen bizkarretik parre pixkabat egiteko griña ere berea du emakumeak. Ez al da ala? Baiña ez ote da or irritx egiteko arrixkorik?

Pertsona izanik, bizimodu egoki baten billa saiatzea, gizartean beste edozein aiña izatea, gizonen eskubide berdiña edukitzea eta oiek guztiak bidezkoak ditu emakumeak, eta elmuga oietara irixteko bere esku dauzkan eginpideak erabiltzea ere bai, iñori kalte egin ezean beintzat.

Asmo auek aurrera eramateko eginpideetako bat, bere burua erakustea izango da bearbada, eta ori bere borondatez egiten badu, bera bakarrik izango da errudun, edo iñor ez agian. Emakumearen bizibearra ikusita gizonak edo gizarteak ori eskatzea edo ortara beartzea legoke gaizki. Orrelakoak ere gertatzen dirala? Ori da txarra.

Gaur egun miss aukeratze oiek ikuskizun biurtu dirala, argi ta garbi dago. Erakusketa oiek makiñabat irrika eta egarri esnatuko dituztela, ez det uste esan bearrik egongo danik. Baiña, gizonak ala nai dutelako edo artara beartzen dituztelako bakarrik jartzen al dira emakumeak ortara?

Diruak almen aundia du eta makiñabat emakumeren soiñekoak urratuko zituan, baiña gertatzen da beste zerbait ere. Oraindik ez dira egun asko egunkari eta aldizkarietako argazkiñak erregin-gai bati bikini-utsean argazkiak atera dizkiotela. Ez da ba diru premian dagolako izango. Ezta gizonen jostaillu, gauza edo "objeto" dalako ere, eta argazkiari begiratuta ez du ematen asarre dagonik...

Zeintzuk ote dira errudun? Gizonak? Emakumeak? Iñor ez...?

Udarako berriak

UDARAK, bere oporraldi, pesta eta abar, baretasun pixkabat ekarriko zigula uste genduan, baiña ez da ala gertatu. Batzuek lanik ez, eta beste batzuek lan egin bearrik ez, kontua da burruka eta istillu paltarik ez dala izan. Alpertasuna griña txar guztien iturri omen da, eta orregatik izango da bearbada, baiña gure artean beretik irten nai ez duan asko dagola ere garbi dago. Aoa betean agindu zitzaigun aldaketa ura ez da oraindik iritxi, berriz, eta bateko edo besteko itzekin bakarrik ez dago emen ezer.

Gure zenbait nai, egarri eta eskubide baztarrera-tu gabe, ekonomiak ere garrantzi aundia duala ezin ukatu, eta sail ontan pozgarri diran berriak entzuten asi gera egun auetan, aspaldiko partez. Berri oiek diotenez, une auetako ekonomi egoera ez da ain txarra. Aurtengo urtean, aspalditxokoetan baiño gauz geiago egitera iritxi gera. Produzioa geitu egin da alegia edo geitu egingo da urtearen buruan, eta ori dala-ta, ortarako bear diran makinak inguratu eta beste zenbait bide zabaltzeko, geroz ta diru geiago ari gera jartzen. Inbertsioa ere geitu egin da.

Ikusten danez, gauz geiago egiteak eta ortarako dirua erabiltzeak salneurrien gorakada zerbait moteldu egin du, eta salneurriai eutsiaz gauz geiago egitera irixten danean dabil ondo ekonomia. Zer esanik ez, elburu ori irixteko dirua bildur geiegi gabe erabiltzen danean.

Oraiñaldian, industriak premizko duten tresneria erosteko ematen da dirua, eta ori da garrantzia duana. Kanpoko nazioekin sal-erosketan naiko leiaketa gogorra daukagu, eta enpresak leiaketa ontan aurpegi emateko gogoia eta ausardia badaukatela esan nai du onek. Ez da gutxi. Itxaropen ematen du.

Beste batzuen maillan bizi nai duanak, ez dauka gaur lo artzerik. Tresneri berri baten bidez gure lantegiak berritzen ez baditugu, jai daukagu. Ortarako dirua bear, ordea, eta enpresak bere moduko irabaziak bear. Ez dago beste biderik. Lanaren bidez dirua irabazten baldin bada, eta irabazi ori bear bezela erabiltzen baldin bada izango da lana, eta lana da emen bear dana, bizi egin bear baita.

Ekonomi osasuntsua duten nazioetan bizi da jendea ondoena, baiña onek ez du esan nai dana diruaren mende jarri bear dala. Gizonak ere baditu bere eskubideak, eta jokabide guztiak bear dituzte neurriak. Eskubideak eztabaidatzean eta jokabideei neurriak artzean ez degu ordea askotan bear litzaken lasaitasunarekin eta ardurarekin jokutzen. Ez ditugu beti kontuak ondo ateratzen. Irten egiten gera arras-totik.

Dana dala, ekonomiari buruzko berriak ez dira ain txarrak, egia esan badigute beintzat, eta ez dedilla gure artean baretasunik galdu, erne egon bearra izango baldin bada ere. Beti izango dira langak jarri berrak, baiña arrautzak eta tomateak urdaiazpikoarekin ederki maneatuta, ez ote luteke etekiñ ohea emango Udaletxera botata baiño? Aldi bakoitzari bere zumua ateratzen ikasiko al degu noizbait, bestela ez degu praka berri asko egingo.

Pesta egun kaxkarrak

GIZONA bakarrik omen da arri berean bi aldiz estrapu egiten duan aberea. Ez da oso-osorik ala izango bearbada, baiña egi itxurak baditu onek. Eta utsa litzake gizonok arri bera bi aldiz bakarrik joko bagendu, askoz geiegotan jo arren ez baidiogu etsitzen. Ez baigera zuzentzen.

Beste tokietan ez dakit nola izango dan, baiña gure artean ondo argi ikusten da au. Joandaneke ez dakit zenbat urte auetan gerra eta sesiorik ez da palta emen. Noizean bein pake pixkabat izango ote degun, baiña bai zera. Berriz ere leenera jartzen gera. Gutxiena uste degunean sortzen zaigu korapiloren bat. Adur gaiztoren bat badegula dirudi.

Jipoirik asko artuak gera, baiña orrelakoeri nola aldegin edo erasoak nola gainditu pentsatzeko eta zer komeni zaigun erabakitzeko ezin gera alkarganatu. Aspaldiko gaitza degu au, betikoa ez esatearren. Urteak dira Xenpelar bertsolariak "alkarregana bildu" eskatzen zuala.

Ez gera, ordea, alkarregana biltzen. Ez degu bat egiten. Danori komeni zaizkigun neurriak artzeko ez, eta guztionak diran arazoak konpontzeko ere ez. Iñori kalte egin gabe gure asmoak aurrera eraman eta premiak estali litezkenean ere, zartakorrak gera. Zirriztu asko uzten ditugu itxi gabe, eta oieta-

tik sartzen zaizkigu arerioak. Akats au ikusten degu, badakigu nun dagon arria, eta ala ere beti bertan estrapu egiten degu.

Badira gure artean —eta gaiñetik daudenen artean zer esanik ez— gizartea eraberritu bear dutela diotenak. Gu ber-erosi eta zuzentzeko nai dute aginpidea. Gure arteko pitzatu eta izauzietatik barrura sartzeko aukerarik ez dute galtzen, baiña emengo egoera obetzeko, zauri zaarrak sendatzeko eta ain premizko zaigun pakea lortzeko dala esaten duten bidea artzean, leengo arri tontorrean estrapu egiten dute. Eta ez bein da bi aldiz bakarrik.

Danok uztarri berean lotu nai izatea, ez dute atzo goizeko ametsa, baiña ezin dute asmo ori burutu. Ortarako bide egokia etzuten aukeratu, eta orrek nolako emaitzak ekarri dituan ez dute ikusten.

Gizonari ez dago derriorrean ezer maitatu erazterik. Legeak ez dio besteen idea, irudi eta gaiñontzekoenganako maitasunik sortzen biotzean. Besteen gauz oiek bereak baiña obeak dirala argi ta garbi erakusten baldin bazaio, zerbait itxaron diteke. Bestela ez. Indarrak bildurrez geldierazi dezake gizarte bat, baiña maitasuna sortu ez, eta egoera ori noiznai autsi diteken gezurrezko pakea izango da.

Alkarrizketaren bidez pake billa saiatzeko deiak ere izan dira. Eta zer? Alkartu nai eza eta agertu naia nagusi. Aitzaki asko eta borondate gutxi. Leengo arria or egon eta an estrapu egin, nola batzuek ala besteek.

Ezkontz-austea

EZKONTZ-auste edo diborzioa arautzeko legea egin zanean, berebiziko kezkak sortu ziran. Kezka auetako bat, lege onek familiari ekarri zezaiokeen kaltea zan. Senar-emazteen arteko lotura lasaitu egingo zala eta aitzaki aundirik gabe eten ere bai, eta ortik familiaren ondamendia zetorrela alegia.

Gizakiaren berekoitasuna kontuan artuaz eta abar, ezkontza austeko erreztasun pixkabat eman ezkerro familia koloka ikustea ez litzake batere arritzekoa. Zenbait aldi eta egoerak erremedioaren bat bear izatea ere bidezkoa dirudi berriz. Alkar maitatzea, batabestearen akats eta utsarteak barkatzen eta pazientzian eramaten saiatzea eta orrelakoak itz ederrak dira, baiña batzuetan betetzen zaillak eta zenbait egoeratan betetzerik ez dagonak zoritxarrez. Senar-emazteen artean maitasunaren lekua gorrotoak artzen duanean, itz ederrak alperrik izaten dira. Sortzen dan inpernu artako sua itzaltzeko, beste zerbait bear izaten da. Gizonak ez gera aingeruak, eta gizonari dagozkion erremedioak bear noski. Orrek ekarriko zuan ezkontz-austea arautu nai izatea.

Aldaketak kezkak berekin izaten ditu, eta aitatu degun lege berriak ere bazituan, baiña ez da dana bildur giñan bezela gertatu. Uste zan aiña famili ez omen dira desegin, eta onek poz ematen du. Maita-

sunan zer dan eta maitatzen ikasteko gizakiak duan eskola bakarra familia dala esan ditek. Gurasoen eta seme-alaben arteko maitasuna nun arkitu, familian ez dala? Ortik aurrerako maitasuna, lagun urkoa bere burua bezela maitatzera irixtea, zail samarra izango da. Elburu ori lortzea gauz ederra izango litzake, baiña gaurko gizarteari begiratuta ortik urruti gabiltzala aitortu bear. Geuretzat nai ez gendukena iñori ez opatzea ez da gutxi guretzat, eta batabestea errespetatzen jakitea ere ez. Orrela jokatzen nun ikasi familian bezin ondo?

Familiaren zeregiñak asko eta garrantzitsuak dira itz gutxitan esateko, eta zenbait kezka eta susmo egi ez biurtzearekin mesede ederra izango du gizarteak. Etorkizuna illun ikusten zutenak ez omen dute asmatu oraingoan. Ez; ez da berri txarra.

Baiña izan bear dute ipurdikoa artutakoak ere. Ezkontz-auste lege onek, senar berri-periak edo senar-peri berriak irikiko zituan itxaropenez bizi ziran emakume asko. Ezkontza berri baten bitartez bizimodua euren erara zuzendu nai, baiña ez omen dute dana asmatu gajoak. Gizonezkoak bildur omen dira bakarrik bizitzeko, eta bereala inguratzen omen dute lagun berria, ori bai, baiña ezkontza austerako aukera egiña edukitzen omen dute, eta artzen duten lagun berria leengoa baiño gazteagoa, eta geienetan beintzat, ezkongai izaten omen da. Sakabanatu eta berriz ezkondu eta orrelakoak, ez dira azaletik ikusita ematen duten bezin lan errezak. Ortarako, ondo-ezia eta aberatsa bear omen da izan. Ez dakit ondo-eziak izatera iritxiko geran. Aberastu ez gera sekula egingo, eta obe izango degu txoriburukeriai utzita leenean jarraitu.

Oporretako kontuak

AMAITZERA dijoan opor garai ontan bateonbati entzungo genion “De Rodriguez” dagola. Danok dakigun bezela, familiak aldi baterako aldegin eta etxean bakarrik gelditzen dan gizonari esan oi zaio “Rodriguez” ori. Gaur egun, senar-emazteak geienetan beintzat biak batera artzen dituzte oporrak, eta aurrentzat ere tokiz aldatzea ondo etortzen dala eta abar, famili osoa joaten da norabait. Oitura au oso zabaldua dago zorionez.

Izaten dira, ordea, batzuek oporretan dauden bitartean, beste batzuek egin bearreko lanak. Orrelakoetan, emaztea eta aurrak joan eta senarra etxean gelditu bearra gertatzen da iñoiz. Batzuek joango dira amaren etxera edo orrela, baiña ori egiterik ez daukatenak “de Rodriguez” gelditu bear. Emazteak jakiten dute senarren berri, sukaldaritzarako zenbateraiñoko abildadeak dituzten ere bai, eta aldizkarien bidez-eta, berebiziko aolkuak ematen dizkiete bakardade tristean gelditzen diran egun oiek al duten ondoen igaro ditzaten. Jakin dezatela urruti daudenean ere badutela senarren ardura. Eskertzekoa da ori ere.

Ain erakutsi goxoak eta leunak ematen dizkigute, badirudi emazteak penatxo dutela joaten dirala gure ondotik eta berriz inguratu arteko onik ez dutela izango, baiña ala ere ez dira etxean gelditzen.

Dana dala, eurekin eramatea aztu balitzaiete bezela, maien baten gainean an utziko dute irakurtzeko oitura duten aldizkari oietakoren bat, eta an esango zaigu nolako janariak komeni zaizkigun, merkeenak eta gertatu-errezanak zertzuk diran eta abar. Emazteak ondo asko dakite aurrez neurriak artzen. Senarra erdi-goseak egon baldin bada, etxeratzean kopet illuna arkituko dute, eta erdi-makalik badago ere ez daukate konturik. Ondo gobernatuta indarrean egonak ere baditu berriz arrixkoak, pikar-dirako gogoa-ta ortik etortzen baitira. Edozein aldetik begiratuta ere, emakume gajoak beti galduan. Urtean bein izango oporrak, noizean bein izango egun batzuek lasai samar igarotzeko era, eta orduan ere, umeak naikoa ez dirala, senarra ere zaindu egin bear, noizean bein telefonoz deituta bederik.

Onelaxe nengon lengo egun batean gauz aueri antzeman eziñik, eta or nun irakurtzen detan Mejikon amairugarren aldiz ezkontzera zijoala baitu zuala gizon bat poliziak. Aurreko amabi andreekin aur bat edo beste egin erazi arteko arremanak besterik ez omen zuan izan. Batekin aspertzen zanean, or konpon, eta beste batekin ezkondu azkar. "Rodriguez" ez baiña, "Judas" izango zan ura.

Arjentinan berriz, ogei ta amabi ume izan omen ditu emakume batek bi senarrekin. Lenengoarekin ogei ta bost eta bigarrenarekin zazpi. Emakume ori beartsua izan nunbait eta senar baten laguntza nai. Etzuan laguntasun ori gutxi ordaindu gajoak. Errez esaten da, baiña besteak beste ogei ta amabi aur egi-teak izango ditu bere lanak. Onek esaten du pixkabat zenbait emakume zergatik joaten diran ain pozik oporrak pasatzera, senarrak "de Rodriguez" utzita. Urtean illabete edo besteko pakea gaizki etorriko al zaiete?

Egun bat geiago

JUBILATUENTZAT sarritan izaten dira orain ibillalditxo bat edo beste egiteko aukerak. Alako bat genduan leengoan, eta Bizkai aldetik jiratxo bat egiñak gera.

Aurrezki Kutxaren baten laguntza dala eta abar, eguna merke pasatzeko egokiera danean ez da bezero paltarik izaten. Kutxa oietara nai aiña diru eramaterik ez degunok ere zerbaiten poza bear.

Bergara aldera iritxi giñanean, bereala konturatu giñan egin diran berrikuntza batzuekin. Oraindik denbora asko ez dala Bergaratik Maltzagara joateak bazituan bere lanak. Gaur beste gauz bat da. Ango estuune eta arrixkoak aztu erazi ditu egin dan bide berri ederrak. Plazentxiarrai galdetu bestela.

Eibar ingurua berriz, illun samarra iruditu zitzai-gun. Zenbait industrietxe eta lantegi bein betirako ondatu dirala esan diteke. Orain dagon baiño itxaropen geiagorekin eraikiak izango dira, baiña zikin-duak, ondatuak, eta kristalik gabeko leioak ustutako begi-zuloak diruditela, baztarrera botatako gorputz illak ematen dute. Urte obeak etorriko al dira.

Bizkaian sartzean, Durango aldeko ibar mardul aiek ikusita biotza lasaitu egiten da. Alde guztietan bezela danetakoak ikusten dira, baiña toki ederrak ere badauzkate gure anai bizkaitarrak. Ango soro, zelai eta erri, eta baserri bikaiñak ere asko, Euska-

lerria maitatu erazteko modukoak dira. Bizkaitarrak euren lurraldean ain estimatua izatearekin ezin arrituko gera, merezi du-ta.

Bizkaiari mendiak ikusten zaizkio illunak, gu ibilli giñan alderdi artan beintzat. Bideko gaintxo batean gelditu giñan pixkabatean, eta amarretakoa egiñaz an egon giñan aldamenetara begira. Pago bat etzan ikusten. Dana piñua eta piñua. Esan ere egin genduan, surik ez al zala piztuko mendi aietan, bestela laister kiskalduko zala Bizkaia geiena.

Bereala iritxi giñan Gernikara. Biltzar-etxea ikusi genduan bai kanpotik eta bai barrutik. “Onelako erregek, alako urtetan foruak ziñ egin zituan. Beste alakok, alako urtetan berriztatu zituan foruak...”. Zenbat burutapen! Arbola ere ikusi genduan. Nola ez? “Gernikako Arbola” kantatu genduan bere itzalean, baiña etzitzaigun irten nai bezin indartsu. Zein euskalduni etzaio, izan ere, eztarrian korapillo estua jartzen aritz zaarrari bere azpian kantatzean?

Gernikatik, Lekeitiora. An bapo bazkaldu, Deba eta Elgoibar ikusi, eta etxera. Egunkariari ikusitxo bat eman egin bear da. Baztar batean onela zion gutxi gorabera: “Izubiderik eta lege-austerik ez balego, zoriontsu giñake”. Bi gaitz oiek zuztarretik—baiña zuztarretik— atera ezkerro, zorionaren zati bat eskuratuko gendukela, ezin ukatuko degu, pakea gauz aundia baita, baiña ori esanda lasai gelditzea arazoak geiegi soiltzea ez baldin bada... Gaurko gizartea arazo askok astintzen dute. Arazo oien sustraia nun dagon leialtasunez aitortu eta konponketak egiten zintzo saiaturiko diran gizonak etorriko dira oraindik. Orduan asiko da zoriona. Bienbitartean, “Beste egun bat ere joan da” esan bear.

Bakoitzaren egitekoak

EGUNKARIAN irakurri ditudan bi albistek, goibelduta utzi naute. Oietako batek dionez, Gazteizen bi neskatx baitu ditu poliziak. Bitxi-denda edo joieri batetik 2.500.000 pezetaren balioa duten gauzak lapurtu omen dituzte, eta jazkiak ere bai beste denda batzuetatik. Neskatx oietako bat ogeita bi urtekoa omen da. Bigarren berria ere onen antzekoa da. Ermuako arategi batetik 10.000 pezeta ostu omen dituzte bi neska gaztek. Auetako bat, arategi barruan arrapatu bertako etxekoandreak, eta berekin burruka aldi bat eginda igesi joana omen da. Neskatx oiek pena eman didate, egia esan.

Emakumeak gizonaren eskubide berdiñak dituala, bizitzeko aukera berdiñak bear dituala, eta orrelako arrazoiak noiznai entzuten ditugu. Orrelako pentsamentuak aize emanda asi ote dira lapurretan? Penagarria izango litzake. Emakumezkoa gizonetzkoaren berdiña dala ere esaten dute batzuek, baiña ez dakit au onela izango ote dan. Gizonezkoa aiña bai noski, baiña berdiña ez. Gizonaren eginkizun batzuek, ez dira emakumearentzat egiten diranak, eta emakumeak ondo egiten dituan zenbait lan egiteko, gizonetzkoa ez da gai. Ori garbi ikusten da.

Gizasemea, emakumezkoa baiño zakarragoa da berez. Orregatik, emakumearen egitekoetako bat gizartea zerbait baretzea, alaitzea, gozatzea eta

edertzea dala esan diteke, eta ortarako ez dauka bere nortasuna galdu bearrik. Ori egin arren ez dauka bere eskubideai eutsi eziñik. Ezta aurrera-koia izan eziñik ere. Itz gutxitan esateko, emakumeak ez dauka txarrera jo bearrik gizona aiña izateko. Gogorrean lapurretak egitea ez da emakumearen egitekoa. Gizonarena ere ez noski, baiña emakumearena gutxiago. Traketsaren traketsez zigortu bearrerekorik baldin bada, gizonetzkoak izan ditezela, baiña emakumeak izan ditezela jokabide zuzenaren mandatari. Gizonak burua galtzea baiña emakumeak galtzea ez dakit okerrago ez ote dan. Pamilirako beintzat baietz esango nuke. Era ontako albistez josita datoz egunkariak, baiña ez degu etsi bear, denborak zenbait arazo konpontzen ere badaki-ta.

Gizonetzkoak ere sakatzen ditugu ba ederrak. Gipuzkoako erri bateko ballara batean, eskolak antolatu bearra edo, eziketa-arazoak omen dituzte. Udal-batzarrak gauzak ondo egin nai, eta ballara ortako bizi-lagunekin batzorde bat osatu du, baiña zeintzuk izendatuko batzorde ortarako, eta lau mutilzar alajaiña. Iru mutilzar eta apaiza, obeto esateko, eta jakiña, alako porru aziak atereak izan bear dituzte. Umeen eziketa burutzeko, mutilzarretara jo, alazankoa. Emakumeak lapurretarako aiña taju bai ote dute mutilzarrak umeak ezitzeko? Ez dakit erri ortako alkate jaunak nere lantxo au irakurriko duan. Ala baldin bada, auxe esateko baimena eskatzen diot: esandako ballara ortan izango da alkarte edo soziedaderen bat. Apari on bat moldatu, eta gonbidatu ditzala mutilzar oiek, apaiza ere tartean dala, eta apalondan puruak piztean atera dezala platerera eziketa-arazo ori. Ikusiko du nolako pulamentuzko erabaki egokiak artuko diran. Neskatxak lapurretan astearen arazoak orren errez konpondu al balitezke...

Aurten ere bai

BAI. Aurten ere Urbasatik joan-etorri batzuek egiña naiz, urtero bezelaxe, eta geiago ere egin nai nituzke oraindik. Bateonbategen esan du onezkero Urbasarekin txoratuta nagola. Egia. Egia, edo dana gezurra ez beintzat. Aurtengo udaran alako eguraldiak egin ditu, eguzkia artzeko aukerarik asko izan degu. Urrutira joaten ibilli gabe gaiñera.

Urbasan izan nintzanetako egun bat astelena zan, eta etzegon buerda aundirik. Bero egiten zuan benetan, eta abere bat bakarra ere etzan larrean ikusten. Ango ardi, beor eta beiak itzalera eginda zeuden nunbait. Oial-etxola edo “tienda” batzuek agiri ziran, oportetan zeudenenak edo. Irrati-otsa ere entzuten zan.

Eguzkiak zuzen-zuzen jotzen zuala esan zitekean, eta zelaian kamamilla biltzen etzegon giro, baiña ori ez da arazoa Urbasarako, itzala nai duanak ez baitauka bide luzean billa ibilli bearrik. Mundu ontako burruka, gogorkeri, ezin-ikusit, zipoizkeri eta abarren berri egunkarian irakurtzen aspertuta dagonak, gustoko liburu bat lagun artuta orduak igarotzeko giro ederra, errez arkitu dezake Urbasan. Iturri ederrak ere badaude. Eltxo-Iturri (*La Fuente del Mosquito*) deritzaiona bat. “Au ez da ura —zion edaten ari zan gizon batek—. Au urrea da”. Iturri ingurua garbi ta txukun zegoen azkenengo izan nintzanean. Beti ez da ala ikusten. Jaten

ematen duten txabola-moduko bat ere badago bere edaritegi edo "Bar" eta guzti, Urbasara dijoanari ezer palta ez dakion.

Nere lagun ataundar bat ere an ikusi nuan. Oporraldia Urbasan botatzen du urtero. Makilla luze batekin eta buruan sonbrero txiki bat, bazirudian ango "turista" guztien artzaia. Bi errezildar euren emazteekin. Lenengo aldiz joan omen ziran, eta atsegiñez zebiltzala ziruditen. Urbasak ez du iruzurrik egiten. Atzerritar batzuek ere azaldu ziran, alemaniarrek edo. A zer nolako gazta jana egin zuten. An ziranak garbituko zituztela uste nuan.

Egunez bero egin bazuan ere, arratsaldean aize pixkabat atera zan, eta goi urdiña ikusten uzten duten egoaize-laiño me oietakoak azaldu ziran zeruan. Uraxe zan Urbasarako izan ditekera girorik zoragarriena.

Etixerakoari eman bear, ordea, baiña giro ari zumu pixkabat geiago atera nairik, bidean gelditu eta irratia piztu nuan. Bi bertsolari gazteen bertsoak entzuten ziran. Bat, neskaxa zan. Mutillak bota zuan bertso baten bukaerak, zearo tristetuta utzi ninduan. Ez ditut itz aiek emen jarriko. Nere ustez, ez dira papererako egiten diranak. Askatasuna bearrekoa da, baiña edozer gauz edozein tokitan eta edozein moduz esaten duan gizonak, kategoria galitzen du. Ori egiten duana bertsolaria baldin bada, bertsolaritza ere ez da irabazian irtengo.

Entzuleen sentimentuai burla egin gabe kantatu bear du bertsolariak, al badu beintzat. Ironiaren tokia doillorkeriak artzen baldin badu, bertsoak ez du meritu izugarririk izango.

Baditeke ni oker ibiltzea. Ala baldinbada, barkatu, irakurle.

Oñati

GURE Gipuzkoa menditsu onek, erri zabal, patxaratsu eta atsegiñak ere baditu. Oñati degu erri auetako bat, zalantzarik gabe.

Ibar zoragarria da Aloña mendiaren oiñetan dagona. Bertan erroturik arkitzen dan erri langille, alai eta jostalari au, aintzakotzat artzeko modukoa da benetan. Edozein tokitatik begiratzen diogula ere, soro eta zelai mardulez inguratua ikusiko degu. Lur eroso eta emankorrez osatua dago Oñati. Erri-inguru mardul oietan banaturik dauden baserri bikaiñak daude ori esaten.

Erriaz gaiñera baillara asko ditu Oñatik, eta ez nolanaikoak. Araotztik asita, bakoitza bere baseliz eta guzti, garai bateko oñatiarrak zer ziran ondo erakusten digute. Baita gaurkoak zer diran ere, baillara auek guztiak maitasun aundiz zaintzen baidituzte. Edozeiñetara joaten zerala ere, toki alai eta argi askoak ikusiko dituzu, oñatiarren bizipozaren ezau-garri, euren bizi-tokiari kabi eder batek eskatzen dituan arreta eta zaletasunez eusten diotelarik.

Oñati aldeko sailletan dauden ondo berritutako baserri zabalak ikustean, Txomin Agirrereren *Garoa* liburuan irakurtzen diran zenbait kontakizun etortzen dira gogora. Baserri ermo oiek, antziñako oñatiarren nortasun sendoaren ispillu dirala esan ditekete, eta baserritar aiek badituztela oraingo bizikerak eskatzen dituan oiñordeko zintzoak.

Baiña Oñati ez da bizi leenari begira bakarrik, eta industriz ere ornitua dago. Oñatiarrak ez dira atzera begira eta beti bere artan egoteko onak, langilleak eta zirt edo zart egiteko kupirarik ez duten oietakoak baizik, eta orra nolako erri atsegin eta aurreratua moldatu duten. Txokolate usai gozoa banatzen zuten fabrika aiek aztu ziran, eta oraingo teknikak eskatzen duan erako lantegi egoki batean jarraitzen diote leenagoko langintza zarrari.

Kondaira luze eta bete-betea du Oñatik. Ontaz jabetzeko ez dago bertako jauregi eta etxe bikaiñak ikusi besterik. Aiek daude esaten erri au zer izan zan, dan eta izan nai duan. Artezalea danak badauka an zer ikusia eta miatua.

Beste zerbait ere badu Oñatik arro-arro egoteko: Arantzazu. Eragipen aundia izan du eta dauka oraindik Arantzazuk Euskalerrian. Beste praille-etxe asko bezelaxe, jakintzaren gordeleku eta zabaltzaille izan da Arantzazukoa ere. Oso oraingotua dagola esango nuke, eta jarrai dezala orrela guztion onerako, argi premi ederra dauka Euskalerrriak oraintxe ere-ta.

Komentuz ondo osatua izan da beti Oñati. Auetako batzuek ikastetxe biurtuta daude gaur, Eteo esate baterako. Zenbat mesede egin ote du ikastetxe onek Oñatin eta inguruko errietan?

Iraillaren 29'an, San Miguel egunez ari naiz lantxo au idazten. Oñatiko pestak edo pestetako batzuek dira gaur, pesta asko ospatzen baita an urtea zear. Ez da señale txarra. Oñatiarrak garai bateko bikaintasunari eta aberastasunari eusten dietela esan nai du onek. Jarrai dezatela orrelaxe.

Aberastuko ote gera?

TXIRRITA bertsolaria, lodia, astuna eta naiko baldartua zegon bere azken urteetan. Maku-lua berekin izaten zuan, baiña aren laguntza ere etzuan geiegi izaten.

Donostiara bertsoak kantatzera joan bearra izan zuan batean, bakarrik joateko gauza ez, eta kotxean eraman zuten. Nere lengusu batek eraman zuan ain zuzen. Kotxean sartzen lagundu omen zion, eta nolabait ere katonatu omen zan beintzat. Atzekaldeko exerlekuan bere burua lasai-lasai ikusi zuanean, ala esan omen zuan: “Ez giñun bereala aberastekuak, baiña oraintxe aberastu gaituk”.

Ikusten nago guri ere orrelako zerbait gertatu bear zaigula. Orainaldiko albiste batzuek diotenez, datorren urtean pertsona-errentaren zergak jetxi egingo omen dira. Itz gutxitan esateko, Estadu, “Hacienda” edo dalakoari diru gutxiago eman bear-ko omen diogu. Onek bizimodua merkatu egingo du, eta ea aberastu bearren gertatzen geran.

Zergak gutxitze au ez omen da ordea Estadua dirutan igeri dabilrelako, eta onek ematen du bere kezka. Au esatean, gaur jeixten diran ordaindu bear-rak biar atzera igo litezkela alegia. Piakaitz biurtze-ko lain ezaguera edo esperientzi ere izan degu aspaldian, eta entzuten degun guztia leenengoan ez sinistea ez da arritzekoa.

Zergak ordaintzetik iges egiten dutenak geroz ta gutxiago omen dira, eta ordaintzen ditugunok nola geitzen ari geran, bakoitzak leen aiña ordaindu bearrrik ez. Bazan garaia zerbait egiteko. Au onela bada, bearkizuna duten guztiak ordaintzen asten diranean ez gera gaizki izango, nola ta kobratu bear duanak eder iritzita geiago eskatzen ez digun beintzat. Ez piatu geiegi.

Albiste onek pentsamentu mikatzak ere sortzen ditu. Aspaldi ontan, batzuek bakarrik izan gera Estadua bizkarrean erabilli degunak, ikusten danez. Gu baiño bizkorragorik izan da, guk nola ordaintzen genduan begira parre ederki egiten zutenak. Gu baiño seguruago aberastuko dira alakoak.

Badirudi gauzak euren tokira etortzen asi ote diran, baiña baita oraindik naiko zeregiña ote dagon ere. Oraindik egun asko ez dirala kotxearen gurpilla zulatu zitzaidan. Ainbesteraño zulatu ere, gaiñeko eta barruko goma biak berriak ipiñi bear izan nizkion. Baiña etzan dana emen bukatu. Goma oiek ordaintzeaz gaiñera, IVA edo dalako orregatik 838 pezeta ordaindu bear izan nituan. Paseak pasa, ordaindu bearrekoak ordaindu, eta "Hacienda"-ri erregalia eman bear gaiñera, asarratu etzedin.

Nik aiñako suertea izan zuan "Hacienda"-k. Gurpilla zulatuta bide-baztarrean gelditu bearra ez al da naiko zoritxarra, bideetako zuloak betetzen ez dituanari propiña eman bear izateko?

Besteei jarraitu eziñik gelditzen danarentzat ez dago emen errukirik. Orregatik, datorren urtean "Hacienda"-rekin kontuak egiñ artean obe izango degu kanpaiak jotzen ez asi, kaskarrekoen bat artu gabe.

Bada ez bada ere...

Egoaizea

DENBORAK gauz guztiak aldatzen ditu, eta denboraren joanak aldaketak egitea berea du. Gu bizi geran toki ontako giroa ere ez da garai batean ezagutu genduanaren berdiña.

Urte sasoi zoragarririk baldin bazan, udazkena zan bat. Orain urte batzuek, Euskalerriko giroan egoaizea izaten zan nagusi, eta nagusi atsegiña gainera. Sartaldeko aize zakarrarekin —ar aizea esaten diogu guk— nastu gabeko aize epel eta bigun artaz gogoratzean, oroitzapen gozoak etortzen zaizkigu burura. Sorotik lapikora eramaten zan babarrun berri mamitsu ura, gaztaiña biltzea, udazkeneko eguzki bigunak eta egoaizeak ondutako garoaren usai berezi ura, mendi-bideetan gurdien irrintziak, usoak...

Gurdi-garoen orde, tonelada asko daramazkiten kamioiak dira gaur kamiñoetako jaun, eta garo usaia gasoil errearen keak baztatu du, baiña urteen eta nekeen poderioz gerriak okertutako baserri-tarrik ez da ikusten igitaiz garoa ebakitzen. Giroa aldatu da, eta bizimodua ere bai, bazan garaia-ta. Artaraiño zartu baiño len, jateko lain beintzat ematen zaio gaur langilleari, eta naiz eta egoaizerik ez, asko dira udazkeneko eguzki epeletan patxaran kontu-kontari ikusten diranak, danak merezi aiña sari ez badute ere.

Eta usoak? Nun ote dira eguzkia estaltzen zuten garai bateko uso talde aiek? Zenbait ekologista oso kezkatu ikusten ditugu usoak galtzen ari diralokotan. Oraingo eiz-goseak eta tiroa tiratu bearrak uso-arraza lurretik izkutatu bear duala diote. Usoak ez dute onekin mesederik izango, baiña ez da orrenbesteraiño izango.

Etiket gertu, adarrak okertzeraiño pagoak betean usoak gelditzen ez degu geiago ikusiko, baiña emendik ez bada ere beste toki batzuetatik usoa ugari joaten da oraindik. Emendik gutxi pasatzea, egoaizearen gorabera utsa dala esango nuke. Udara pasatuaz umeak ateratzen dituzten Europako basoetatik Afrikara joateko, ez lukete emendik pasa bearrik, baiña egoaizeak bultzatzean al dutena egin bear, eta orduan etortzen dira onuntza. Orain len aiña egoaize ez ibiltzen berriz, eta nai duten tokitik joaten dira bizkor asko, gu aoa bete ortzekin utzita. Usoak leenagokoen berdiñak dira, baiña giroa ez. Giroa aldatu da.

Garai batean pagope batean izkutatuta jartzea naikoa zan uso mordoska bat botatzeko. Gaur, berriz, eiz-leku itxurazko bat izango baldin bada, millaka duroak ordaindu bear dira. Leenago etzan orrelako lujorik, baiña orrelaxe aldatu da bizimodua, azio aundirik egiten ez bada ere. Etorri ezean ezin bota usorik, eta au ez da udazkenean eiztariak asmatu oi dituzten gezur mardul oietako bat.

Leenagoko giro ari agur egitean onelakoxe aldaketak ari gera ezagutzen. Oraindik badago zer konpondua, baiña garo usaiaren eta egoaizearen aldian baiño bizimodu erosoagoa daramakigu. Espirituaren premiak gorputzarenak bezela estaltzen asmatzen baldin badegu, berriro giro ederra nabaituko degu gure inguruan.

Oargabetanik

ASMO onez ari geranean ere, bein baiño geia-gotan uts egiten degu zer egiten degun ondo oartu gabe. Gero damutuko bazaigu ere, askotan uzten diogu txoriari eskutik iges egiten.

Oraindik denbora asko ez dala, SIADECO'ren zuzendari dan Iñaki Larrañaga izan genduan Legazpin. Jaun onek egunkari batean aspalditxo esan zuanez, euskerak atzerakada gogorra egin du azkenaldi ontan, batez ere erri aundietan, eta euskerari eutsi nai baldin bazaio, gaitz oni erremedioa jartzea baiño lan estuagorik ez dago.

Legazpi ez da erri aundi oietakoa, baiña emen ere euskera gaitz berak jota dagola dirudi. Ez noski arazo onetaz iñor arduratu ez dalako, baiña zerbait gertatzen da. Bere garaian ikastolak iriki ziran, eta makiñabat aur pasa da oietatik. Oraintxe ere ez da talde makala bere ikasketak ikastolan egoten ari dana. Euskaltegi eta abar, elduentzat ere badago aukerarik asko, baiña euskerak ezin bururik altxa ala ere. Euskerari bideak zabaltzen ainbeste saiatu ziranen lanak eta buruausteak ez dute nai aiña etekin ematen.

Arazo oni arpegi emateko buruz jokatu nai baldin bada, euskera nun zer egoeratan dagon jakin bear da lenengo. Ori izan zan Iñaki Larrañagak begien aurrean jarri ziguna. Ortarako bear dan dirutza eta abar, badago zer pentsatua.

Euskeraren alde ainbeste lan egin eta ala ere egoera ontara etortzeak zerbait esan nai du. Errian bizi diran asko sekula euskaldun izan ez diralako, eta euskaldun geran zenbait zer zetorkigun oartu ez giñalako, orain erria euskaldundu nai, eta komeriak.

Euskerarentzat urte txarrak izan zirala, egia da, baiña ekaitza pasa zanean zertan ari giñan oartu izan bagiña, ez genduan orain ainbeste kezka edukiko bearbada: gure aur eta gazteetan euskerarenganako maitasuna sortzen alegindu ote giñan?

Euskera gaian bere gogoko jakia eman ote zitzaion erriari? Uste ez degula uts egiten degu askotan.

Egialde ballaran, Lakiola deitzen diogun alderdi bat badegu Legazpin. Or-emenka baserri batzuek eta mendia. Ez dago beste ezer. Breaz eta porlanez egindako bide ederrak. Aiek irikitzeke modua egin zuten agintariak jator portatu ziran. Bidegurutzee-tan seiñaleak ere badaude, eta aietako bietan beintzat *CEDA EL PASO* jartzen du. Legazpik duan ballararik euskaldunena bera izango da agian, eta orra. Alamo-uzko tokietan EMAN BIDEA ere ikusten da. Eskubidez dijoana, bere bidetik dijoa, eta ez dago ari bidea eman bearrik. UTZI JOATEN edo orrelako zerbait jarri diteke, baiña *CEDA EL PASO* ez beintzat.


Seiñale aiek jartzeko agindu zuanak, borondate-rik onenarekin egingo zuan. Ez det orren zalantzik, baiña etzan oartu zer egiten zuan. Mundua mundu dan ezkeroztik euskera beste izkuntzarik etzan entzungo mendi aietan, eta begira nolako erakustoki edo "escaparate"-a moldatu zuan erderarentzat.

Aurkibidea

Itzaurrea	7
Eskertu nairik	15
Arrolioa = Petroleoa	17
Etxekoandreak eta fubola	19
Leen eta oraiñ	21
Argialdia ote degu?	23
Kolesterol eta alkatxofak	25
Agindu naia	27
Abere-azitzailleak	29
Nola asmatu?	31
Aspaldiko esaera bat	33
Legazpitik Segurara (I)	35
Legazpitik Segurara (II)	37
Liburu berri bat	39
Egun okerrak	41
Treanean	43
Itz alperrak	45
Aizea	47
Etxekoandreen sindikatoa	49
Mendi-bideak	51
Txirrindulari udatiarrak	53
Eiztariak kezketan	55
Omenaldi bat	57
Aur gutxi ta zaar asko	59
Urteak eta eguzkia	61

Ego-Afrika	63
Ezbearrak	65
Txitzarroa	67
Aldaketa premia	69
Udazkena	71
Urbasa	73
Fubola, pelota eta abar	75
Bide obeak bear	77
Otxaportillo	79
Jubilatuen arazoak	81
Ikasten	83
Akatsa	85
Japondarren berriak	87
Bertsolariak eta bertso idatziak	89
Siñeskeriak	91
Zenbait berri	93
Urte berria	95
Zuzentasuna	97
Oitura aldaketa	99
Ipar Amerikako kontuak	101
Negua	103
Estalgarriak	105
Tabakoa	107
Oraiñaldiko aizeak	109
Betiko kanta	111
Nagusia ren txakurra	113
Arrantzaleak	115
Mirariak	117
Zegama eta Papelera	119
Jaurlaritza berria	121
Traputxoak	123
Eta oraiñ zer?	125
Apirilla	127
Itzaldi bat	129
Egun bat	131
San Isidro	133

Zurumurrak	135
Arantzazu eta pakea	137
Obra onak	139
Ibillaldi bat (I)	141
Ibillaldi bat (II)	143
Ibillaldi bat (III)	145
Erantzun motzak	147
Brasilgo berriak	149
Modak eta asmakizunak	151
Zergatik?	155
Luzio Gabiria	157
Jende berria, lege berria	159
Miss... ..	161
Udarako berriak	163
Pesta egun kaxkarrak	165
Ezkontz-austea	167
Oporretako kontuak	169
Egun bat geiago	171
Bakoitzaren egitekoak	173
Aurten ere bai	175
Oñati	177
Aberastuko ote gera?	179
Egoaizea	181
Oargabetanik	183



Inozentzio Olea

Inozentzio Olea Ariztimuño aspaldiko ezaguna dute *Auspoa*-ren irakurleak. Bereak baiditu liburutegi ontan argitara emandako *Goierriko lorak* eta *Otemotxeko arnasa* bertso-liburuak.

Oraingo ontan, berriz, itz-lauzko emaitzak eskeintzen dizkigu: egunkarian agertutako zenbait idazlanen bilduma.

Izkuntza jatorra, aberatsa, garbia eta dotorea Olearena. Euskeraz pentsatutako euskera. Gaiak, berriz, eguneroko bizitzatik artuak eta bizkor eta zuzen erabiliak.

Zenbait urtetan erri-kazetaritza zoragarria eman zitzaigun egunkariaren bidez. Erri-kazetari oietako bat degu Inozentzio Olea adiskidea. Aren idazlanak dira liburuau osatzen dutenak, ez danak noski, autaketa bat baizik.



ZERAINGO VDALA

Zeraingo Udalaren
laguntzarekin argitaratua

ISBN 84-89080 50 X



9 788489 080508

G.